



2016-05-20  
EGUBAKOITZA  
684. ZENBAKIA  
16. URTEA  
DOAKOA  
GOIENA.EUS  
TOKIKOM

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

## Bigarren mailako finala

Mendizabal III.ak  
Gorka du kontrario | 27



Aitor Mendizabal, atzo, eguena. | x.u.

GEHIGARRIA, BARRUAN  
Autoen gaineko orrialde bereziak | 31



510 lanetatik 30 saridun  
Koldo Eleizalde lehiaketan | 17



Gaur hasiko da Txirrinka, eta domekan bukatu, Angiozarren | 5

## HOMOFOBIAREN BEHARREAN, ERRESPETUA

LGTIBQ fobiaren aurkako nazioarteko eguna gogora ekarri zuten eskualdeko hainbat ikastetxek | 6



Aretxabaletako Kurtzebarri eskolako 2 eta 12 urte arteko neska-mutikoeek ostadarraren koloreak irudikatu zituzten, plazan, martitzenean.

UBANE MADERA

# 3. mailako azterketari planto egingo diote

Era horretako proba bat egitea desegoki ikusten dute hezkuntza arloan diharduten profesionalak eta gurasoek | 3

## Ekainaren 4ra arte eman daiteke alde zurreko botoa

Erain Debagoienaren edo Gure Esku Dago-ren lokaletan bozka daiteke | 2

### SINADURAK

	IÑAKI UGARTEBURU   7
	7   AITZIBER ARANBURUZABALA
	HORAZIO ARGARATE   11
	15   ANDRES OSA 'SAKONA'
	MAITE IRIZAR   19
	24   PILAR ETXANIZ
	MANEX ARRIOLABENGOA   25
	48   IDOIA ETXEBERRIA



ASTE HONETAN 'PUNTUA'-N:

- Mondragon-eko presidente Javier Sotili elkarrizketa
- Makina-Erremintaren Biurtekoa, BECen

JASO 'PUNTUA' ETXEAN: 943 25 05 05

# GOIENA APP BERRIA

## DESKARGATU DOAN!

- Albisteak eta agenda
- Telefono gida
- Parte hartzeko aukera
- Pertsonalizatzeko aukera



goiena



Debagoieneko eta Aramaioko ordezkariak Oñatin egindako agerraldia; 9.139 sinadura lortu dituzte bi hilabetetan. | AMAIA TXINTXURRETA

# Sinaduren zilegitasunarekin, erabakia gauzatzeko ordua

Ekainaren 5ean botoa emateko lekuak zehaztu dira; aurretik botoa emateko aukera, ekainaren 4ra arte

## JOKIN BEREZIARTUA | DEBAGOIENA

"Debagoiendarrok, zorionak! 9.139 sinadura, 9.139 borondate, 9.139 zilegitasun lortu ditugu azken bi hilabeteetan Debagoiengan eta Aramaion egindako sinadura-bilketan. Babes handia da hori ekimenarendako, eta, zuen bultzadari esker, indarrez eta konfiantzaz helduko diogu ekainaren 5eko herri-galdeketerari, galdera honekin: *Izan nahi al duzu euskal estatu independente bateko herri-tar?*". Hitz horiek izan dituzte Erain Debagoiena taldeko ordezkariak asteon Oñatin, ekainaren 5eko herri galdeketera begira informazio praktikoa emateko prentsaurrekoan.

Azaldu dutenez, heldu da erabakitzeko eskubidea gauzatzeko ordua: "Azken hilabeteetan ekitaldi ugari antolatu ditugu eta hori guztia helburu zehatz batekin egin dugu: herri-kontsultaren nahi edo irudipen soila, ukitze-ko moduko bozketarako mahai, boto-paper eta gutun-azal bihurtzea", esan zuten agerraldian.

## Informazio-orri berriak

Ekainaren 5eko herri galdeketera botoa emateko ordutegia honako hau izango da: 09:00etatik 20:00etara. Non eman behar den botoa? Herri bakoitzak bere guneak ditu finkatuta –ikus eskuinaldeko taula-. Hala ere, aditzera eman zuten galdeketeraren xehetasunak eta boto aurreratuaren nondik norako zehatzak datozen egunetan argituko dituztela. Izan ere, boto

-paperekin batera, etxez etxe banatuko dituzte informazio-orriak. "Ahalik eta parte hartze altuena" lortzea izango da helburua.

## Laguntza eskaera

Bestalde, ekainaren 5erako laguntza beharko duela iragarri du antolakuntzak: "Mahaietan egoteko, zaintzarako, muntaiarako... Laguntza beharko dugu. Parte hartu egun historiko honetan!".

## DATOZEN EKINTZAK, GALDEKETA AURRETIK

**Maiatzak 20:** Mahai-ingurua Arrasateko Kulturaten (18:30). *Erabakitze eskubidea: etorkizuna helburu.* Carles Riera, Luke Uribe-Etxeberria eta Angel Oiarbide.

**Maiatzak 21:** Goierrri vs. Debagoiena bertso saioa Aramaioko kultura etxean (20:00). Iñaki Murua, Aitor Sarriegi, Paula Amilburu eta Jokin Labayen bertsolariak. Gai-jartzailea: Manex Agirre.

**Maiatzak 21:** Erain Debagoienaren abestiaren aurkezpena eta talo-postua Antzuolako San Isidro ferian.

**Maiatzak 25:** Mahai-ingurua Oñatiko Santa Ana antzokian (19:30). *Erabakitze eskubidea: Kataluniatik, askatasunetik.* Jaume Lopez eta Koldo Saratxaga. Moderatzailea: Zelai Nikolas.

**Maiatzak 28:** *Lipdub*-a Bergarako San Martin plazan (16:30).

**Ekainak 3:** Bertso saioa Aretxabaletako Pagaldaxenean, Nerea Elustondo eta Aitor Sarriegi bertsolarien parte hartzearekin.

## BOTOA EMATEKO LEKUAK

### ARRASATE

**Gesalibar.** Gentil-Ola elkarte.

**Garagartza.** Leze-Txiki elkarte.

**Uribe.** Uribe auzoa 7, behe.

**San Andres.** Parrokiaren lokala, Txindoki Dorrearen behealdea.

**Arimazubi.** Arrasate pasealekua, 18.

**Erguin.** Udalpe plaza (jaima bat).

**Ferixalekua.** Otalora Lizentziaduna, 8.

**Santa Marina.** Agerre semisotano, Agerre plaza, 21.

**Musakola.** Elkano kalea, 16 (jaima bat).

**Santa Teresa.** Galizia kalea, 10.

Erdikokale 23.

### BERGARA

**Ibargarai.** Seminarioko karpan.

**Ibarra** kalea, Caritasen lokala.

**Martoko** kalea, eskolako aterpean.

**Matxiategi** kalea, karpa.

**Angiozar.** auzoko saloian.

**Osintxu.** bolatokian.

### OÑATI

Olakua kalea, 7.

Errekalde kalea, 4.

Kale Barria, 45.

Unibertsitate etorbidea, 3.

### ARETXABALETA

**Pagaldaxenien.** Basabe bidea, 2.

### ESKORIATZA

Jose Arana kalea, 19 behe.

### ANTZUOLA

Kalebarren 16, behe.

### ARAMAIO

Bizente Goikoetxea plaza, 7.

Olaeta auzoa, 26.

### ELGETA

Mendizaleen plaza.

### LEINTZ GATZA

Jakion enpresako biltegian.

## Boto aurreratua

Maiatzaren 21etik ekainaren 4ra (biak barne), herri bakoitzeko Erain Debagoienaren edo Gure Esku Dago-ren lokaletan eman ahalko da boto aurreratua. Astelehenetik egubakoitzera 18:30etik 20:30era egongo dira eta aste bukaretan, goizez ere bai.

## Kezka, euskaraz ez dakien psikologo baten zerbitzuagatik

J.B. | ARRASATE

Arrasateko Euskalgintzak "kezka" azaldu du bertako Osasun Mentaleko Zentroak eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea dela eta. Izan ere, Erguin auzoan dagoen zentro horretako harreragileak eta psikologoak "bakarrrik" dakite euskaraz: "Hala ere, poztekoa da gure bailarako ume eta nerabe euskaldunek psikologoak eskaintzen dizkien zerbitzuak, behintzat, euskaraz egotea". Hori esanda, euskalgintzako eragileen arabera, zentro horretako zerbitzuen hizkuntza kalitatea ez da ona: "Ez da arrasatearrei legez zor zaien zerbitzua, eta egoera horrek okerrera egingo duen beldur gara, berriki jakin dugu eta laster [ekainean] psikologo horrek erretiroa hartuko duela, eta haren ordeztariko den profesionalak, lanpostu horretan aritzeko derrigorrez beharko zukeen hizkuntza gaitasuna ez izateaz gain, ez dakiela euskaraz".

Zalantza handiak dituzte ordezkio horrek eskaini ahalko duen zerbitzuari dagokionez: "Psikologoak euskaraz ez badauki, euskaraz ahoz egiteko gai ez bada, nola artatuko ditu euskaraz bakarrrik egiten duten haurrak eta, oro har, gaztelaniaz eroso sentitzen ez diren erabiltzaileak? Hori al da Osakidetza bere Euskara Planean aldarrikatzen duen kalitatezko zerbitzua?", galdegin dute.

## Arrasateko Udaletik

Arrasateko Udalak abiatu du ekimena, egungo psikologoa ekainean erretiratuko dela eta ordezkioak euskaraz ez zekiela jakin bezain pronto: "Osakidetza helaraziko dugu kexa; dagoeneko bidali diegu euskalgintzari eta bailarako beste udalei kexa horren zirriborroa, dagoenetan edo aldatetaren bat eginda eurek ere bidal dezaten. Konturatu behar dira bide batzuk ez direla egokiak", adierazi du Arrasateko Udaleko Euskara Saileko Joxe Felix Diaz de Tuestak.



## JARDUNALDIAK

Herri indigenak - Herri-komunikabideak - Komunikazioa Eraldaketa Sozialerako Latinoamerikako gonbidatu indigenen eta bertako kazetari eta komunikatzaileen parte-hartzearekin


Antolatzaileak



Laguntzailea



Babeslea



📢 **Maiatzak 24 asteartea, 19:00etan - KulturAte (ARRASATE)**  
Herri indigenek egindako dokumentalen emanaldia  
MEMORIA Y RESISTENCIA MAPUCHE" (39 min) eta "SOY COLLA" (15 min)  
+ **Hitzaldia** gonbidatutako komunikatzaile indigenekin (Gaztelaraz)

📢 **Maiatzak 26 osteguna, 19:00etan - Zinema Aretoa (OÑATI)**  
Herri indigenek egindako dokumentalen emanaldia:  
"MALLA MALLA PEWENCHE, MEMORIA Y RESISTENCIA MAPUCHE" (39 min) eta  
"SOY COLLA" (15 min)  
+ **Hitzaldia** gonbidatutako komunikatzaile indigenekin (Gaztelaraz)

Informazioa: [www.mugarikgabe.org](http://www.mugarikgabe.org), [elkarhezitzen.blogspot.com](http://elkarhezitzen.blogspot.com) eta [goiena.eus](http://goiena.eus)

# 3. mailako azterketaren aurrean, plantoa nagusi

Debagoieneko hamahiru ikastetxetatik hamabik uko egin diote 3. mailako proba egiteari

XABI GOROSTIDI | DEBAGOIENA

Rajoyren Gobernuak, aurreko legegaldian zeukan gehiengo absolutua baliatuta, LOMCE legea onartu zuen 2013ko abenduaren 9an. *Wert legea* ezizenarekin ezagutzen zen lege hark aldaketa sakonak ezartzen zituen orduko hezkuntzako legegaldian, eta, horien

artean, lehen hezkuntzako 3. eta 6. mailatan proba diagnostiko bana ezartzen zuen.

Lege berri horren aplikazioaren aurrean, Eusko Jaurlaritzak Heziberri 2020 plana onartu zuen, euskal hezkuntza sistema hobetu eta Europako Kontseiluak hezkuntza eta prestakuntzari

buruz 2020rako finkatu zituen ildo estrategikoak aplikatzeko.

Plan berriak zapore gazi-gozoa utzi zuen euskal ikastetxeen eta sindikatuen artean. Gozoa, Euskal Autonomi Erkidegoko Curriculum Dekretuan aurrerapausoak egiten zituelako. Gazia, aldiz, LOMCE legeak planteatzen zituen

proba diagnostikoak bere egiten zituelako. Heziberri 2020 planak ez du 6. mailako azterketa egitea aurreikusten, hasiera baten, baina 3. mailakoa bai.

Horren aurrean, Hezkuntza Plataformen Topaguneak azterketari planto egiteko deialdia egin zien ikastetxeei, eta Deba-

goieneko ia denek bat egin dute. Ez hori bakarrik: era horretako lege aldaketen aurrean era bateratuago eta eraginkorragoan erantzuteko, Debagoieneko Hezkuntza Bilgunea sortu dute. Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 120 ikastetxek baino gehiagok planto egingo dutela adierazi



**JONE ARIZABALETA**  
ARIZMENDIKO ERREKTORE  
KONTSEILUKO GURASOA

**"Proiektu pedagogikoa da benetan garrantzitsua"**

**1.** "Ikastetxeen efizientzia neurtzeko konparaketek ez naute arduratzen. Norberaren erabakia da seme-alabak zein egitasmo pedagogikotan hazi nahi dituen. Ikastetxe bakoitzaren emaitza jakitea datu interesgarria izan daiteke, baina nik ez nituzke inoiz nire haurrak irizpide horren arabera leku batean edo bestean hezikiko. Nota batetik harago dauden gauzei ematen diet garrantzia; konfiantzan oinarritutako pedagogiari, adibidez. Izan ere, proiektu pedagogikoa da benetan garrantzitsua".

**2.** "Niri, ez zait batere ongi iruditzen. Lehenik eta behin, bederatzi urteko haurrek ez daukate horrelako proba bat egiteko adina heldutasunik. Eta horretaz gain, proba bakar batek ezin dezake haur batek daukan ikasteko gaitasuna zenbatekoa den adierazi. Horrelako proba batek ezin ditzake konpetentziak neurtu".



**AITZIBER SANTAMARIA**  
KURTZEBARRI ESKOLAKO  
GURASOA

**"Ikastetxeek haurrei begira egon behar dute, eta ez euren arteko konparaketari"**

**1.** "Ba, egia esan, ez. Ikastetxeen arteko konpetentzia sor dezake, eta hauen arteko konparazioa ez zait sana iruditzen. Ikastetxeek haurren beharrei begira egon behar dute, eta ez euren artean onena nor den begiratzeko. Ikasleak onartzeko orduan ere *ranking* bat sortuko luke. Eta ezin dezakegu ahaztu haurrak pertsonak direla, eta ez zenbakiak".

**2.** "Ez zait beharrezkoa iruditzen. Berez, nahikoa azterketa eta ebaluazio dituzte kurtsoan zehar, eta euren bizitzan nahiko estres maila altua dutela uste dut. Beste azterketa bat ezartzea, honen onurak benetan zeintzuk diren jakin gabe, ez zait ondo iruditzen. Hezkuntzaren helburua bizitza errealeko arazoei aurre egiteko prestatzea bada, ez dut uste edukietan oinarritutako azterketa batek hori jaso dezakeenik".

**1.**  
Era horretako azterketa bat baliagarria izan daiteke ikastetxeen efizientzia neurtzeko?

**2.**  
Zer iruditzen zaizu bederatzi urteko haurrei horrelako azterketa bat jartzea?



**MIKEL URIBARREN**  
KURTZEBARRI ESKOLAKO  
IRAKASLEA

**"Azterketa globalek ezin dezakete ikastetxe bakoitzaren errealitatea neurtu"**

**1.** "Ikastetxe bakoitzak bere errealitate propioa dauka, eta azterketa global batek ezin dezake aniztasun hori modu eraginkorrean neurtu. Hori egiteko, selektibitate dago. Jakintzetan oinarritutako azterketa batek ezin ditu ikasleen gaitasunak ebaluatu, konpetentziak ezin dira-eta paper baten bitartez neurtu".

**2.** "Oso gogorra iruditzen zait. Ikasturte osoa edukietan oinarritutako proba horren bueltan antolatu beharko genuke, gai diren edo ez jakiteko bakarrik. Ikasle bakoitzaren beharrei moldatzen den hezkuntza bat egiten saiatzen gara, eta horrelako azterketa batek gure askatasuna muga-tuko luke. Horretaz gain, badaukagu kanpotik ezarritako azterketa bat egin beharra 4. mailan, eta, horrek ikasleengan sortzen duen estres maila ikusita, ez du zentzurik 3. mailan beste bat egiteak".



**ANABEL MONDRAGON**  
ARIZMENDI IKASTOLAKO  
ARIMAZUBI GUNEKO IRAKASLEA

**"Ebaluazioa hezigarria eta ikasketa prozesuaren parte izan behar da"**

**1.** "Inondik inora. Irakasleek lehenonka pertsonal bezala har ditzaketen datuak dira, baina argi eduki behar da era horretako azterketa batek ez duela irakaskuntzaren efizientzia neurtzeko balio. Ebaluazio hori hezigarria eta ikasketa prozesuaren parte izan behar da. Ikastolan, gure hobekuntza prozesuak martxan jartzen ditugu, ebaluazio prozesuak ahalik eta onenak izan daitezten, eta horrelako azterketek gure bidetik ateratzen gaituzte".

**2.** "Nire ustez, ez dauka inongo zentzurik. Ez dago beharrik bederatzi urteko haur bat horrelako egoera baten aurrean jartzeko. Gainera, egun eta egoera konkretu batean egindako azterketa batek ez die ekarpenik egiten ez haurrei, ez irakasleei, ezta ikastetxeei ere. 4. mailan diagnosi-probak egiten ditugu, eta estres handia eragiten dute ikasleek eta irakasleek artean".

ARRASATEKO BASERRIKO PRODUKTUEN AZOKA

09:00-14:00 Seber Altube Plaza

**HILEKO 3. ZAPATUA**

Maiatzak 21 | 2016 | Ekainak 18 / Uztailak 16 / Irailak 17 /  
Urriak 15 / Azaroak 19

Antolatzailea: **ARRASATEKO UDALA**  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN  
Eragile eta Garapen  
Ekonomikoaren Sarea

Laguntzailea: **ibai-arte**  
Arrasateko baserriek eta  
merkatariak konfiantza,  
herbitasuna eta kalitatea  
eskaintzen dizkizute.



# Herri komunikabideak, komunikabide indigenak eta 'mass media'-k aztergai Kulturateko hitzaldian

- Mugarik Gabe-k eta Helkar Hezitzen-ek antolatu dituzte jardunaldiak, Goienarekin batera
- Latinoamerikako eta Euskal Herriko kazetari eta komunikatzaileak izan dira astean Kulturaten

MIREN ARREGI | ARRASATE

*Komunikazio alternatiboa eta eraldaketa sozialerako herri komunikabideak.* Horixe da, Mugarik Gabe-k eta Helkar Hezitzen-ek Goiena Komunikazio Taldearen laguntzarekin antolatutako *Komunikatuz Eraldatu. Herriak euren komunikazioaren jabe* jardunaldien barruan, eguaztenean Arrasateko Kulturaten egin duten hitzaldiaren goiburua. Latinoamerikako gonbidatu indigenak eta Euskal Herriko kazetari eta komunikatzaileak batu ziren bertan. Hain zuzen ere, Ane Irazabal arrasatearra –Skype bidez hartu zuen parte mahai inguruan– eta Arantza Santesteban komunikazio eta genero kontuetan aditua izan ziren Euskal Herria ordezkatzeko. Ivan Sanjines zinegile eta komunikatzaile boliviarrak eta Bashe Nuhem, Argentinako Chaco probintziako Qom herriko ordezkaria, berriz, herri indigenen izenean.

## Komunikazio indigena

Hain zuzen ere, nor bere errealitate eta esparrutik egin ditu aurkezpenak. Esaterako, Ivan Sanjines zinegile boliviarrak herrialdeko errealitate indigenaren berri eman du: "36 hizkuntza desberdin daude Bolivian eta duela hamar urtera arte ez zegoen ia presentzia indigenarik komunikabideetan", dio. Hori asko aldatu da Evo Morales presidente denetik. Komunikazio indigenaren sistema pluri-nazional bat sortu da eta ordutik



Hizlariak Kulturaten. Ane Irazabal arrasatearra skype bidez hitzaldia egiten | IMANOL SORIANO

ehunka komunikatzaile eta zinegile formatu dira. "Telebista nazionalen telebista indigena ere bada go eta herri indigenen presentzia geroz eta handiagoa da", dio Sanjinesek.

## Estereotipoak hedabideetan

Ane Irazabal kazetaria, errefuxiatuen krisian komunikabide handiek edo mass-mediak jokatu izan duten eta jokatzeko duten paperaz mintzatu da. Irazabalen esanetan, komunikabide handiek erabiltzen duten terminologiak garrantzi handia du eta, gainera, termino-

logia horrek beti du kutsu politikoa. Gaineratu du errefuxiatuen krisian argi ikusi dutela hori; izan ere, "desberdintasun handia dago hedabide handiek krisia tratatzeko duten moduaren eta *freelance* ari direnek duten moduan". Eta honek dio: "*Freelance* kazetarien lana oso ona da. Saiatzen ari gara tokian tokiko errealitatea ezagutzen, egun asko egiten ditugu bertan. Hedabide handien jarraipena, bestetik, irregularra da. Jarraikortasuna falta da, gauzak bere testuinguruan sartzea", eta gaineratu du: "Estereotipoetan erortzen dira errefuxiatuen dramari buruz hitz egiten denean. Guri lana kentzera datozela, osasun sistema kolapsatuko dutela, ez dituztela mendealdeko ideietan sinisten...".

Bide beretik egin du Arantza Santestebanek aurrera. Berak bidingintza bereiziko lituzke komunikabideez jarduterakoan. "Komunikabide masibo eta hegemoniko-

na bat eta herri komunikabide eta komunikabide alternatiboena bigarrena". Santestebanek dio komunikabide hegemonikoetan modu intenzionatua ematen dela jendarte sexista baten irudia eta bide beretik, horiek direla "herri indigenen estereotipazioa ematen dutenak eta baita errefuxiatuen inguruko diskurtso ideologikoa egiten dutenak ere". Horien aurrean, Santestebanek iritziz, herri komunikabideak eta komunikabide alternatiboek dute gauzak beste modu baten kontatzeko betebeharra.

## Komunikazio parekiderantz

Generoari dagokionez, Santestebanek dio komunikabide txikietan errepikatzen direla komunikabide handien pautak: "Arazoa da androzentrismoa sartu dela indartsu gudan, eta horren aurrean oso kontuz ibili behar gara", dio.

Bashe Nuhem argentinarrak, berriz, emakume indigenen eta

komunikabideen gaia ipini du mahai gainean. Dio poliki-poliki ari direla geroz eta emakume gehiago alor horretan murgiltzen, baina oraindik ere gutxiengoa direla. Gainera, "errealitate indigena ikusgarri egiteko, gure kultura eta lurraldeen berreskuratze bidean oso garrantzitsuak dira komunikabideak eta bide horretan emakumezko komunikatzaileak behar dira, asko baitugu esateko", dio. Komunikazio erremintzen bitartez, bestetik, aurrerapauso handiak egin direla ere nabarmendu du.

Hori bakarrik ez, herri indigenen eskubideak zapaltzen dituzten multinazional komunikatzaileak bide gisa erabiltzea ere zalantzan ipini du eta herri indigenetan horren gaineko eztabaida ere badela esan du.

Mahai-ingurua osorik eskainiko da Goiena Telebistan, ekainaren 1ean, 22:00etan.

## Datorren astean bi emanaldi

Herri indigenen ikus-entzunezko sorkuntzaren adibideak ezagutzeko aukera egongo da datorren astean, *Komunikatuz Eraldatu. Herriak euren komunikazioaren jabe* jardunaldien baitan. Hain zuzen ere, hilaren 24an, martitzena, Arrasateko Kulturaten 19:00etan eta hilaren 26an, eguena, ordu berean Oñatiko Zinema aretoan, herri indigenek egindako dokumentalen emanaldia egongo da. *Malla Malla Peweche, memoria y resistencia mapuche* eta *Soy colla* dokumentalak eskainiko dira. Gainera, emanaldien ondoren, bai Arrasaten eta baita Oñatin ere, hitzaldia egongo dute gonbidatu komunikatzaile indigenek.



## AUZO LAGUN Koop. E. – ARRASATE

Estatutu Sozialen 32. artikulua dioenaren arabera, Ohiko Batzar Orokorreko deia egiten da.

### OHIKO BATZAR OROKORRA Deialdia

Eguna: 2016ko ekainaren 4a  
Ordua: 10:00etan, lehen deialdia - 10:30ean, bigarren deialdia  
Tokia: MGEP. Mondragon Goi Eskola Politeknikoa.

### GAI - ZERRENDA

- 2015eko BATZAR NAGUSIKO AKTAREN ONARPENAREN BERRI EMATEA, ETA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATzea.
- KUDEAKETA AZTERTzea ETA ONARTzea
  - 2015ko Kudeaketa onartzea
  - 2016ko Kudeaketa Plana berrestea
- 2015ko EKITALDIKO KONTUAK AZTERTzea ETA ONARTzea
- SOBERAKIN GARBIEN BANAKETA
- EKONOMIA ARAUBIDEARI BURUZKO ESTATUTUEN XEDAPENAK
  - Sarrera kuotak eta ekarpena
  - Kapitalari egindako ordainketa
  - IPDK aplikatzeko irizpideak
- AUDITOREAK IZENDATzea
- BARNE ARAUDIKO 69. ETA 73. ARTIKULUAK ALDATZEKO PROPOSAMENA
- ERREKURTSO BATZORDEKO KIDEAK HAUTATzea
- KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK
- MONDRAGON TALDEARI ETA ERKOP KOOPERATIBARI BURUZKO TXOSTENAK.
- GALDERAK ETA ESKARIAK

**OHARRAK:** Bazkideei gogorarazten zaie Kooperatibaren egoitzan eskuragarri dituztela Kooperatibaren agiri ekonomikoak, eta baita proposaturiko barne araudiaren aldakuntzaren testu osoa eta proposamenaren beharrendarrazioak bilzen dituen txostena eta agiri hauek doan emateko edo bidaltzeko eska ditzaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA  
Arrasate, 2016ko maiatzaren 20a

## Debagoieneko Ituna izeneko dokumentua sinatuko dute maiatzaren 24an Portaloian

Hondakinak gaika batzearekin lotuta bost puntu dituen ituna da alderdi politiko, sindikatu eta ingurumen arlokoek sinatuko dutena

U.M./M.A | ARRASATE

Debagoiena Eredu. Zaborteagirik Ez! plataformak "hondakinak gaika batzearekin lotuta eta bost puntu dituen" Debagoieneko Ituna izeneko dokumentua sinatzeke ekitaldia antolatu du. Debagoieneko alderdi politikoak, sindikatuak eta ingurumen arloan lanean diharduten taldeak gonbidatu dituzte ekitaldira: maiatzaren 24an, martitzena, 19:30ean,

Arrasateko Portaloian sinatuko da dokumentu hori.

## Baiezkoak eta ezezkoak

Plataformatik jakinarazitakoaren arabera, testua dagoeneko aurkeztu zaie alderdi politikoei, sindikatuari eta ingurumen arloko taldeei, eta honako hauek baiezkoa eman dute: sindikatuen alde, ELA, LAB, STEILAS eta ESK sindikatuak izan dira baiezkoa

eman dutenak. Alderdi politikoen alde, berriz, honako hauek: EH Bildu, Ahal Dugu-Podemos, EA, Alternativa, Sortu, Aralar (akaso banaka edo akaso EH Bildu bezala), Irabazi, Gorripidea eta Equok. PSE-EEK eta EAJk, berriz, ez direla bertaratuko esan dute, "baina arrazioak ez dakizkigu", diote plataformatik.

Ingurumen arloko taldeen alde, berriz, baiezkoa eman dutenak dira Zero Zabor eta Ekologistak Martxan taldeak; eta Greenpeace eta Eguzki elkarten erantzun zehatzik, berriz, ez dute eskuratu, oraingoz.



Ekimenaren aurkezpena egin zuten Monterronen martitzenean. | E.A.

## Txirrinka ekimena aurkeztu dute, ingurumenaren alde

Bizikleta martxa egingo dute gaurtik domekara, lurra mehatxatzen duten egitasmoen aurka

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

*Lurra zaindu, eredu soziala eraldatu! AHT eta proiektu txikitzaileak borrokatu!* lelopean egingo den bizikleta martxa da Txirrinka izeneko ekimena.

Lurraren alde eta ingurumenaren zaintzan ari diren hainbat mugimenduk bat eginda sortu dute ekimen hori.

"Ohartu ginen ingurumenaren aldeko plataformok bakoitzak bere aldetik egiten genuela lan eta ez zegoela batuketa bat. Horregatik, ekimen hau sortzea erabaki genuen. Aurten lehenengo aldia da eta gure asmoa da bi urtean behin lurraren aldeko dinamika ezberdinak antolatzea", azaldu du Mila Elorzak, Txirrin-

ka ekimenaren antolatzaileetako batek. "Helburua da lurrarentzat kaltegarriak diren ekintza suntsizaile guztien aurkako aldarrikapena egitea", gaineratu du.

Edozeinek parte hartu dezakeela azpimarratu du Elorzak, erritmo txikian egingo da eta martxa. "Ekarpen guztiak dira ongi etorriak. Bost kilometro edo hamar. Bakoitzak ahal duena egin eta aldarria bizikleta gainean eramatea da helburua", dio.

Txandakako bizikleta martxa honek lau zutabe izango ditu, lau irteera puntu. Hendaia, Muskiz, Gasteiz eta Iruñetik abiatuko dira, eta, Euskal Herriko geografia zeharkatu ondoren, Bergarako AHTaren lotunean elkartuko dira.

Zutabe bakoitzak lekuko bat izango du eta aldarrikapen mezu bat eramango du. Jasone Mitxeltoarena izango da Nafarroaren lekukoa, Juan Ibarrodo Arabarena, Amaia Agirre Gipuzkoarena eta Fredi Paya Bizkaiarena. Bertan, lau lekukoekin batera datozen idazki laburren irakurraldia izango da, propio idatzi dituzten egileen eskutik.

Behin Bergarara helduta, Angiozarrera oinez joateko aukera ere egongo da, manifestazio modura, ekitaldi nagusia bertan izango da eta, domekan. "Bizikletan animatu ez denak ere aukera izan dezan, oinez ere egingo dugu martxa", dio Elorzak.

Esan bezala, ekitaldi nagusia Angiozarren egingo da, azken egunean. Bazkaria, kontzertuak eta ekintzak egongo dira –sokaitira, dantza saioak...–.

### Los Zopilotes Txirriaos

Talde nafarrak ere egin dut bat egitasmoarekin eta bizikleta martxa honetarako abesti bat sortu du, *Txirrinkak hartu eta goazen* izenekoak.

## Ordainduk bilerak egin ditu, kaltetuei informatzeko

Mondragon Taldeari jarritako salaketa zein puntutan dagoen azaltzea izan da helburua

ENEKO AZURMENDI | DEBAGOIENA

Bilera informatiboak egin ditu aste honetan Ordaindu elkar-teak, Mondragon Taldeari jarritako salaketa judizialki zein egoeratan dagoen azaltzeko.

"Salaketaren harira, kaltetutako bazkideei bide juridikoa ze puntutan dagoen azaltzea eta hemendik oporrak arte egingo diren ekintzen gainean informatzea da bilera hauen helburua", azaldu du Mikel Olabek, Ordaindu elkarte kideak.

Nabarmendu du orain arte ez dutela aukerarik izan honetaz informatzeko eta orain egin nahi izan dutela.

2017ko urtarrilaren 24an izango den epaiketa aurreko entzunaldi batera deituak izan dira bi aldeak –bai kaltetuen bi elkar-teak, Ordaindu zein Eskuratu, baita Mondragon

Taldea ere–. "Gertakariak zehazteko entzunaldi bat da hau, bi aldeek epaiketan erabiliko dituzten frogak balioan jartzen dituen", dio Raul Tenesek, Ordaindu eta Eskuratu elkar-teetako abokatuak.

Gaineratu du egun horretara arte ezin dela mugimendurik eta aurrerapausorik eman modu prozesalean.

48 milioi euro eskatzen dituzte kaltetuen bi asoziazioek. "Hiru urte pasa dira dagoeneko eta Mondragon Taldeko leihok itxita daude, zer pentsatzen duten ezin da jakin", dio Olabek.

### Protestak

Maiatzaren 26an EITBren egoitzan eta Eusko Jaurlaritzaren aurrean elkarretaratzeak egingo dituzte Ordainduk eta Eskuraturak.



Atzo egin zuten bilera informatiboa. | ENEKO AZURMENDI



Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak.
- Parking handia.
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala.
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomía zaindua eta aukera zabalekoa...



Ezkontzetan  
espezializatuta  
dagoen jatetxea



leku eta egun ahaztezinak



Etxe-Aundi

Hotela - Jatetxea

Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI  
Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90  
etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com

Iraila, urria, azaroa eta abenduan dena barne duen 90€-ko pack-a

Miren Berezibar eta Gurutze Urrutia | Kurtzebarriko Elkarbizitza Batzordeko kideak

## "Umeei pentsatzeko modua aldatzen laguntzen badiegu, gizartea aldatuko da"

Homofobiaren kontra errespetua aldarrikatu dute hainbat ikastetxek; tartean, Kurtzebarri eskolak

UBANE MADERA | ARETXABALETA

Homofobiaren Kontrako Nazioarteko Eguna izan zen martitzena, maiatzaren 17a. Eskualdeko hainbat ikastetxetan bat egin zuten egun horren aldarrikapenarekin. Tartean, Aretxabaleta Kurtzebarri Eskolan, 2-12 urte bitarteko neska-mutikoen LGTIBQ fobiaren kontrakotasuna irudikatu zuten ostadarraren koloreak argazki erraldoian erakutsita. Miren Berezibarrek eta Gurutze Urrutiak, eskolako Elkarbizitza Batzordeko kideek, azpimarratu dute urteak daramatzatela hezkidetzak lantzen; bestela esanda, pertsonak bere

banakotasunaren zein berezitasunaren arabera, generotik kanpo lantzen den hezkuntza garatzen. **Argazkiak gainera, egunaren jatorria eta arrazoia landu duzue geletan eta familietan; zelan erabaki zenuten halako gaia horrelako neska-mutiko gaztetxoekin lantzea?**

Hezkuntzak aldatuko du gizartea. Hezkuntza bera da garrantzitsua. Umeei laguntzen badiegu pentsatzeko modua aldatzen, gizartea bera aldatzen joango da. Poliki-poliki joan behar dugu aldatzen. Adibidez: eskolan aldatu ditugu hizkerarekin lotutako hainbat esamolde: "kaixo, ama-aita" esan



Miren Berezibar eta Gurutze Urrutia, Kurtzebarri eskolaren sarreran. | UBANE MADERA

beharrean, esaten dugu "kaixo, familia". Esaten dugu betaurreko moreak ditugula jantzita, gauza batzuk aldatu egin behar direlako; familia mota asko daude eta guztiak errespetatu behar dira, eta, ume bakoitzaren adinera egokitutako hiztegiarekin, halako kontuen gainean berba egiten dugu. Aurten Azaroaren 25a eta Martxoaren 8a ere landu ditugu.

**Beraz, abiapuntua da giza balioak lantzea; eta bi urtez zabiltzate hezkidetzak bereziki lantzen. Zergatik? Garrantzitsua delako errespetuzko jarrerak lantzea. Ikusi behar dute gizarte honetan dauden gau-**

za batzuk ez direla egokiak; gura barik eurek normaltasunaren barruan dituztenak ere ikuspegi kritiko horretatik begira ditzaten. Eta, egia esan, umeei naturaltasun osoz barneratzen dituzte halako gaiak; edozein gai, euren hizkuntzara egokitu eta moldatuz gero. Adibidez, Azaroaren 25a, Indarkeriaren Kontrako Eguna, ospatzeko, Haur Hezkuntzakoekin erabili genuen hiztegia izan zen: *Eta zuri nola gustatzen zaizu besteek zu tratatzea? Lagun ona izateko zelan portatu behar da?*

**Umeei normaltasunez hartzen dituzte halako gaiak; eta gurasoek?**

Oso ondo. Baditugu zoriondu gaituztenak ere, esanez ordua zela horrelako gauzak lantzeko eskolatan ere.

**Elkarbizitza Batzordeko kide zarete; zein da batzorde horren zeregina?**

Bost irakasle eta guraso bat gaude. Irakasleok astelehenero elkartzen gara. Eta elkarbizitzarekin lotutako zerbait pasatzen bada horri irtenbidea ematen saiatzen gara. Eta bestela, Hezkidetzak Plana lantzen dugu.

**Zelan?**

Berdindurekin, Jaurilaritzako zerbitzuarekin, harremanetan jarri gara eta sentsibilizazioa lantzeko formazioa izaten ari gara eta izango dugu ikasleek, irakasleok, gurasoek eta eskolako beste langileek. Beste ikastetxe askorekin batera mintegi batean parte hartzen dugu, Eibarko Berritzegunean. Eta, esan bezala, egunerokotasunean lantzen dugu gaia: hizkeran, hezkuntzarako materialaren aukeraketan... Bestalde, sentsibilizazio kanpainaren ondoren egingo dugu eskolako diagnostikoa: eskolako komunitate osoko partaideei inkestak egingo dizkiegu; eta ikusten dugunean zein den eskolako egoera zentzu honetan, ba, ikusiko dugu ea zer lan gehiago egin dezakegun.



Almengo ikasleak, ospakizuna aurkezteko ekitaldiaren osteko talde argazkian. | MAITE TXINTXURRETA

## Festa handia iragarri dute Almenen 50. urteurrenerako

Ekainaren 4an egingo dute eta bertako kide diren edo izan diren debagoiendarrak gonbidatu dituzte

M.T./U.M. | ESKORIASA

Goizetik gauera arteko jaieguna antolatu dute Almen ikastetxearen 50. urteurrena ospatzeko, ekainaren 4an Almen gunean egingo dutena, Eskoriatzan: "Festa handian 50 urteotako ikasle ohi, ikasle, irakasle ohi, guraso ohi, gura-

so, langile ohi, langile eta bailarako herrikideak elkartzea nahi dugu: guztiok berriz elkartzeko eta ospatzeko. 50 urteotan Leintz Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Aramaio eta Bergarako ikasleak izan dira Almenen, eta haragokoak ere bai sasoi

batzuetan. Irakasleak ere bailarakoak izan dira, gehienbat, nahiz eta irakasleen kasuan ere izan diren bailaratik kanpokoak ere", azpimarratu zuten festa handiaren aurkezpenean, eguaztenean.

**'Almenen ahalmentzen'**

Ospakizunaren berri emateaz gainera, urteurrenerako propio sortutako "kanta dantzagarri eta arina" aurkeztu zuten, Almengo ikasle ohi Iraitz Agirrerren letrarekin eta Itoiz taldearen *Lo egin* kantuen musikarekin egindakoa: *Almenen ahalmentzen*. -Informazio gehiago, 23. orrian-

## 50 enpresak eta erakundek parte hartuko dute Lanbai azokan

Ekainaren 9an da, Garaia Berrikuntza Gunean

X.G./U.M. | ARRASATE

Berritasunekin dator Lanbai azoka aurten: batetik, azokan parte hartzeko aukera jende guztiari zabaltzen zaio, ez bakarrik Mondragon Unibertsitateko ikasleei, aurreko edizioetan moduan. Parte hartzeko, unibertsitateko webgunean izena eman behar da maiatzaren 26tik ekainaren 2ra bitartean. Eta bestetik, aurtengo azokaren baitan, ekainaren 6tik 8ra hitzaldiak eta formazio eskainiko dituzte, lana topatzeko orduan beharrezko trebeziak erakusteko. Azoka bera ekainaren 9an izango da, eguena.

Eguaztenean sinatu zuten Lanbairen laugarren edizioa gauzatzeko hitzarmena MUko errektore Bixente Atxak eta Arrasateko alkate Maria Ubarrerenak. Iragarri zuten 50 enpresak eta erakundek hartuko dutela parte. Batzuk aipa-

tzearren, Danobat Group, Fagor Arrasate, Fagor Ederlan, Ingeteam, Irizar, Aita Menni, Arteman, Catalana Occidente eta Laboral Kutxa enprekin hitzordua eskatzeko aukera izango da. "Azokaren bitartez lortu nahi da langabeei eta graduatu berriei lana bilatzeko prozesuak erraztea, formazio espezializatua ezaugarraztea eta enpresa zein erakundeei pertsonal beharretarako izangai egokiekin kontaktua erraztea", esan zuten.

**Garrantzia handituz**

Eta azpimarratu zuten, baita ere, azoka handitzen doala, eta, Bixente Atxak jakinarazi duenez, iazko edizioari esker 25 lan kontratu egitea lortu zuten. Horretaz gain, parte hartzen duten enpresen kopurua da beste adierazle bat: lehen edizioan 23 enpresak hartu zuten parte; orain, 50ek.

# DEMASA JAIALDIA

**KILOMETROAK 2016KO ABESTIAREN ETA BIDEOKLIPAREN AURKEZPEN JAIALDIA**  
MUSIKA, DANTZA, ANTZERKIA, AKROBAZIAK, UMOREA, IRUDIA... ETA GEHIAGO.

EGUAZTENA, HILAK 25, 22:00



## ZABALIK



IÑAKI UGARTEBURU  
goiena.eus/komunitatea/

## Donostia 2016n, kirolrik ez!

Donostia Europako Kultur Hiriburua izateak onura asko dituelakoan nago; nahiz eta hasiera espero baino makalagoa izan, martxa hartzen ari dela iruditzen zait eta aukera bikain asko eskainiko dizkigulakoan nago –irudikatu, 15 segundotan, Bilbo izango balitz Europako Hiriburua; ezberdina oso, seguru–.

Aurten, disfrutatzea espero dut, eta sortzen edo indartzen ari diren harreman sareak etorkizunerako onak izango dira. Jakinekoak dira proiektuaren sorrerak izan dituen zailtasun eta gorabehera guztiak, eta, lerro hauen bidez, proiektuak niri sortu dizkidan hausnarketak helarazi nahi dizkizuet.

Kirol munduko pertsona naiz eta tamalgarria iruditzen zait kirolek inongo presentziarik ez izatea urte osoko programan; jolasek, mendiak, akrobaziek, eta abarrek tokia dute, baina kirol atalik ez.

Jakin badakit kirola, edo, gehienbat, futbola, alde guztietatik ailegatzen zaigula eta badirela batzuk nahiko aspertuta daudela. Baina kirola askoz gehiago da, edo izan daiteke: tradizioa, aisialdia, gizarte kohesio eta identifikaziorako elementua, osasun edota hezkuntza tresna, eragile ekonomikoa, eta abar.

Nire ustez, egun, mundu mailan, gizarte garatu eta ez garrantuetan, ez dago kirola bezalako fenomenorik, hain zabaldua, hainbeste adar edo interpretazio dauzkanik. Praktika berri asko ditu: *parkour* edo *freerunning*, *bungee jumping*, *foot golf*, *bubble soccer*. Batzuk kalean sortuak, denbora-pasa gisa, beste batzuk bulegoren baten, kirolaren fenomeno etengabe aldatzen doa, gizarte eta gizakia bezala.

Arestian esandakoagatik, ez dut inongo dudarik kirola ere kultura dela, eta Donostia Europako Kultur Hiriburuko programan presentziarik ez izateak kaltegarria dela kirolerako eta baita proiekturako ere.

### Hezkuntza eta osasun tresna, tradizioa, aisialdia, gizarte kohesioa...

## USTEAK USTE


AITZIBER ARANBURUZABALA | aaranburuzabala@goiena.eus

## Topa, Oñati Irratiagatik!

Maiatzaren 11n, 25 urte bete zituen. Aspaldiko laguna dut nik ere. Miren Urkiolak Oñatiko berriak kontatzen zizkigun astero, eta Arrasate Irratitik, trukean, herriko agenda-proposamenak egiten genizkion. Geroago, Oñati Irratian bertan lan egiteko aukera izan nuen hilabete batzuek; Kultura etxeko atikotik Olarako dorretxerako aldaketa garaia izan zen. Gaur egun ez dugu asteroko kolaboraziorik, bakoitza bere bidetik doa; hala ere, bidelagun. Beti sinistu izan dut herri irratiaren, audientzia neurtzeko inkestetan apenas agertzen dira, baina urteetako eta eguneroko entzule horrek merezi du; ezta, Miren? Urte askotarako! Osasuna!

## MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.eus/komunitatea/



## HANDIK ETA HEMENDIK

## Mitoak eta maitasun falta

Leire Narbaiza Arizmendi  
http://goo.gl/cWJb01

Azken boladan, bideo bat dabil bueltaka sare sozialetan eta, horren ondorioz, komunikabideetan oro har. Paul Langfocus-ek egin du.

Gizon hau Kaliforniako youtuberra da, eta hizkuntzen gaineko bideoak egiten ditu.

Oraingoan, euskararen txanda izan da, eta ingelesez era txukunean dakartzela gure hizkuntzaren nondik norakoak.

Hala ere, emandako zertzelada batzuk topikoegiak iruditu zaizkit.

Alde batetik dio euskara hizkuntza isolatua dela, Euskal Herria isolatuta egon zelako.

Isolatua?

Nolatan izan liteke euskara hizkuntza isolatua hitz gehienak beste hizkuntza batzuetatik etorrira?

Euskal Herria isolatua? Hona erromatarrak, zeltak, arabiarak, gaskoiak, bilingoak... etorri dira, barren!

Pirinioak pasatzeko leku handi bi zeuden, eta bata bertan! Ezin isolatuta egon! Nago, baina, kanpotarrek egindako bideo hauen arrakasta –barkatu zatarkeria– gure kanpolarrosismoan datzala.

Kanpoan egiten dute halako zerbait, eta biral bihurtzen dugu ziztu bizian. Eta badakizue, kanpolarrosismoak etxekardismoa dakarrela; hau da, etxean egindako lan serio eta osoei ez diegula jaramon larregi egiten. Gure patua!

Hau guztiau esango nuke maitasun faltagatik dela.

Bai, dugin gutxiagotasun konplexuagatik.

Gutxitan tratatzen gaituztelako goxo.

Horregatik oihartzuna, ez gaudelako gauza onetara ohituta.

Beti baztertuta, beti eskubideak eskatzen eta aldarrikatzen, gorroto eta autogorrotoak jipoituta.

Gutxi maite izan gaituzte, eta maitatu gaituztenean miresmen estetiko hutsa izan da.

Gutxitan grina eta pasioa bere baitan duen maitasunaz, sexua eta kariñoa uztartzen dituenaz.

Euskara eta euskaldunak maitatu ez dituztenek badakigu nola tratatu gaituzten, debeku, zigor eta mespretxuz.

Ez dut larregi aitatu, denok sufritu dugulako noizbait maitasun ez edo gorroto hau.

Maitatu izan gaituztenek, ordea, sarriegi tratatu izan dute euskara Ming dinastiako murko bat balitz bezala: ukiezina, ederra, hauskorra, bitrinan sartzekoa. Hizkuntza puru eta garbia. Museoko gaia, alegia.

Guk, baina, euskara zikina nahi dugu, bastarta. Lokatzetan sartua, irainez betea, lizuna. Erabilerak maiztua, esamoldez betea, gaztea eta zaharra, internazionala eta txokokoa. Bitrinatik aterata, erabilia. Maitasunaz berba egiteko. Eta sexuaz. Nabarra eta narrasa. Jasoa eta kalekoa.

Maitatzen ez bagaituzte ere, maita dezagun geure burua. Hortik hasiko dugu-eta bidea.

Laga ditzagun misterioak eta mitoak.

Ez diezaiogun auzoari hainbeste begira, so diezaiogun gehiago geure ziliborrari.

Eta gu geurera!!!

goiena<sup>4</sup>  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkarte  
Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE

**Lehendakaria** Aitor Izagire

**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Erredaktore burua** Urbane Madera

**Sailtako arduradunak** Xabi Urzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketaria** Imanol Soriano, Aitor Lagoma, Ozel Arrieta.

**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza

**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.

**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.

**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00  
berriak@goiena.com

**PUBLIZITATEA**

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 05 | Fax: 943 25 05 00  
publi@goiena.com

**HARPIDETZA**

Arrasate 20500  
Otalora Lizentziaduna 31  
Tel.: 943 25 05 00  
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-965/2014

**ISSN:** 2174-369X

**Tirada:** 18.850 ale

**Diffusioa:** 18.507 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritza  
diruz lagundutako  
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## Zorionak, Doke!

Jose Ignacio Isasmendi Zubillaga  
Aretxabaleta

Maiatzaren 13a, ostirala, arratsaldeko zortziak, Aretxabaletako Zaria aretoa. Oholtzan, Arrasateko Doke Taldea eta *Aingeru ala kurriloi?* antzezlan.

Aretoa ez da bete, baina giro berezia nabaritzen da. Argiak itzali dira eta isiltasuna da nagusi. Aktoreak hasi dira lanean. Mintzaldi motelak, baina tentsio handikoak. Poliki-poliki agertzen ari dira familia horren arazoak: ahizpa baten alkoholismoa, beste bat etxetik kanporatua ama ezkongabea izen zelako eta hirugarrena diruaren jabea. Laugarren pertsonaia bat ere azaltzen da: kaleratutako ahizparen alaba.

Ez dut komentatu behar historia nola garatzen den, baina gaurko errealitatearen ispilua dela bai: alkoholismoa, herentziaren arazoak, familiarreko harreman hipokritak...

Iraupena 75 minutu, baina oholtzan entzuten diren garrasiek, txirrinek, argi efektuek, doinuek... ikusleei bihotza ukabilean jartzen diete.

Zorionak Arrasateko Doke Taldeari! Seigarren lana taularatu du, eta, nire ustez, beste arlo batera joan da: dramara, hain zuzen. Bejondeizuela.

Aipamen berezia aktoreei: Mariasun Pagoaga –ikaragarri Mirenen paperean–, Arantxa Ezkurra –oso txukuna bere lana–, Dorita Murgia eta Maider Alzelai –biak bikain–. Baita Vene Herrero zuzendariari eta, nola ez, *inbento* honen buru den Jose Mari Velez de Mendizabal jaun eta lagunari. Aholku bat Doke Taldearen partaide guztioi: jarraitu horrela. Eskerrik asko!

## Zortzi abizenetatik aldendu ezinik

Oihan Vitoria  
Arrasate

Abizenak dira herritarren identitatearen ikur, nondik gatozen eta nora goazen erakusten dizkigutenak, zuhaitz genealogikoa osatu, familiarren sustraiak ikusarazi eta iraganean arakatzeko laguntzen digutenak. "Vitoria? Nolatan ba hiri izen bat abizen gisa? Eta Gartzia? Nola da posible euskal abizen bat Espainiako erabili izatea? Nondik dator Gallastegi?". Ohikoa da noiz edo noiz, bazkariren batean edo, era horretako hartu-emanak izatea aitona-amonekin. Baina zer diren gauzak. *Ocho apellidos vascos* film arrakastatsuen olatuak eztabaidaren muina iraultzea ere lortu du.

# GUTUNAK

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak dira: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

Orain kontua ez da hainbeste abizenak batenak edo bestearenak diren. Horien jatorriak axola du: euskaldunak diren edo ez. Mugakideek euskal herritarrekiko duten pertzepzioa ere aldatu da: gutaz ahazteko zorian egotetik umorista rola hartzera pasa dira. Egun batzuk igaro berri ditut atzerrian, eta beste gairik ez zen espainiarren lagun taldean. *Vasco* hitza entzutea aski dute, gure ustezko jarrerak imintzio, txantxa eta barre algara artean imitatzeko. Joko asko ematen omen dugu; hori bai, euskarari buruz galdetzea ez zitzaien okurritu. Kasualitatea. Baina ez gaitezen gaizki ulertu. "Dena giro onean, badaezpada". Nola ez ba? Ziurrenik, errua ez da haiena. Film txatxu batek barruraino sinetsarazi baitie euskal herritar peto-petoak izateko zortzi abizen euskaldun eduki beharko genituzkeela. Edo, behintzat, esaldi hasieran *ostia* eta bukaeran *pues* esan beharko genukeela abilitatez, edo hitz totala. Barrez lehertzeko aitzakia perfektua, badakizue.

Garaia ere errotik aldatu ei dira. Lehen, agenda politikoaren erdi-erdian geunden, komunikazio talde handien miran, eta lerroburu nagusietako protagonistak ere baginen. Ez gauza onerako, ordea. Euskal agendak ez, euskal kartelerak pizten du orain espainiarren arreta. Gure mugetatik at bakarren bati interesatuko zaizkio hemengo tirabira politikoak –harena bai meritua–, baina gaur-gaurkoz gehiago saltzen du aurreiritzien labirintoan galtzeak. Pentsatzeak euskal herritar guztiok esku bakarrekin altxa ditzakegula 300 kiloko harri koskorak eta lehertu arte bete dezakegula sabela.

## Ukapena ez da bidelagun gomendagarria

Gorka Etxabe  
Aretxabaleta

Ezetzak ez du zirrararik eragiten, ez du konfiantzarik sortzen, kontrako sentimendua baizik. Era sistematikoan ezetz esaten duenak ez du

ingurukoengan sentsazio positiborik eragiten. Indibiduotik kolektibora jauzia eginez gero, munduan ezetzak eta ukapenak gerra lazarriak eragin ditu. Baietzak, onarpenak, errespetuak, eskubideak garatzeko aukerak, berriz, bestelako ondorioak izan ditu.

Erabakitzeko eskubidearen kasuan, hamaika adibide ekar ditzakegu gogora, non jarrera positiboek erantzun zibiko eta askeak izan dituzten: 1980an eta 1995ean aske sentitu nahirik, milaka herritarrek herri-galdeketa parte hartu zuten Quebecen. 2006an Montenegron eta 2014an Eskozian eta Katalunian... Azken hori izan ezik, gainerako guztiak askatasun ariketa erraldoiak izan dira, inbidia eragiten duten horietakoak. Aske sentitu, erabaki, konpartitu, sentitu... hori guztia da, era baikor eta errespetuzkoan, Euskal Herriak eskatzen duena orain.

Ekainaren 5ean euskal herritarrok erabaki nahi dugu. Errespetuz eta baketsu gure eskubidea praktikara eraman nahi dugunok, ukapena barik, baietza jaso beharko genuke. Guk erabaki nahi dugu, eta gustatuko litzaiguke erabakitzeko eskubide hori muturreraino eramatea, erantzunaren beldurrik gabe, desberdin pentsatzen duenari errespetua erakutsiz, askatasunez...

Ekainaren 5ean harro sentitu nahi dut.

## Udalbatzari, e-mozioz

Iñaki Idigoras  
Oñati

Oñatiko Udaleko Gobernu batzordian mozio elektronikoa hau sartu gura dot.

Komunikabide honetan EAJko oposizio buru Mirenek kudeaketa txarraren lelua, beste behin. Hasarria sentiu dot.

EH Bilduko alkate Mikelen erantzuna gero. Justifikaziño ekonomikoz jositta. Kudeaketa, ekonomikora mugatuko baillitza. Penia sentiu dot. Egindako lana balorian ifiñi barik. Bat aipaketiarren, Eltzia sormen etxe autogestionatua, ekainaren 4an urtebete ospatuko doguna.

EAJko alkate ohi Lurdes gero, nik ulerketan ez dituden detaile legal eta finantzieruak emanaz. Hasarria berriz. Zergatik zabitzei kudeaketaz aritzian, euro terminotan bakarrik? Neurketan samurrena dalako? Zela neurtu kultur sorkuntza burujabia izatian balixua, esaterako?

Sinisketan dot epe laburrian poztasunen bat be emungo dostazuela, herrixan alde elkarlanian arittuz. Bilddur naiz, baina, borondaterik ez dakotzuela, gaur-gaurkoz.

Bittartian, mesedez, ika-mikak eta arerixo politikandako epaixak alde batera itxi eta sinisketan dozuen horretan lan egin, herritarrori zuen proposamenak garbi azalduaz.

Eta mesedez, Ritxar, San Martineko parkia daguenetan itxi, konpetiteteo entrenaitteko baino, hausnarketarako eta intimitatian elkarketako txoko izaten jarraitu daixen.

## Otala zelai eguneko lasterketako parte-hartzaileei

Mikel Uribetxebarria  
(Kirol Saileko zinegotzia)  
Aretxabaleta

Aurtengo Otala Zelai eguneko izandako lasterketa arrakastatsua izan da parte-hartzeari dagokionez, azken urteetako lasterkari kopuruak nabarmen gora egin du, izaera herrikoia mantenduz. Zoritxarrez, antolakuntza aldetik arazoak izan genituen, irteerak 30 minutuko atzerapena izateraino.

Egoera honen aurrean, Aretxabaletako Udaleko Kirol Zerbitzutik, parte hartu zenuten guztioi, baita antolakuntzan lagundu zenuten kirol taldeei ere, barkamena eskatu nahi dizuegu, izen-emateak egiteko orduan eta, oro har, kirol probaren baitan izandako arazoengatik.

Akatsen ardura gure egin eta 2017ko ediziorako neurri zuzentzaileak hartzen ari garela baieztatzen dizuegu.

Datorren urtean ere gure artean izango zaitugulakoan, jaso gure agurrik beroena.

## Sahararrak, maila bat beherago

Luis Gomez  
(Irabazi Aretxabaletako zinegotzia)  
Aretxabaleta

Gaur, maiatzaren 20a, 43 urte bete dira saharar herriak independentziarako bidea hasi zuela.

1973ko maiatzaren 20an, Fronte Polisarioak Sahararen birkolonizazioa hasi zuen, eta 1975ean Espainia joan egin zen handik; Marokori utzi zion saharar lurraldea, trukean haren baliabide naturalen portzentaje bat jasota. Orduan, borroka Marokoren aurkakoa izatera pasatu zen.

1991n, Nazio Batuek bitartekari lanak egin zituzten gatazkan, eta su-etena izan zen; elkarrizketak hasi ziren, baina ez zen akordiorik lortu. NBERen barruan, Frantziak eta Espainiak beto-eskubidea dute gatazka konpontzeko erabakiei dagokienez, eta oso zaila da haiek zerbait egitea Marokori kalte egiteko.

Gaur egun, sahararren egoera oso gaitza da: immigrante izaera lortzeko eskubiderik ere ez dute, maila bat beherago daude.

Estatu bako gerrako errefuxiatuak izan dira beti, herrigabeak; orain dela gutxira arte, munduan barrena ibil zitezkeen, legalki, Sahara ondoko herrialdeek ematen zizkieten igarotze-pasaporteeekin.

Baina orain, zortzi hilabetetik hona, pasaporte horiek ematen zizkien gobernuak emateari utzi dio, maila administratiboan aldaketak izan direla argudiatuta. Horren ondorioz, munduan sakabanatuta gelditu dira sahararrak, egoera larrian; izan ere, ofiziala edo legala den ezer ezin dute eskatu, ezin dute bidaiatu eta familiak ezin dira elkartu ere egin. Askok eta asko dira, gurasoak eta seme-alabak, batzuk Sahararen daudenak eta ezin dira mugitu.

Aurreko egubakoitzean, Debagoieneko sahararren kolektiboa aurkeztu zen Arrasaten; euren helburua da gure gizartearen kolaboratzailea eta parte hartzea, etxean bezala sentitzen baitira. Hori dela eta, herritarrek ezagutu gura dituzte, baita herritarrek eurak ezagut ditzaten ere, ekintzak eta kulturarteko ekitaldiak antolatu gura dituzte, proiektu interesgarriak dauzkate... Herritar guztiei zabalik dago elkarte.

Gaur, eraikin publiko eta pribatu batzuetan, SEADen banderak jarriko dituzte (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa), herri sahararren 43 urteko zapalketa eta euren estatu propioan libre izateko daukaten eskubidea aldarrikatzeko.



# HERRIAK

BERGARA

## Oxirondoko azoka, betikoaren eta berritzailetasunaren topaleku

- ▶ Gaur egungo kontsumo ohituretatik aldentzen den alternatiba eskaintzen du eraikinak
- ▶ Herrian duen presentzia indartzeko 'Azoka bergaraten' ekimena dago martxan

MAITE TXINTXURRETA | BERGARA

Azoka izaten zen herrietako bilgune garrantzitsuenetakoa lehen. Jendea sarri joaten zen bertara eguneroko erosketak egitera, bertan biltzen baitziren harakin postua, barazkiena, arrainena... Zorionez, herrietako azokak ez dira desagertu oraindik, baina haien funtzioa asko aldatu da, eta hara joateko ohitura duten herritarren kopuruak ere behera egin du nabarmen.

Hori ikusita, Bergaran azoka biziberritzea jarri zuten helburu duela urte pare bat, eta *Azoka bergaraten* egitasmoa jarri zuten martxan. Oxirondoko gunea herritarrei gerturatzeko eta atzera bergararren bilgune bihurtzea du erronka, eta, horretarako, hainbat ekimen egin dituzte denbora honetan zehar.

### 22 urtez zabalik

1994an inauguratu zuten gaur egun ezagutzen dugun azoka. Horren aurretik, lehen Lasagabaster lantegia zegoen eraikinean zeuden postuak, eta handik herrigunera mugitu ziren.

Egun, sei postu finko topa daitezke zabalik Oxirondoko azokan: Bixain harategia, Arantxaren bertako produktuak, Ikuz garbategia, Lamitoxa arrandegia, Mertxe urdaitegia eta Izotz jaki izoztuak.

Egungo kontsumo ohiturak direla-eta supermerkatuak dira herritarren gehiengoaren lehen aukera erosketak egiteko orduan, azokaren kaltetan. Alde batetik, erosotasuna eta azkartasuna eskaintzen dute denda handi hauek, behar den guztia toki bakarrean aurkitu daitekeelako. Beste alde batetik, baina, azkartasun horren barruan, azokaren bereizgarri diren hainbat abantaila galtzen dira; gertutasuna, konfiantza eta kalitatea, kasu.

### Filosofia propioa

Badirudi azokak baduela kontsumo eredu alternatiborako konpromiso bat, eta horren eredu da, esaterako, Arantxa Belategiren postua. Berrerabilpenaren eta produktu ekologikoen aldeko apustu sendoa eginga du. Azaldu

duenez, hasieratik dago Oxirondon, 23 urtez, eta "hasierako filosofia berarekin" jarraitzen du.

Arropak eta lurra garbitzeko xaboia soltean saltzen ditu. Hala, bezeroak etxetik ekartzen du bere ontzia eta bertan eraman dezake erositakoa. Belategik dio "granelan beti merkeago" ateratzen dela erosketak. Aipatzen duenez, "jendeak ez daki" hori guztia topa daitekeenik azokan, eta uste du ikusi eta jakinez gero jende gehiago animatuko litzatekeela bertaratu eta hala erostera ohitzera. Era berean, kristalezko pote hutsak ekartzen dituenari 10 zentimo ordaintzen dizkio. Ogi ekologikoa ere izaten du postuan.

Gainera, garai eta ohitura berrietara moldatzen joan da urteotan zehar. Hala, lehenago ezagunegiak ez ziren produktuak eskaintzen ditu bere postuan: mota desberdinetako algak, quinoa, kuskusa... Algak, esaterako, asko saltzen direla dio.

### 'Azoka bergaraten'

Aipatu bezala, Udaletik azkenaldian apustu berezia egin dute azoka indartzeko aldera. Adibiderik esanguratsuena, agian, eguazteneko azokarena da. Asteke egun horretan, arratsaldean, herriko baserritarrek euren postutxoak jartzen dute etxean ekoiztutako jaki eta produktuak saltzeko. Egun horretan, gainera, azokan bertan pintxo-potea eskaintzen du astero taberna batek, eta ekin-tza bereziren bat izaten da beti: musika, tailerrak, hitzaldiak...

Horretaz gain, ekintza puntualekin ere ahalegintzen dira azoka herritarrei gerturatzeko. Pasa den astean, esaterako, herriko ikastetxeetako haurrek bisita egin zuten azoka gertutik ezagutu eta bertan erosketak egiteko.

### Haurrendako aisialdi-gunea

Azokaren eraikin bereko bigarren pisuan haurrendako aisialdi-gune berri bat egokitu dute. Bi gunetan berezita dago: "Gune librea", batetik, eta ludoteka, bestetik. Lehena iazko otsailan ireki zuten eta bigarrena, berriz, geroago, apirilean aldatu zuten Agorrosindik Oxirondora.



Ikastetxeetako neska-mutikoak azoka bisitatzeko izan ziren pasa den egunean. | M.T.



Eguazteneko herriko baserritarrek euren produktuak eskaintzen dituzte Oxirondon. | M.T.

MARIJE UNAMUNO | UDALEKO GARAPEN TEKNIKARIA

## "Eguazteneko azokan egiten diren ekintza osagarriek jendea erakartzen dute"

Udalak duela hiru urte jarri zuen martxan *Azoka bergaraten* proiektua. Marije Unamunok balorazioa egin du. **Noiz eta zergatik jarri zen martxan azoka biziberritzeko proiektua?** Aurreko legegintzaldian, 2013an, plan bat egin zen kontuan hartuta azokaren egoera, postu gutxi zeudela eta dinamika bakarrik zapatutara mugatzen zelako. Diagnostiko bat egin zen eta produktoreen iritzia jaso zen. Horrekin lotuta, bigarren solairua hutsik zegoen eta ludoteka bertan jartzeko

obra handia egin zen. Poliki-poliki eta diskrezioz hasi ginen. Hala, hileko lehen eguazteneko baserritar azoka antolatzen hasi ginen.

### Ze aurrerapen izan da?

Urtarrilean eguazteneko azoka astero egiten hasi ginen, eta pentsatzen dugu jendea joan dela ohitura hartzen. Horretan eragina dauka bertan sortzen den dinamika, astero ekintza osagarri bereziren bat egoten da eta horrek jendea erakartzen du. Saiatzen gara askotan haur eta gaztetxoek bideratzen,



ludoteka han dagoelako, eta horrela gurasoak ere erakarri.

**Postu finkoei ere onura ekarriko die.** Bai, eurek beti esaten dute eguaztena beste edozein astegun baino hobea dela, mugimendu handiagoa dagoelako.



Mozal Ordenantzari Ez! plataformaren prentsaurrekoa. | JOKIN BEREZIARTUA

## Garbiketa ordenantzari egindako alegazioak aztertze eskaera

J.B. | ARRASATE

Martitzenean, hilak 17, amaitu zen martxoaren 22ko osoko bilkuran behin-behineko izaeraz onartu zen garbiketa ordenantzari alegazioak aurkezteko epea. *Mozal ordenantzari ez!* plataformak agerraldia egin zuen egun bat lehenago, "eztabaida, parte hartzea eta moratoria" eskatzeko: "Udal Gobernuak adierazi du prest dagoela eragileak entzuteko. Guk bete dugu gurea eta alegazioak egin ditugu. Orain, gobernuak erakutsi beharko du ea noraino dagoen entzuteko eta eztabaidatzeko prest". Gainera, aditzera eman zuten "hamar egunetan" arautegiaren aurkako 500dik gora sinadura lortu zituztela.

**66 alegazio jaso dira**

Bestalde, EAJk eta PSE-EEk osatzen duten Udal Gobernuak berretsi du "beharrezkoa" dela ordenantza: "Azken egunetan herriko horma, frontoi, ikastetxe, eta abarretan agertutako pintadek agerian utzi dute ordenantzaren beharra". 66 alegazio jaso dituzte, horietatik 15 kolektiboak izan dira eta 51 indibidualak: "Ordenantza guztiekin egiten den bezala, orain alegazioak aztertuko ditugu eta eragile ezberdinekin kontaktuan jarriko gara. Gure helburua da adostasun handiena lortu dezakeen garbiketa ordenantza bat onartzea, betiere, modu eraikitzailean lan eginda", gaineratu zuen gobernuak atzo, prentsa ohar bidez.

## Sanjuanak udaletxeko balkoitik 'bizitzeko' aukera, lehen aldiz

J.B. | ARRASATE

Aurten lehen aldiz San Juan jaietako zenbait ekitaldi udaletxeko balkoitik ikusteko aukera eskainiko du Udalak. Errementari Dantza, helduen danborrada eta umeen danborrada ikusteko hamabost plaza zozketatuko dituzte. Interesatuak ekainaren 1etik 8ra izango dute izena emateko aukera, Udalaren webgunean ([www.arrasate.eus](http://www.arrasate.eus)) edota BAZen. Zozketa ekainaren 10ean egingo da eta telefonoz jakinaraziko zaie irabazleei. Ekintza bakoitza ekintza ezberdin kontsideratuko da eta batean aukeratua dena ezingo da bestean aukeratua izan. Irabazleak honako ordutegi hauetan egon

beharko dira udaletxe azpian: Errementari Dantzarako, 22:00etan; helduen danborradarako, 23:30ean; eta, umeen danborradarako, 19:30ean. Argibide gehiagorako: 943 25 20 00.

**Gobernua eta EH Bildu**

EH Bilduk prentsa oharra kale-ratu zuen eguaztenean: "Neurri egingarria da eta Udala herritarrei hurbiltzeaz gain San Juan Jaiak herritarragoak izan daitezela ahalbidetuko du". Bestalde, Udal Gobernuak "duela hilabete" lantzen hasita zegoen gaia: "Pozten gara EH Bildu prentsarari irten izana duela hilabete lantzen hasi ginen araudiarekin adostasuna erakutsita".

# Udaberriko produktuak, udarako haziak eta artisauen azoka berezia

Ohiko baserriarren merkatuaz gain, Eskuarlean elkarteko postuak egongo dira

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Hileko hirugarren zapatua da bihar eta horrek esan nahi du baserriarren azoka egingo dela Seber Altube plazan, 09:00etatik 14:00etara. Udaberriko itxura garbia izango du azokak. Bihar hamabost postu egongo dira: Arrasateko sei baserriar, Debagoieneko lau, beste eskualde batzuetako hiru baserriar eta gainerako postu bereziak –sukalderako eta baserriariko tresneria–.

**Artisautza postuak**

Biharko azokari ukitu berezia emango diote Eskuarlean artisau elkarteko kideek: "Aspaldi esan ziguten baserriarren azokan parte hartu nahi zutela; hilero ez dugu ikusten, oso bestelakoak direlako, baina tarteka etortzeko aproposak dira. Balioan jarri behar ditugu ekoizle txikien ezaugarriak. Bertakoak dira eta eurek egindako produktuak saltzen dituzte. Neurri baten, gainera, baserriarrena artisau lana ere bada".

Bederatzi postu jarriko dituzte: Joana Manzisidor (grafiti pertsonalizatuekin txapelak-eta), Lexuri Doyague (birziklatutako koadernoak), Izaro Sanchez (askotariko bitxiak), Helena Azkarra-gaurizar (ilustrazioak euskarri ezberdinetan), Sara Migelez (objektu eta objektu zatiekin egindako bitxiak), Lara Gonzalez (osagariak eta ezkontzetarako poltsak), Nagore Uriarte (egurrezko bitxigintza), Lur Cano (makramezko bitxiak) eta Edurne Erauskin (zilarrezko bitxiak).



Eskuarlean-ekoan azoka bat Seber Altuben, artxiboko irudi baten. | I.S.

**Bertako hazien alde lanean**

Eskualdeko postuen artean egongo dira Udalatx mintegiko Idurre Aranguren eta Nerea Altuna. Udaberrian "oso lanpetuta" ibiltzen dira, baina udara eta hurrengo negura begira jarrita daude dagoeneko, asteen Arrasate Irratian azaldu dutenez: "Landareak prestatzen ditugu, eta, horregatik, gure fokua aurrerago dago jarrita". Biharko azokan denetarikoa

haziak –bertakoak horietako asko– erosteko aukera eskainiko dute Udalatx mintegikoek: patata eta baba haziak, lekak, tomateak, orburuak, berenjenak, piperrak, kalabazinak, pepinoak, letxugak... Orturako produktuen haziez gain, askotariko belar usaintsuen haziak ere eskainiko dituzte: albahaka, perrexila... Mintegikoen erronka nagusietako bat da bertako hazia mantentzea: "Gure borroka da, arrasatearrak izanda, Arrasateko hazi-barrietate batzuk mantentzea", adierazi du Arangurenek.

Era berean, askorendako ezezagunak izango diren lore elektrikoekin ere etorriko dira Udalatxekoak: "Goi-mailako sukaldaritzan erabiltzen dira. Elektrizitatea ematen dute mihian, zapore batetik besterako aldaketa ahalbidetzeko. Margarita baten antzekoak dira, lore-hosto barik".

ESANAK

**"Arrasateko hazi batzuk mantentzea da gure borroka"**

IDURRE ARANGUREN | UDALATX MINTEGIA

## Al-Andalusek Kultura Astea ospatuko du hilaren 21etik 29ra

Arrasaten bizi diren andaluziarrek 26. urtez ospatuko dute Kultura Astea. Bihar hasi eta hilaren 29ra arte, askotariko ekintzak izango dituzte Musakolako egoitzan. Bihar, esaterako, bazkideentzako playback jaialdia izango dute, 22:30ean. Ekintza nagusiak hurrengo asteburuan izango dira.



TXATXILIPURDI

## Naturara hurbiltzearen onurak

Txatxilipurdik, Sustraiabarrik, Besaidek, Leintz Eskola Kirolak eta Garaion Naturartearen egitasmoak *Hurbil Gaitzen Naturara* jardunaldiak egin zituzten joan den aste bukaeran; naturako elementuekin egindako jolasak, Musakolako astoa –argazkian– eta txakurrekin egindako tailer emozionala izan zituzten, besteak beste: "Tarte batez bada ere, familiak, umeak eta gazteak naturara hurbiltzea lortu dugu", adierazi dute.

Sagardo garaia amaituta, erretegi moduan orain.

Udako menuak. Abuztuan eta irailean ere zabalik!



**Iturrieta sagardotegia**

Arraga auzoa /Aramaio  
945 445 385 685 721 593  
[iturrietasagardotegia.blogspot.com](http://iturrietasagardotegia.blogspot.com)

*Lore*

LURRINDEGIA

Olarte kalea 10  
Tel.: 943 79 52 50

Carles Riera | CIEMENeko eta Munduko Foro Sozialeko Nazioarteko Kontseiluko presidente ohia

# "Prozesua garatzeko beharrezko urratsa da herri galdeketa egitea"

- ▶ "Ezinezkoa" litzateke, Rieraren arabera, Kataluniako prozesua herritar barik
- ▶ Aldebakartasuna eta desobedientzia defendatuko ditu gaurko saioan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

**Erabakitze eskubidea: etorkizuna helburu mahai-ingurua** antolatu du gaurko (Kulturateko areto nagusia, 18:30) Erain Debagoienaren Arrasateko lantaldeak. Gure Esku Dago-ren sustatzaile Angel Oiarbide (Beasain, 1974), EAJko legebiltzarkide Luke Uribe-Etxeberria (Beasain, 1965) eta Kataluniako prozesua oso gertutik jarraitu duen CIEMENeko presidente ohi Carles Riera izango dira protagonistak. Rierak Kataluniako ikuspegitik erantzun ditu GOIENAREN galderak.

**Zer lortu dezake, zure ustez, loteslea ez den herri galdeketa batek?**

Prozesua garatzeko beharrezko urratsa da galdeketa. Ekintza demokratikoa da, herritarrengandik sortua. Herri galdeketa, erakundeetatik harago joango den eta independentzia eskubide zibil zein demokratiko moduan ulertaraziko duen gizarte-mugimendu bat eraikitzen lagunduko du. Eman beharrezko urrats garrantzitsua da, eta, gaur egungo baldintzak aintzat hartuta, ekintza desobedientea izango da.

**Zergatik uste duzu behar duela prozesuak herritarren aktibazioa?**

Helburua independentzia denean, erakundeetatik bakarrik ezinezkoa delako lortzea. Estatu espainiarreko marko juridiko-politikoaren muga demokratikoez eta erakundearen euren mugez ez dute



Carles Riera. | GOIENA

**"Erakundeetatik bakarrik ezin daiteke independentziaren helburua lortu"**

prozesu horretan aurrera egiten uzten. Herri-mugimendu indartsu batek baldintzak sor ditzake gehiengo instituzionala ahalbidezko. Erakundeetako gehiengo horrek gaitasuna eta borondate irmoa izan behar ditu desobedientziaren, apurketaren eta aldebakartasunaren bidea egiteko. Bide hori

delako, gaur-gaurkoz, erabakitze eskubidea gauzatu eta independentzia lortzeko bidea.

**Beraz, prozesua izango bada, aldebakarrekoa izan behar da?**

Estatu espainiarrak ez gaitu onartuko gure etorkizuna erabakitze eskubidea duen subjektu politiko eta nazional moduan. Aldebakartasuna da aukera erreal bakarra eta aukera horretatik nazioarteko babesa lortu beharra dago aurrera egin ahal izateko. Gatazka soziala eta politikoa sortzea eta subjektu politiko moduan onartuko gaituen nazioarteko bitartekaritza izatea beharrezkoak izango dira.

**Mahai-inguru interesgarri baten hartuko duzu parte gaur. Zer aurrera zenezake?**

Aldebakartasunaren ideia defendatzera etorriko naiz, eta baita desobedientziarena ere, herri zein erakunde mailan. Bi ideia horiek aplikatu behar zaizkio subjektu politiko izateari, lurraldetasunari, erabakitze eskubideari, independentziaren aldarrikapenari eta erreferendumari. Horrez gain, modu eraginkorrean nazio moduan errekonozituko ez gaituen erreformismoa desaktibatatu egin behar dela uste dut; independentziaren gaineko erreferendum loteslea eta demokratikoa eragotzi ditzaketen erreformismoek kalte handia egin dezakete, ateak ixteraino.

## NIRE USTEZ

HORAZIO ARGARATE



## Jaunartzeak

Imajinatu ezin duzue ere, ze harridura sortzen zaidan *komunio zibilak* egiten direla entzuterakoan. Ondo deritotzot familiako giroa ospatzeari eta gozatzeari. Inongo txarrik ez, alderantziz: ederra behar da izan gurasotasuna ospatzea.

Hazten doazen seme-alaben koskortzea derrigorrezko festa moduan ezarri beharko genuke. Gozagarria da, tarteka, familian bildu eta elkarrekin senidetasunean bizitzea. Gure baitan daramagun sentipenen artean dago senidetasuna, gure izatearen eta nortasunaren funtsezko zutabea.

*Senide* hitzak zerbait agertzera ematen badu, elkarren arteko baldintzarik gabeko eta dohaintasunez eta duintasunez

ematen den harremana adierazten du. Ezta? Balio horiek indartu eta sendotu beharko genituzke.

Garai baten denontzako, eta gutxiengo batentzat orain ere, balio horiek kristau erlijioarekin lotuta joan izan dira. Horregatik, fede heziaren pausoak, kristautasunean aurrera egitez gain, senidetasunaren balioak bizitzeko aukera izan dira eta badira.

Kristautasuna senidetasunik gabe ez dago bizitzetik; baina senidetasuna, ordea, kristau federik gabe, bai. Orduan, zergatik hain gurea den hitza, *Jaunartzea* alegia, erabili fedetik at familia bizitzeko lehenengo usadioen itzalean aitzakia bilatuz?

**"Senidetasuna, gure izatearen eta nortasunaren funtsezko zutabea"**

## Gertu dugu Udaixe ekimena uztaileko egitarau bereziarekin; izen-ematea, maiatzaren 17ra arte

Udaixen 12 eta 17 urte arteko gazteek eman ahalko dute izena. Bi ataletan banatuko dugu abentura aurten ere. Batetik, *6ak Baietz* dago, bi aste eta sei ekintza, ekainaren 27tik uztailearen 8ra: kostara irteera, afari merienda, mendira txangoak, espeleologia... Prezioa 30 euro da. Bestetik, *Gazte Extrem* daukagu. Uztailearen 12tik 15era, mendi inguruan, abentura paregabea. Talde lana eta estrategia ezinbestekoak izango dira. Prezioa 20 euro da. Izena emateko epea, maiatzaren 27ra arte: *Gazte bulegoan* (943252065 edo *gaztebulgoa@arrasate.eus*) edo Txatxilipurdin (943795446 edo *gazteak@txatxilipurdi.com*).

KOMUNITATEA GOIENA  
TXATXILIPURDI ETA GAZTERIA SAILA



ANDONI ALTZELAI

**Uribarrikoak, Cadizko herri zuriez gozaten**

Uribarriko erretiratu elkarteko 50 bat lagunek Cadizko herri zurietan ederto ibili ziren apiril amaieran. Besteak beste, Jerez de la Fronteran dagoen Williams & Humbert upeltegi ezagunak bisitatu zituzten.

## Azokaren etorkizunaz galdetzeko telefono inkestak 500 herritarri

Udal Gobernuak Deitel Direct SL enpresari esleitu dio 500 arrasatearri telefono-inkestak egiteko lana, 7.200 eurotan. Egungo Udal Azokaren egoeraz eta haren kokalekuaz, azoka berri bat eraikitze beharraz, saltzaile motez eta azoka-egunez galdetuko diete herritarrei, besteak beste.

## San Felipe Apostol elkartearen ezohiko batzarra hilaren 26an

San Felipe Apostol Elkarlaguntzarako Elkartek ezohiko batzarra egingo du maiatzaren 26an Kulturateko areto nagusian (18:15). Gaien artean, 2012an eta 2015ean onartutako araudi berrien ondorioz estatutu sozialetan proposatutako aldaketa onartu beharko dute.

ARRASATE MUSIKAL

Matrikula epea  
zabalik

Aurten ere Suzuki metodoa!

Ekainaren 17ra arte.

Ordutegia: 10:00etatik 12:00etara

16:30etik 19:30era

Zarugalde 2, Monterron jauregia.

943 77 05 40



# Zaldibarko finalistak bihar erabakiko dira

Finalerdiak: Aldatz-Betrayer (11:00) eta Lasagabaster-Sonografos (12:00)

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Asteburu honetan jakingo dira 2015-2016 denboraldiko Zaldibarko Ligako finalistak. Bi finalerdiak zapatuan jokatuko dira. 11:00etan neurtuko dituzte indarrak Aldatzek eta Betrayerrek eta 12:00etan jokatuko da Lasagabasterren eta Sonografosen artekoa.

Pasa den asteburuko final-laurdenetan, denetarik egon zen. Lehen partiduan, Abokajarrok eta Betrayerrek bosna berdindu zuten, lehia ezin parekatuagoan. Penalti txandan ere emozioa izan zen nagusi, eta luze joan zen. Azkenean, Betrayerrek irabazi zuen, 7-6. Hurrengo partiduan, Lasagaster Monte Tabernaren gainetik pasa zen eta nahiko erraz irabazi zuten, 8-2.

Hirugarren partiduan, sorpresa izan zen nagusi, pronostikoaren aurka Sonografosek Dribbling garaitu zuen eta (2-3). Gutxik espero zuten horrelako emaitzarik, baina, euren onenak emanda eta atzealdean egindako lan serioari esker, Sonografosek finalerdietarako txartela eskuratu zuen. Liga erregularrean puntu gehien eskuratu ondoren eta Kopako

txapelketa izan ostean, lehen kanporaketan agur esan beharra izan zuen Dribbling taldeak. Azken neurketan ez zen ezustekorik izan eta Aldatzek 8-5 irabazi zuen Olympiakojosen aurka.

## Datorren urterako deia

Antolakuntzako kide batek GOIENAREN orrietan aurtengoa azken edizioa izango zela esan zuen, duela hilabete. Azken urteetako talde gainbeheraren eraginez, aurtengo denboraldian hamar talde bakarrik lehiatu dira, eta txapelketaren etorkizuna kolokan egon da. Baina txapelketaren amaiera gertu zegoela esan eta gutxira, hiru talde berriren interesa jaso dute antolakuntzatik, eta parte hartzeko deia zabaldu dute, Zaldibarko txapelketa jokatzen jarraitzeko.

## ESANAK

"Txapelketa ez bukatzeko, dei egiten dugu parte hartzera"

MIKEL VIGUERA | ANTOLATZAILEA



Leintz Eskola Kirolekoak Ordiziako proban. | FERNANDO ZUFIRIA

## Bi urrezko domina Arrasate Atletikokoentzat

Daniel Martinez 400 metrokoan eta Ibai Fernandez 100 metrokoan garaile izan ziren junior mailan

X.G. | ARRASATE

Bi probatan hartu zuten parte Arrasateko atletek aurreko asteburuan: Durangoko Euskadiko Junior Mailako Txapelketan eta Ordizian jokatuako Gipuzkoako

Ikastetxeen arteko infantil txapelketan.

Lehenean, emaitza bikaina lortu zuten Arrasate Atletikokoek. Ibai Fernandez 100 metroko proban irabazle izan zen 11.15eko

denborari esker eta bere taldekide David Garcia seigarren geratu zen 11.76ko denborarekin. 400 metroko proban, Daniel Martinezek urrezko domina eskuratu zuen 52.01 denborarekin. Beraz, hiru parte hartzaileen artean bi urrezko domina poltsikoratuta itzuli ziren Arrasatera.

## Eskolartekoan makalago

Asteburuko beste hitzordua, berriz, Ordizian jokatuako Gipuzkoako Ikastetxeen Infantil Txapelketa izan zen.

Leintz Eskola Kirolekoek emaitza politik pilatu dituzte bakar-ka orain arte jokatuako eskolartekoetan. Aurreko asteburukoan taldeka aritu ziren, eta, atleta indartsuenek lan txukuna egin arren, taldekako sailkapenean espero baino atzerago amaitu zuten. Zazpi taldetako sailkapenean bosgarren postuan amaitu zuten 30 punturekin. Hala ere, aipatzekoak izan ziren Mikel Agirrek altuera-jauzian lortutako lehen postua 1,65 metroko jauziarekin eta Ander Hierrok luzera-jauzian lortutako lehen postua, 4,67 metroko jauziarekin.

## Besaide Elkartekoek GR-121eko zati bat atondu dute auzolanean

X.G. | ARRASATE

GR-121 edo Gipuzkoako Bira izeneko bidea herrialde historikoaren mugak zeharkatzen dituen mendi ibilbidea da.

Mugan dagoen herria izanik, ibilbide honen zati batzuk Arrasateetik igarotzen dira; tartean, Udala eta Kanpanzar lotzen dituen *Meatzarien bidea*. Meatzerekatik pasatzen den bide horretan, 25 metro inguru errepidean zehar egin izan dira orain arte, eta Besaide MEkoek, arrisku hori saihestu nahian, auzokideekin batzarra egin zuten.

Lursailen jabea Gipuzkoako Diputazioa zela jakinda, Arrasateko Udalaren bitartez hauek atontzeko baimena jaso zuten,

baina, Udalaren aurrekontua gehiegizkoa zenez, atontze lanak batzarkideen artean egitea erabaki zuten, herriari gastu hori eragitea saihesteko.

## 2016 Bidea domekan

2016 Bidea programa Donostia 2016k antolatzen du eta euskal gizarteak berezkoak dituen mendizaletasunak eta kultur zale-tasunak uztartzen ditu. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan zehar doazen 32 mendi-etapaz osatuta dago eta datozen bi asteburuetan Arrasateetik igaroko da.

Domekan 9. etapa egingo dute, Gatzagatik Arrasatera. 19,3 kilometro izango dira eta lau bakarriketa saio egongo dira ibilbidean zehar.



Besaide MEko batzarkideak jo eta su lanean. | BESAIDE M.E.



ERAIN DEBAGOIENA

## Kirola eta erabakitze eskubidea

Larunbatean, AKE elkarteak eta Erain Debagoiena ekimenak antolatutako tenis, padel eta squash txapelketak jokatu ziren, erabakitze eskubidearen eta ekainaren 5eko herri galdeketa alde. Azipimarragarria izan zen emakumeen parte hartzea zabala; irudian ageri direnak baino gehiago izan ziren.

LANA • FISKALITATEA • KONTABILITATEA • JURIDIKOA-ABOKATUAK



zenbaki   
aholkulariak-abokatuak

30 urteko eskarmentua fiskal, kontabilitate, lan eta merkataritza arloetan, enpresen, autonomoen, partikularren eta enpresa bat sortu nahi dutenen zerbitzura



Basabe Industrialdea Pab. FO - 10. bulegoa • 25 Postakutxa  
20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa) • Tel.: 943 71 21 12

www.zenbaki.eus

## PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda  
Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta  
Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra  
Kontxi Lazkano - Pedagogoa  
Ion astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa - Orientazioa  
Psikoterapia:  
umeak, gazteak eta helduak

Arreta psikologikoa  
genero indarkerian

Laguntza eskolarrak

Estimulazio goiztiarra

Logopedia

Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE  
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13



Goikobalu Udaberri Musikaldian. | IMANOL SORIANO

## Goikobalukoek hainbat proiektu dituzte 2016rako

Joan den asteko batzar orokorrean landu zituzten, eta bi batzarkidek euren kargua utzi zuten

XABI GOROSTIDI | ARRASATE

Goikobalu abesbatzak urteroko batzar orokorra egin zuen pasa den asteko eguaztenean. 2015eko akta irakurri eta onartu zuten, lehenik eta behin, eta ondoren, aurreko urteko balantze ekonomikoa izan zuten hizpide.

Beste puntu batean, Mikel Beitia eta Joaquin Etxebarria batzarkideek euren kargua utzi dutela jakinarazi zuten, eta oraindik erabakitzeke dago nork ordezkatuko dituen. Batzarkide ez izan arren, Edurne Goiaetxek ematen dien laguntza administratiboa

goraipatu zuen Juan Antonio Barriocanal zuzendariak.

### Proiektu ugari buruan

"Duela bi aste deitu izan bazenit, ez nizan ia proiekturik aipatuko. Baina hainbat dei egin dituzte azken bi aste hauetan, aurretik lotu gabeko kontu batzuk finkatu nahian, eta hainbat proiektu atara dira bertatik", aipatu du Juan Antonio Barriocanalak. Horieta-ko bat Generalitatearekin lotu nahi duten kontzertua da. Irailaren 15 eta 25 bitartean Montjuic-en antolatuko den dantza

folklorikoen jaialdi barruan abesteko gonbita jaso dute.

San Juan jaietan ere emanaldi bat egiteko asmoa daukate. "Betidanik izan dugu sanjuanetan zerbait egiteko gogoia. Udaletik jasotzen dugun diru laguntza guk egiten dakigunarekin ordaintzeko modua izango litzateke. Arrasate Musikalekin San Frantziskon egindako kontzertuaren ondoren hitz egin genuen alkatearekin, baina oraindik ez dugu ezer definitu".

Abenduaren 13an Kursalean egingo den Händel-en *Mesias* parte hartzailea da beste proiektuetako bat. Bertan, Zumaiaiko eta Azkoitiko koruekin batera arituko lirateke. Aipatutakoez gain, Arantzazun eta Araian jotzeko aukera ere mahai gainean dute. Urtero bezala, ongintzazko kontzertua eskainiko dute azaroan Harreman GKEaren alde.

## Udaberri Musikaldiaren egitaraua aurrera doa

X.G. | ARRASATE

Ekintzaz beteta dator Udaberri Musikaldia. Zigorrolako jaien baitan eskainitako kontzertuek harrera ona izan zuten, eta atzo *jam session* saioa egin zuten Kajoi tabernan.

Datorren astera begira, bi hitzordu interesgarri dakartza. Lehenengoa maiatzaren 25ean izango da, eguaztena; bertan, musika eskolako gitarra ikasleek kontzertua emango dute eskolan, 18:00etan.

Bigarrena maiatzaren 26an izango da, 18:00etan, eskolan bertan. Arrasate Musikaleko perkusio ikasleek eskainiko dute, ikasturtean zehar hartu-

ko trebeziak erakusteko.

### Matrikulazio epea zabalik

2016-2017 ikasturtean Arrasate Musikalen izena emateko matrikulazio epea zabalik dago maiatzaren 18tik ekainaren 17arte.

Interesdunek musika eskolatik pasa beharko dute astelehenetik ostegunera 10:00etatik 12:00etara eta 16:30etik 19:30era bitartean. Aurreko urtean martxan jarritako Suzuki metodologiari jarraipena emango diote datorren ikasturtean ere, eta bost eta sei urteko haurrek musikarekin lehen kontaktua egiteko tailer musikalak antolatuko dituzte.

### Eugenio umorista gogora ekartzeko bakarrizketa gaur

Eugenio umorista kataluniarra imitatzen duen *Meugenio* bakarrizketariak emanaldia eskainiko gaur gauean.

Hitzordua Kajoi tabernak antolatu du, eta gaur 22:00etan hasiko da taberna kanpoaldean, herriko plazan bertan. Ez da ezer ordaindu beharko bakarrizketaz gozatzeko.

### BadCO taldeak itxiko du aurtengo Kooltur ostegunen zikloa

Berlinen finkatutako taldea izan arren gitarra-jotzaile arrasatearra daukan BadCO-k emango die amaiera aurtengo Kooltur ostegunei.

Oxymoron taldeko abeslari izandako *Sucker* da arima. Gitarra-jotzaileak taldea utzi ondoren, Asier Sala ari da gitarra jotzen.

# LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN

"etorkizuna zure esku"

## ARETXABALETAN

### ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk.  
20550 ARETXABALETAN  
☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43  
[ia@iaretxabaleta.com](mailto:ia@iaretxabaleta.com)  
[www.iaretxabaleta.com](http://www.iaretxabaleta.com)



## BERGARAN

### Miguel Altuna LHII Bergara

Ibargarai, 1  
20570 BERGARA  
☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40  
[imaltuna@saremail.com](mailto:imaltuna@saremail.com)  
[www.imaltuna.com](http://www.imaltuna.com)



## OÑATIN

Ate irekiak:  
Maiatzak 24, 18:00etan  
(Larraña egoitzan)

### IES RM Zuazola - Larraña BHI

San Lorentzo, z/g  
20560 OÑATI  
☎ 943 78 21 50  
[013015aa@hezkuntza.net](mailto:013015aa@hezkuntza.net)  
[www.onati.net](http://www.onati.net)



**AURREMATRIKULA:** Ekainaren 6tik 17ra. **MATRIKULA:** Uztailaren 11tik 15era.

# "Ekintza guztietan ibili da jendea"

JULEN IRIONDO | BERGARA

Pasa dira aurtengo Pazkoak ere eta aho zapore ona utzi dute. Denek gozatzeko moduko ekintzak izan dira, eta, azkenean eguraldiak ere baimenduta, gozatu ere gozatu dute. Herritarrak gustura eta Udalean ere pozik: "Anto-

latu diren ekintza guztietan ibili da jendea; zapatu gauean, adibidez, Kepa Junkera egon zen eta orduantxe egin zuen euria; baina, hala ere, plaza beteta". Eta hala zegoen martitzenean ere Bitorianatxoren igoerarako, hitzordua 22:00etara aurreratuta.

Maite Agirre zinegotziak nabarmendu du egitarauko ekintzak herriko talde eta eragileekin atera direla aurrera.

Txosnagunean ere giro ederra izan da jaietan, eta primeran ibili dira bertako ekintzetan parte hartu dutenak.



Kuadrillen arteko herri kirolak.



Errekortadorea animalari deika.



Aukeran taldearen ikuskizuna.



Azken urtebetean jaiotako umeei egindako ongietorria.



Aiz-pe elkarteko kideak, bakailao lehiaketako irabazleak.



Batukada feminista.



Mugi Mugi erromerian umeak ederki pasatzen.



Goitibehera txapelketa.



Tostoi eta Erreileno erraldioen aurkezpena.



Bitorianatxoren igoera.



Bad Sound System. | ARGAZKILARIAK: IMANOL SORIANO, AITOR AGIRIANO ETA BERGARAKO UDALA

**Janaria ere etxera eramaten dugu**

**Plater gustukoena:**

- Xia-Jiao (ganba-enpanadillak)
- Curry triangeluak okelaz beteta
- Langostino frijituak almendrekin

**Etor zaitez!**

☎ 943 25 06 77 • Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean) • BERGARA

**MIZPILDI**

**OKINDEGIA**

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

**UGARTE**  
AROTEGIA - ALTZARIAK

**AROTEGIA**  
San Juan 1a  
Tel.: 943 76 54 91

**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea  
Tel.: 943 03 46 30

**BERGARA**

# Udaberri egunean sasoi berriko moda kalera aterako du Bergara Bizik

Formatu desberdineko moda pasarela eta 'pop up' azoka egingo da Oxirondon

A.T./M.T. | BERGARA

Udaberri eguna aurkeztu du asteon Bergara Bizik merkataritza elkarteak. Maiatzaren 28an moda pasarela egingo dute Oxirondo plazan, iluntzean. 17 komertzio hartuko dute parte eta udaberriko eta udako joerak erakutsiko dituzte.

Arropa, osagarri eta zapata dendak eta ile-apaindegiak izango dira euren eskaintza erakutsiko dutenak, eta 68 herritar izango dira pasarelan. Ondoren, denda bakoitzak bere produktuak salgai jarriko ditu bertan. 20:00etatik 23:00etara izango da guztia.



Bergara Biziko eta Udaleko ordezkariak aurkezpenean. | AMAIA TXINTXURRETA

## Formatu berria

Ez da izango orain arte egin dituzten desfileen modukoa, beste itxura bat izango du. Hala, esaterako, pasarela lurrean bertan kokatuko dute, "herritarrengandik gertuago", Bergara Biziko

Ainhoa Garitanok azaldu duenez.

Intentsitate txikiko argiak eta autokarabana pare bat ere jarriko dituzte giroa goxatzeko, eta guztia Ninika loradendakoei apainduko dute.

Diablues&Bluecifer eta Arragoa herriko musika taldeek girotuko dute ekitaldia. Gainera, pintxo dastaketa ere izango da.

Elkartek espero du ekimenak harrera ona izatea.

## Kilometroak 2016ren abestia aurkezteko jaialdia gaur Udal pilotalekuan, askotarikoekin

Aurrez eskura daitezke sarrerak Pikuperen egoitzan eta Internetez; geratzen badira, leihatilan

KOMUNITATEA GOIENA  
KILOMETROAK 2016 | BERGARA

Emonek egin duen abestia zuzenean entzuteko lehen aukera izango da jaialdian, eta, horrekin batera, beste hauek ere izango dira: Manex Alberdi eta Olmar Elejaga dantzarien desafioko; Asier Kidam magoaren emanaldia; Marel Uriarte aretxabaletarraren bizikleta gaineko akrobaziak... 22:00etan hasiko da, Udal pilotalekuan.

Aurrez, 19:30ean hasita, kalejira izango da Erraldoi Taldearekin, trikitilariekin eta soinu-joleekin, 21:00ak arte. Orduetik jaialdia hasi arte, berriz, Azkarter Pelox Trio eta Iñaki Mataren *Barreras* txotxongilo ikuskizuna izango dira.

Amaia Txintxurretak eta Oihan Vegak aurkeztuko dute

saioa. Sarrerak salgai daude (6 euro) [www.pikupe.com](http://www.pikupe.com) helbidean eta produktorearen egoitzan, Arte-kalean, 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara. Geratuko balira, 21:00etatik aurrera leihatilan salduko dituzte.

### Ikuskizun polita

Ikuskizun arin-emanaldi askotarikoekin- eta ikusgarria egin nahi dugu, familia osoarendako eta ondo pasatzeko. Gainera, Emonen eskutik *Demasa* abestia lehen aldiz zuzenean ikusi eta entzuteko aukera izateaz gain, abestian parte hartu duten hainbat gonbidatu bertan izango dira.

Ukitu urbanoa eman nahi diogu ikuskizunari eta hala, kaleko dantzak, grafitiak, bizikleta gaineko akrobaziak eta beste izango ditugu.

## 'Lipdub'-a hilaren 28an, galdeketerako girotzeko

JULEN IRIONDO | BERGARA

Erain Debagoienak deituta ekainaren 5ean egingo den herri galdeketerako motorrak berotzeko, *lipdub*-a grabatuko dute hurrengo zapatuan, hilak 28, herrian.

Ekimenaren bultzatzaileek herriko elkarte eta eragileei oharra bidali diete bertan parte hartzerantz animatzeko; horrez gain, sare sozialen bidez-eta ere ari dira gonbidapena herritarrei zabaltzen.

Honela, herriko hainbat norbanako eta talderen parte-hartzea izango du grabaketak. Gure Esku Dago dinamikaren kantuarekin egingo dute *lipdub*-a.

Zapatuan 16:30ean egin dute hitzordua, San Martin plazan. Parte hartzeko izena hemen eman daiteke: <https://goo.gl/bB76ES>.

## NIRE USTEZ

ANDRES OSA  
'SAKONA'



## Torturarik ez: inon eta inorekin ez

Tortura, oinaze beldurgarria, gizakiaren, pertsonaren duintasuna zapuztu, birrindu, lurperatu, trapu zaharraren gisan zimurtu, zeharo suntsitzen duen jokaera da. Trantze horretan bi tiro eta seko gelditzea desiratu izan dutenen aitortpena hor dago. Espainiako Barne ministroa, Fernandez Diaz, haserre azaldu zaigu, Espainiako Auzitegi Nazionaleko Jose Ricardo de Prada epaileak "tortura erabat aplikatu da" esan duelako. Ministroa, neurriak har-

tzeko prest. Ondorioa: demokrazia oporretan.

Mikel Zabaltzak jasan behar izan zuen tortura eta ondorioz heriotza salatu da Iruñean, horman pintada eginaz. Madrilgo delegatuak, Alba andreak, ETA-rekin lotu zuen Zabaltza. Faltsua. Baina larriagoa da loturarik ez zuela enteratu zenean, nolabait zuzendu nahian: "Baina pintada horrek Estatuko Segurtasun Indarrak zipriztindu ditzake". ETAKoa izan bazen, Albaren ustetan, ongi torturatua.

Alde batekoa zein bestekoa izan, torturak ez du lekurik. Bereizketa egitea justifikazio kriminala besterik ez da, eta torturatzaileei hauspoa ematea. PSOEek eta PPK ehunka torturatu dituzte, eta hemengoak, salbuespenak salbuespen, alborra begira eta eskuak igurtzi. Eliza mutu. Herri Defendatzailerak "frogak eskuan izan arte" isilik. Bitartean, oinazegailuak martxan. Demokrazia oporretan.

## Ibarretzek eta Torrealdaiak kultura izango dute hizpide

Datorren eguaztenean, hilak 25, hitzaldia eskainiko dute, Bergaran, Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiak eta Joan Mari Torrealdai idazle eta kazetariak. *Kultura da gakoa* da mintzaldiaren izenburua, eta hitzordua irekia da. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da, 19:00etan hasita. Agirre Lehendakaria Centerrek antolatuko du.

## Euskadiko behi suharraren eguna ospatuko dute bihar

Bihar, II. Euskadiko behi suharraren eguna ospatuko da zezen-plazan. 11:30ean, umeendako zezentxoak eta poneyak; 12:30ean, uztai txapelketa. Jarraian, bigantxak. 14:30ean bazkaria egingo dute eta arratsaldean bigantxak eta 18:30ean behi suharrak onena hautatzeko lehiaketa izango dira. Goiz edo arratsaldeko sarrerak: 3 euro umeentzat, 5 nagusientzat.



Chaio Ramos, *Inka&Co* diseinuzko bitxien egilea.

## Maiatzaren 21ean Olatu Talkaren 'Gaumarket'-ean, Donostian

Harribitxiz eta zilarrez bitxi etnikoak egiten ditu Chaio Ramos peruarrak -*Inka&Co*-; diseinua berak egiten du, eta bitxiak -belarritakoak, eraztunak, lepokoak- Perun sortzen dituzte.

Chaio Ramos eta bere *Inka&Co* bitxiak Donostiako Kontxako arkupeetan izango dira zapatu honetan, 18:00etatik 00:00etara, Olatu Talkak antolatutako *Gaumarket*-aren barruan.

## OHARRAK

### ODOL EMATEA

Eguaztenean, 18:00etan hasita, ambulatorioan.

### PLASTIKO BILKETA

Martitzenean batuko dituzte base-rietako plastikoak.

### 'OPARITU ZUHAITZ BAT'

Eguenean, hilak 26, 19:30ean, kultura etxean: kutsadura elektromagnetikoa, banku etikoak, kooperatiba energetikoak...

## ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*


Matxiategi 8. BERGARA  
Tel.: 943 76 15 09

## BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA  
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47  
Faxa: 943 76 04 77



[www.inkaandco.com](http://www.inkaandco.com)

[f inkaandco](https://www.facebook.com/inkaandco)

[@inkaandco](https://twitter.com/inkaandco)

Tel.: 663 77 66 99

# Josu Zezeagak ezin izan du Bergara Hiriko txapela jantzi

Salaberriarekin bikotea osatuz 22-7 galdu zuen bergarar gazteak finala

X.G./M.T. | BERGARA

Astlehenean jokatu zituzten Bergara Hiria pilota txapelketa-finalak Udal Pilotalekuan. Promes mailan, etxeko pilotari Josu Zezeaga aritu zen, Salaberriarekin bikote. Aurtengo txapelketa hau bere debuta izan da, eta, final-laurdenak eta finalerdiak irabazita, finalera iristea lortu zuen. Azkenean, baina, ezin izan zuen txapelketa ona errematatu. 22-7 galdu zuten partiduaren jaun eta jabe izan ziren Zubizarretaren eta Arangurenen kontra. Senior mailan, Urretabizkaia eta Murgiondo izan ziren txapeldun, Santxoren eta Gorrotxategiren aurka 22-15 irabazita.

## Promesak

Promes mailako partidua ikustertera jende mordoxka gerturatu zen, herrikideari animoak emateko asmoz, nahiz eta partidua ez zen ikusleek nahi bezala joan.

Aranguren atzelaria izan zen lauretan onena, eta Zezeagak sufritu egin zuen berarekin. Hala, pilota dezente galdu zituen bergararrak. Era berean, bere bikote-kideak akats dezente egin zituen, eta Zubizarreta bera baino gehiago izan zen txapa aurrean. Hasieratik bukaerara kolore bakarra izan zuen norgehiagokak, markagailuak erakutsi bezala.



Bi finalerdiaren parte-hartzaileak eta udal ordezkariak. | IÑIGO ZAITEGI


Aranguren izendatu zuten txapelketako jokalaririk onena.

"Salaberria aurrelaria uste genuena baino baxuago ibili da, baina Zezeaga ondo aritu da. Final hori oso ondo egon da", dio Reyes Azkoitia antolatzaileak.

## Seniorrak

Nagusien mailako finala, berriz, lehenengoa baino parekatuagoa

izan zen; lehen erdian, gutxienez. Atzeko koadroetan jokatu zen, nagusiki, partidua. Hamarna berdinduta zihoazenean hautsi zen, eta Urretabizkaia eta Murgiondok hartu zuten kontrola, 7-0ko partziala eginda. Santxok hankako minarekin hasi zuen partidua, eta okerrera egin zuen erdialdetik aurrera, orduan hasi baitzen partidua baldintzatzen. Azkenean, 22-15 bukatu zen finala. Jokalari onenaren saria Murgiondorentzat izan zen.



## JOSU ZEZEAGA

BERGARAKO PILOTARIA

"Partiduaren hasieran pixka bat urduri jarri naiz, finala izanik eta herrian jokatu. Atzelariak denbora guztian dominatu nau, eta horrelakoetan ezin daiteke ezer egin. Atzo jokatzetik nentorren, Aranguren jaun eta jabe izan da, eta, hasieratik dominatzen hasita gustura jokatzeko denez, hortxe joan zaigu partidua".



## IRAITZ ZUBIZARRETA

PROMES MAILAKO IRABAZLEA

"Espero baino errazago irabazi dugu. Lan gogorra geneukalakoan etorri gara; mailarik onena erakutsi behar genuen 22ra heltzeko, eta halaxe lortu dugu. Garrantzitsua zen ondo hastea, kategoriako pilotari onenetakoak dira eta. Gure lana hasieratik ondo egin dugu. Aranguren, bikote-kideak, ikaragarri ondo jokatu du, eta oso gustura gaude egindakoarekin".



## BEÑAT URRETABIZKAIA

NAGUSIEN MAILAN IRABAZLEA

"Nahiko parekatua joan da partidua.. Hasieratik espero genuen partidu zaila, eta irabazteko ia ezinezkoa, bikote hau afizionatuetan puntakoa delako; baina egun guztiak ez dira berdinez izaten, eta oso ondo ateratu zaigu. Takadaka joaten da partidua eta detaile txikietan erabakitzen da, eta gaur, gure alde tokatu da".

# BERGARAKO ALKATEA

**GOIENA TELEBISTA | HARIRA ALKATEEKIN ELKARRIZKETAK ELENA LETE, BERGARAKO ALKATEA**

MAIATZAK 24, 22:00ETAN | ENEKO AZKARATEK AURKEZTUA

EGIN GALDERA:

**Whatsapp:**

688 69 00 07

**Posta elektronikoa:**

berriak@goiena.eus

**Goiena app:**

Galdera bidali



goiena

## Seminarioko aretora bisita gidatuak antolatu dituzte

M.T. | BERGARA

Seminarioko erabilera anitzeko aretoko lanak aurrera doaz eta amaitu berri da Udalak martxan jarritako azterketa tekniko-eszenikoa. Lanak eta azterketaren emaitzak ezagutzeko, Udala bisita gidatuak egiten ari da eragile ezberdinekin.

Herritarrek maiatzaren 26an izango dute bisita gidatua egiteko aukera. Bi bisita antolatu dira, bata 18:00etan eta bestea 18:30ean. Izen ematea beharrezkoa da. Kultura zerbitzuan, 943779159 telefonoan edo [kultura@bergara.eus](mailto:kultura@bergara.eus) helbidean egin daiteke.

## Tximista-xake txapelketa jokatu da domekan Agorrosinen

Domeka honetan, maiatzak 22, tximista-xakeko 31. Euskadiko txapelketa izango da Agorrosin kirolgunean. Goizez, 10:00etan hasita, banakako partidak izango dira, eta arratsaldeko lauretatik zortzietara, taldekakoak. Izena emateko, idatzi mezu bat norberaren datuekin [mama@facilnet.net](mailto:mama@facilnet.net) helbidera.

## "Sentsazio gazi-gozoarekin" geratu da futbol taldea

Asteburuan irabazi arren, Bergara ez zen Ohorezko Erregionalera igotzeko lehiara igaro

M.T. | BERGARA

Azken unera arte hortxe izan duen arren, Bergarako futbol taldeak ezin izan du, azkenean, mailaz igotzerik lortu. Soraluzen azken partidua irabazi egin zuten (0-1), baina Mondrak ere beste horrenbeste egin zuen; horren ondorioz, sarrailagileak izango dira mailaz igotzeko lehia jokatu dutenak eta mahoneroak hirugarren geratu dira.

Azken partidua irabazita baina mailaz igotzeko borrokan sartu ahal ezinda, sentsazio "gazi-gozoa" geratu zaio Mikel Juaristi entrenatzaileari: "Sentsazio ona, alde batetik, guk gurea egin genuelako, baina, beste aldetik, pena, ezin izan genuelako bigarren egin".

## Balorazio positiboa

Hala ere, Juaristik denboraldiaren balorazio orokorra positiboa dela azaldu du: "Denboraldi erdian ez genuen espero hor egongo ginenik gauzak zihoazen bezala, eta oso-oso ondo bukatu dugu, nahiz eta azkenean bigarren ezin bukatu".

Juaristirentzat lehen denboraldia izan da Bergara entrenatzen. "Entrenatzaile moduan, satisfaziorik handiena ematen duena da taldea hartzen duzun momentutik uzten duzunera taldea hobetu dela ikustea". Bigarren itzulian, 45 puntutik 40 lortu dituzte mahoneroek.

Entrenatzailearen ustez, klabea izan da talde moduan eraiki duten harreman estua.

## OHARRAK

### EAJ: BOTOA POSTAZ

Ekainaren 26rako botoa postaz emateko bulegoa Batzokian. Ordutegia: goizez 11:00-12:30; arratsaldez 18:00-20:00. Azken eguna: ekainak 16. 943764700.

### POL POL: GAZTEEN IRTEERA

Larraitz-Txindoki-Ganbo-Igaratza-Lizarrusti. Maiatzaren 29an, 7 orduko, 08:00etan irten da. Izen ematea: 10 euro. Maiatzaren 26a baino lehen bulegoan.





Iazko lehiaketako irabazleak. | GOIENA

## Bihar banatuko dituzte Koldo Eleizalde sariak

Bergarako udal pilotalekuan izango da, 12:00etan; aurkeztutako 510 lanetatik 30 sarituko dituzte

IRATI ELORTONDO | BERGARA

Azkeneko urteetan bezala, idatziko generoak eta ahozkoak saritzen diren Koldo Eleizalde sariak banatuko dira bihar eguerdiko hamabietan. Ikastetxeek prestatutako hainbat emankizun egongo dira, baita saritutako lan batzuk ikusteko edo entzuteko aukera ere.

**Parte hartze paregabea**

Guztira, 510 lan aurkeztu dira, iaz baino 135 gehiago. Hain zuzen, 382 ipuin idatzian, 35 bertso sailean, 48 komiki sailean eta 45 kontaketa eta interpretazioaren sailean -ipuin-kontaketa, antzerkia, txisteak eta umorezko pasadizoak-. Horrez gain, iaz baino zortzi lan gehiago sarituko dira.

**Aurtengo irabazleak**

Lau sail ezberdinetan banatuta, guztira, 38 lan sarituko dituzte. Ipuin idatzian, *Astea*, *Beñat eta Itsaso kobazuloan* eta *Gogor eta bere amatxo* izan dira irabazleak lehen kategorian; bigarren kategorian, *Zeru magikoa*, *Xabier eta liburua* eta *Amets lortua*; hirugarren kategorian, *Birtuala egun batez*, *Haritza erori da* eta *Lorearen bila*; laugarren kategorian, *Ametsetako labirintoa*, *Autobuseko musika kaxa* eta *Lau zati*; bosgarren kategorian, *Gora karlos zazpigarrena*, *Ez ditu hildakoak berpiztuko* eta *Zutaz harro*. Bertso sailean bi kategoria bereizi dituzte: lehenengoan, *Autokudeaketa* eta *Koldo Eleizalde lehiaketa*; bigarren kategorian, *Maitasuna* eta *Euskal Herria* lanek irabazi dute. Komiki-tiren sailean, berriz, *Bi sagu teilatuan*, *Mara margotzen ari da* eta *Bizia zeukan txorimaloa* geratu dira lehen postuan; bigarren kategorian, *Alperriko bueltia* eta *Demaseko bazkarixa*; eta hirugarrenean, *Teknologiaren iraultza* eta *Larunbat arratsaldeak*. Azkenik, kontaketa eta interpretazioan, lehen sailean, *Koloreak*, *Lehoia eta txirtxila* eta *Txanomoretzu* izan dira irabazleak; bigarrenean, *Aharixa*, *zaldixa eta untxi grisa*, *Lanpara magikoa*, *Lan baten bila*, *Irakasle gaiztoak* eta *Zoro etxian*; hirugarren kategorian, *Urrestilako musikariak* eta *Hau hanka sartzea*; eta, laugarrenean, *Ayer gauean* lana.

### 'Osintxu musikara!': aurkezteko azken eguna, maiatzaren 31

*Osintxu musikara!* musika talde zein bakarlariren lehiaketan parte hartzeko izen emate epea apirilaren 25an zabaldu zen eta maiatzaren 31n izango da maketak aurkezteko azkeneko eguna. Aukeratutako sei musika taldeek Osintxuko jaietako egubakoitzean, irailaren 2an, jotzeko aukera izango dute. Euskal Herriko edozein taldek du parte hartzeko aukera. Hain zuzen ere, lehenengo saria 500 euro izango da eta bigarrena, 200 euro.

### Umeentzako eta helduentzako ipuin kontaketa liburutegian

Maiatzaren zehar, helduek zein etxeko txikienek Bergarako udal liburutegian ipuin kontaketez gozatzeko aukera izango dute. Maiatzaren 24an helduentzako ipuin kontaketa egongo da Intujai taldeko May Gorostiaga kidearen eskutik. *En mi mundo* ipuina kontatuko du, gazteleraz, 19:30ean. Maiatzaren 27an, ordea, umeentzako ipuin kontaketa eskainiko du Amaia Arriaranek, *Ipuinekin hegan* egin izenekoa, 18:00etan, umeen liburutegian.

### Esther Iñiguez eta Nagore Larrionen emanaldia igandean

Begarako San Pedro parrokiako Stoltz-Freres organo handia eraberritzeko dirua batzeko, kontzertua eskainiko dute igandean, hilak 22, Santa Marina parrokian, 19:00etan. Esther Iñiguez eta Nagore Larrion arituko dira organoan eta zeharkako txirulan. Diru jasotzearen helburu nagusia organoa berritzea da, hura sustatzeko eta babestu ahal izateko. Instrumentuak behar duen babesa lortzea eta konponketarako laguntza nahikoa biltzea espero da.

### Autobusak, Okzitaniako Tolosako Orkestra Sinfonikoa ikusteko

Okzitaniako Tolosako Orkestra Sinfonikoa emanaldia eskainiko du Kursaalaren maiatzaren 31n, eta Bergarako Udalak autobusak jarriko ditu bertara joateko; 18:25ean irten go dira herritik. Bidaia doan izango da, baina izena eman beharko da, Kultura Zerbitzura deituta (943 77 91 69) edo posta elektronikoko bat bidalita ([kultura@bergara.eus](mailto:kultura@bergara.eus)). Erreserbatzeko azken eguna hilaren 26a izango da. Sarre-rak hemen erosi daitezke: [www.sarrerak.kursaal.org](http://www.sarrerak.kursaal.org).

**Musika eta Mugimendu tailerra**  
5 urtetik aurrera

**Biolina**  
3 urtetik aurrera

**Abesbatzak**  
5 urtetik aurrera

**Dantza**  
6 urtetik aurrera

**Hizkuntza Musikala**  
helduentzat ere

**Instrumentu musikalak:**  
-sinfonikoak  
-herrikoiak  
-polifonikoak  
-Joera berriak

**Eskolako taldeak:**  
orkestrak, banda,  
trikitiak, abesbatzak...

**Ekintzak:** Kontzertuak, irteerak,

**Informazioa:**  
Begarako musika eta dantza eskola  
Espoloia z/g, 943765780  
[idazkaritza@bme.e.telefonica.net](mailto:idazkaritza@bme.e.telefonica.net)  
[www.bergarakomusikaeskola.com](http://www.bergarakomusikaeskola.com)

**Matrikulazio epea zabalik ekainaren 15era arte**



Nik&amp;Go ibilgailu elektrikoa Portu kalean egon da aparkatuta eguzten goizean. | O.E.

# Auto elektrikoak ekarri ditu Udalak, erabilera aztertzeke

## Paketeak eta merkatarien enkarguak banatzea eta turistak eta adinekoak garraiatzea lirateke funtzioak

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Nik&Go izenez ezagutzen den ibilgailu elektrikoaren azterketa egiten ari da Oñatiko Udala. Personak garraiatzeko ereduak lau lagunendako tokia du eta herriko kaleetan ikus daiteke, adibidez, egun hauetan.

Edermobility Services-etik etorritako proposamen baten harira ari da egiten azterketa hau

Oñatiko Udala. 11.000 laguneko herri batean ibilgailu elektrikoak errentagarriak eta bideragarriak direla dioen proiektu bat egin du Edermobility Services-ek, eta Oñatira ekarri du Udalak; azterketa batek erakutsiko du hori horrela den edo ez, eta zergatik.

Berez, bi helburutarako erabiliko lirateke auto elektriko hauek Oñatin. "Funtzio bat litzateke

paketeak dagokionari entregatzeko erabiltzea. Mezularitza-zerbitzuan lan egiten duten askok diote azken kilometroan sortzen zaizkiela arazo gehien, eta hori saihesteko aukera bat litzateke hau. Adibidez, pakete guztiak biltegi batean bildu eta handik egin banaketa. Bestalde, herriko merkatariek ere erabiltzeko modukoak lirateke, euren enkarguak

bezeroei etxera eramateko", azaldu du Irati Etxeberriak, udaleko sozioekonomia batzordeburuak. Ibilgailu elektriko hauen bigarren funtzioa pertsonen garraioa izango litzateke. "Aukera bat da turisten eskura jartzea. Ibilgailu hauek tableta bat dute eta hor sartu daiteke herri barruko ibilaldi bat; eraikinetara heltzen direnean programak berak emango die horren gaineko informazioa. Bestetik, adinekoen egoitzako egoiliarrek herrira jaisteko ere balio dezakete, adibidez", gaineratu du Etxeberriak.

### Sei hilabete

Azterketa egiten Oñatiko gazte bat ari da, Europatik etorritako beka bati esker. Egun hauetan, herriko ostalaritzan lanean dihardutenekin ari da hitz egiten eta herriko merkatarientzako galdegegia ere prest du. "Txandako lehendakariarekin ere egongo naiz, enkarguak etxera eramateko edo arropak bezeroari probatzeko etxera eramateko aukera egotea zer iruditzen zaien jakiteko", dio azterketa egiten ari den Iñaki Madinabeitia gazteak.

Madinabeitiaren esanetan, horrelako ibilgailu eredu ezberdinak daude eta azterketak emandako emaitzen arabera modu batekoak edo besteak izan daitezke gero erabiliko direnak. "Egun hauetan herrian ikus daitekeena, esaterako, lau lagunendako da. 100 kilometroko autonomia du eta zortzi ordu behar ditu bateria kargatzeko. Proba egin dut eta Usakotik buelta ondo egiten du", dio Madinabeitiak.

Urte bukaerarako egongo da prest azterketa. "Orduan ikusiko da negozio linea hauek bideragarriak diren edo ez eta izanez gero nola formulatu aurrera eraman ahal izateko", azaldu du sozioekonomia batzordeburuak.

## Ekimen berriak antolatuko ditu Sarek presoaren eta iheslarien eskubideen alde

KOMUNITATEA GOIENA | SARE | OÑATI

Oñatiko postetxe ondoko trenarekin argazkia atera dugu Oñatiko sarekideok. Hau ibilbide baten hasiera besterik ez da, lehen geltokia. Hemen aurrera, trenaren dinamikarekin, bagoiak betetzea dagokigu eta preso, iheslari edo deportatuen giza eskubideen alde adostasunak, konpromisoak edo ekimen berriak

antolatzea dagokigu jendarte guztiari. Jendartea aktibatuz lortuko baitugu harriak mugitzea eta dispersioa amaitzea. Larriki gaixo dauden presoak urgentziaz etxeratzea ere oso garrantzitsua litzateke konponbiderantz pausoak eman daitezen.

Jarri dezagun guztiok geure alea, ez gelditu trenera igo gabe eta animo, lortuko dugu eta.



Hilaren 14an ateratako talde argazkia. | OÑATIKO SARE



Jende asko erakarri zuen Eraín Debagoienak antolatutako tertuliak. | A.T.

## Zabaletak eta Biurrunek erabakitzeke eskubidea defendatu dute Santa Anan

AMAIA TXINTXURRETA | OÑATI

Gemma Zabaleta PSE-EEko buruzagi ohiak eta Garbiñe Biurrun epaileak euren iritzia eman zituzten, martitzenean, erabakitzeke eskubidearen gainean, eta biek defendatu zuten eskubide hori.

Gemma Zabaletak azpimarratu zuen erabakitzeke eskubideari buruzko hainbat gezur daudela zabaldua; esaterako, galdetzeak gizartea zatitu egiten duela. Baina argitu zuen hori ez dela egia,

"zerbait konpontzeko lagundu egiten duelako galdetzeak", bere ustez. Biurrunek adierazi zuen herritar moduan guztiok daukagula gure gauzez erabakitzeke eskubidea. Gainera, Espainiako Konstituzioaren 23. artikulua ere horixe diola azaldu zuen; herritarrek ahal izango dutela gauza publikoak arduratu zuzenean edo ordezkarien bitartez. Eguaztenean Jaume Lopez eta Koldo Saratxaga datoz Santa Anara, 19:30ean.

## Musika eskolak Foruen plazan aterako ditu instrumentuak

Jose de Azpiazu musika eskolak gaur, egubakoitza, Foruen plazan egingo duen ekitaldi berezi batean erakutsiko du datorren ikasturteko eskaintza. Jolasak eta musika instrumentuak eramango ditu, ikusteko, jolas egiteko eta probatzeko. Datorren astean zabalduko dute matrikulazioa ikasturte berrirako eta epea irekiko da izena emateko.

## Udako kanpainan tokia dago hainbat kirol eskaintzatan

Lehenengo eta bigarren txandetan zein txanda bakarrek hainbat kirol eskaintzatan dago tokia oraindik; adibidez: mendiko bizikleta, xakea, golfa, patinak, igeriketa, pilota eta eskalada. Zubikoako bulegoetan eman behar da izena astelehenetik egubakoitzera 11:00etatik 13:15era eta 17:00etatik 19:00etara.

## Aizkorriko igoera ikusteko autobus zerbitzu berezia etzi

Domekan izango da Zegama-Aizkorri mendi lasterketa eta Oñatitik Arantzazura ohi baino autobus gehiago egongo dira hura ikustera joateko. Oñatitik 07:30ean hasi eta ordu erdian behin izango da autobusa 14:30ak arte, eta arratsaldean, orduro. Arantzazutik ordu erdian behin aterako dira, 15:00ak arte, eta hortik aurrera orduro.

## Elikadura osasuntsuari buruzko tailerra, gurasoendako

Herriko Hezkuntza Mahaiak antolatuta, *Elikadura osasuntsua: Bere garrantzia eta gaur egungo obsesioa* izeneko tailerra antolatu du gurasoendako, haurrek elikadura ohitura egokiak txikitatik ikasteko beharraz jabetuta. Amaia Diaz de Monasteriogurenek gidatuko du tailerra hilaren 26an. Aurrez eman behar da izena 943 03 77 00 telefonoan.

## Arte udalekuetan begirale izateko epea zabalik dago oraindik

Martitzenean, hilak 24, da azken eguna arte udalekuetan begirale izateko izena emateko. Arte udalekuak 11 eta 15 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako aisialdi ekintza da eta ekainaren 27tik uztailaren 22ra egingo dira, goizez. Bi begirale kontratatuko dira zerbitzu hori eskaintzeko. Udal bulegoetan aurkeztu behar dira eskaerak.

# Elkartasunerako enpatia handia duela erakutsi du Oñatik sarri

- ▶ Acesma, Nepal Lagunduz eta Hotz Oñati taldeak horren testigu dira
- ▶ Argentinara eta Saharara eskolako materiala bidaliko dute egunotan

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Gertaera baten aurrean antolatze eta elkartasuna bideratzeko proiektuak jartzeko azkartasuna badagoela ikusi da Oñatin. Horren adibideak dira Nepal Lagunduz, Hotz Oñati eta Acesma taldeak. Udalak ere urtero gordetzen du dirua helburu horretarako. Muturreko egoeretan ez ezik, oñatiarrek bestela ere elkartasuna adierazten dutela dio, adibidez, Hermansaloña elkarteke Jose Antonio Urteagak: "Martitzenean, 35. kontainera bidaliko dugu Argentinara. Liburuz, arropaz, oinetakoz, jostailuz eta eskolako materialez betetako 920 kaxa, ia hamabost tona". Ulmak 2.000 kilo eskola material bidaliko ditu Saharara.

## Herritarrek

Hilabete honetan betekoa da urtebete lurrikara batek Nepal astindu zuela. Handik gutxira sortu zuten Nepal Lagunduz taldea, hara dirua eta laguntza bidaltzeko. "Felipe Uriartek eta biok badugu lagun bat Nepalgoa dena. Horrelaxe hasi ginen, eta berehala hurbildu zitzaigun jendea", dio taldeko Urko Egañak.

Epe laburrerako laguntzak eta beharrak finkatu zituzten hasieran, baina proiektua egonkortzeko asmoa dute eta epe ertaineko eta luzeko lanak ere jarri dituzte mahai gainean dagoeneko. "Herriko erakunde eta enpresek

ere asko lagundu digute; esker-tzekoa da, benetan. Eurengandik eta herritarrengandik jasotako dirua han egiten ari diren hainbat proiektuetara bideratu dugu eta jarraipena egiten ari gara", dio Egañak.

Udazkenean trekkinga egingo dute dozena bat lagunek Everesteko magalean eta bertatik bertara ikusi ahal izango dute hemen batutako dirua zertarako erabili. Gainera, karabana bat jarriko dute martxan orain, irteera horretan parte hartuko dutenek eramanango duten arropa eta medikamentuak batzeko, hangoendako. "Argi ikusten da herriko jendearekin ateratzen direla proiektuak", dio Egañak, herritarrei eskertuta.

## Jarraipena

Hotz Oñati taldeak duen esperientzia ere baikorra da. "Astebetean ia 40 laguneko taldea eratu genuen eta janariak eta produktuak batzeko kanpaina jarri genuen berehala martxan. 6.500 tona batu genituen. Eguzkitako kremak eta zorrien kontrako botikak ere eman dizkigute herriko farmaziek. Ikaragarria izan da", du gogoan taldeko Aritz Ruedak. "Duela gutxi 500 euro bidali genizkion Frantziako kanpalekuan sukaldari lanetan ari den Guadalajarako lagun bati, jaki freskoak erosteko. Beste 200 euro Idomenin lanean ari den boluntario bati

eman dizkiogu, hango emakume talde bati jatekoa erosteko. Eta diru hori herritarrei eta herriko erakundeei esker lortu dugu. Duela gutxi hustu ditugu han eta hemen jarritako itsulapikoak eta ia 1.000 euro batu ditugu", dio, pozik, Ruedak. Orain, eguzkitako kremak, pixoihalak eta esne-hautsa batzen hasi dira. Eta ikaste-txeeekin *Irrifuxiatuak* proiektua jarri dute martxan, "hango egoera zabaltzeko".

## Berehalakotasuna

Ekuadorren lurrikara izan eta egun gutxira antolatu zuten azoka Foruen plazan herriko ekuadortarrek. "Horrelako egoeren aurrean antolatze eta laguntzeko oñatiarrek duten gaitasuna ikaragarria da. Herritarren berehalakotasuna ez sinisteko

modukoa da. Urakan batek Kuban sortutako kalteak arintzeko lanean hasi ginen gu, eta ordutik hona beti ikusi dugu oñatiarrek elkartasunarekiko enpatia handia dutela. Ekuadorko kasu honetan ere, berehala antolatu ziren Oñatin bizi diren ekuadortarrak, eta beste hainbat laguntzeko prest azaldu ziren. 3.000 euro pasa batu dituzte eta herrialde hartara bidaliko dute dirua", dio Acesma elkarteke Ibis Rodriguezek.

Herriko misio taldeak ere proiektu bat jartzen du martxan bi urtean behin. "Gutxi gorabehera, 12.000 euro batzen ditugu urtean; horietako asko, patata-tortilletatik. Haitiko eskola martxan dago eta hurrengo proiektua Afrikan kokatuko da, ziurrenik", dio Jose Antonio Urteagak.



Nepalgo egoeraz kezkatuta sortutako taldearen argazkia. | GOIENA



Ekuadorrera laguntza bidaltzeko deia Foruen plazan. | GOIENA



Hotz Oñatik egindako kanpaina batutakoa jasotzen. | GOIENA

## NIRE USTEZ

MAITE IRIZAR



Telefono hautsia

Garai batean, kalera atera eta arratsalde osoa jolasean pasatzen genuen. Ez genuen mezuak bidaltzeko aparatuerik; beraz, batak besteari esaten genizkion ahotik belarrira. Jokoa horrela zen: batek ondo-koari xuxurlatzen zion asma-tutako esaera, hark hurrengoari errepikatzen zion, hurrengoak jarraian zegoenari, eta, horrela, borobil osoa zeharkatu eta hasierako abiapuntura heldu arte. Mezua aldatuta iristen zen, ia beti xebebrekeria bilakatuta.

Transmisioaren jarduerak mezua kutsatzen zuen. Zenbat eta aldrebesagoa, orduan eta barregarriagoa. Jokoa ez zen zuzentasuna ezta mezua argi azaltzea ere. Helburua mezua kutsatzea zen, eta, hori horrela jakinda, jolas entretenigarri bihurtzen zen.

Egun, mezu eta albiste ugaz inguratuta bizi gara. Baina ezberdintasun nabarmen bat badago. Mezua ez da desitxuratzeko, ez da xebebrekeria bilakatzen. Sortua izan zen bezala helden zaigu, baina, erabilaren ondorioz, erabat baliogabetuta jasotzen dugu. Hitzak gatzatzen ditugula esaten da. Higituta daudela. Benetako esanahia ez dutela jada adierazten. Hitzei egiten zaien erabilera intenzionatuagatik, helden zaizkigu mezuak lausotuta eta kutsatuta. Intenzioak kutsatzen du jatorrian indarra zuen gogoeta. Aspaldian inguruan gertatzen direnak ikusita, uste dut ideia bera kutsatzea dela helburua, indarra galdu eta mezu hutsal bihurtu arte desitxuratzea. Baina arazoa ez da hori, ez digute hori horrela azaltzen; are gehiago, ezkutatu egiten digute. Ondorioz, esan genezake guztiok ez garela horretaz jabetzen eta ez garela jatorrizko mezuaren baliora helden, eta, horregatik, kontziente izan behar dugu haurtzaroan jolasten genuen joko hartatik asko alden du dela errealitatea.

## Errekalden eta Araotzen dituzte jaiak asteburu honetan

Errekalden garagardo azokarekin eta rock kontzertuarekin hasiko dituzte gaur, egubakoitza, jaiak. Aurten, goitibehera jaitziera domekan izango da eta mus txapelketa, zapatuan. Araotzen, bestalde, bola jokoa egingo dute zapatuan, 20:00etan, eta aizkora eta trontza probak, domekan, 12:00etan.

## Erraustegiaren aurkako giza katera joateko autobusa egongo da

Erraustegiaren aurkako giza katea egingo dute domekan Donostian, onkologikotik Foru Aldundiraino, eta Oñati Zero Zabor taldeak autobusa antolatu du hara joateko. Arrano tabernan edo Errekaldako jaietan egongo den informazio mahaian eman daiteke izena. Bere kabuz joan gura duenak ere izena ematea komeni da, giza katea ondo antolatzeke.

## Landa-guneko plastikoa jasoko dute martitzenean

Baserri inguruetan sortzen den plastikoen bilketa egingo dute datorren martitzenean, hilak 24. Plastikoa arratsaldez atera behar dira ohiko puntuetan: Zañartun, Murgialdian, Olabarrietan eta Larrañan. Beste nonbaiten utzi gura bada, telefono zenbaki honetara deitu behar da: 943 76 25 47.

AINHOA LEGARISTI LIZARRA  
IZASKUN LEGARISTI LIZARRA

**ARKITEKTOAK**

*Era guztietako proiektu arkitektonikoak*

*Eskatu aurrekontua inongo konpromezurik gabe*

Lazarraga Kalea 3, behea  
20560 Oñati (Gipuzkoa)

661 09 35 00  
645 70 17 52

BULEGOKO  
ORDUTEGIA:

Astelehena  
Osteguna  
Ostirala  
09:00-13:00

Asteartea  
Asteazkena  
15:00-19:00

## 25.a 'Peitto'-ren omenezkoa izan da

Duela 25 urte egin zuten lehenengo aldiz Oñati eta Lizarra arteko mendi ibilaldia. Ideia izan zutenen artean zegoen Pedro Iñurritegi *Peitto*, eta hura izan dute gogoan aurtengo irteeran. Zapatuan egin zuten; 03:00etan atera ziren Oñatitik, eta 19:00 aldera heldu Lizarrara, bidean bi geldialdi eginda; bat Eulaten, bazkaltzeko. "Bioxkornia aldean galdu egin ginen, lainoagatik, baina ibilaldia primeran atera zen, lagun artean, giro onean. Sekulakoa izan zen. Etxekook, nola ez, emozioz bizi izan genuen", dio Xabi Iñurritegik; kilometro asko korrika egin zituen hark. 60 lagun inguru elkartu ziren afaltzeko eta *Peitto*-ren omenezko bertsoak kantatu zituzten. 02:00 aldera iritsi ziren, autobusean, Oñatira.



IÑIGO GARCIA DE CORTAZAR



Maider Arregi. | ENEKO AZURMENDI

## MAIDER ARREGI BERTSOLARIA "Irabaztea tokatzen bada, ondo; eta bestela, ez da ezer pasatzen"

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Maider Arregi oñatiarra *Plazatik gaztetxera* sariketako finalerako sailkatu da, Gemma Urteaga bikotekidearekin. Finala bihar, zapatua, izango da, Mutrikuko gaztetxean, 18:30ean.

**Zelan sortu zen sariketa hau? Ze helburu dauka?**

Debabarreneko gaztetxeek sortu zuten, bertsolaritza gaztetxeetara eramateko eta bertako bertsolari gazteei jendurrean abesteko bultzadaxoa emateko helburuarekin. Ordutik hona, zabalduz joan da, eta, gaur egun, herri gehiagotan izateaz gain, beste herri batzuetako bertsolariok ere hartzen dugu parte.

**Zure lehen aldía da txapelketa honetan?**

Ez, iaz ere parte hartu nuen. Oso esperientzia ona da; izan ere, beste bertsolariak gehiago ezagutzeko aukera ematen du. Bikoteka jokatzenez, bikotekidearekin harremana sendotzeko balio du. Nire kasuan, adibidez, iaz eta aurtun Gemma Urteaga izan dut bikotekide, eta oso lagun onak gara hori dela eta.

**Ez da txapelketa arrunta.**

Ez, oso desberdina da. Ez da ohituta gauden txapelketak bezain serioa, eta ondo pasatzeko aukera gehiago ematen du honek. Epaitzeko modua ere desberdina da eta horrek ere eragin handia du.

**Jende askok jarraitzen du?**

Gaztetxe batzuetan herriko ekitaldi garrantzitsuena dela dirudi; beste batzuetan, berriz, betiko laurak egoten dira.

**Orain, finalera. Ze espero duzu?**

Dagoeneko esan digute ze ariketa egin behariko ditugun, eta oso motibatuta nago. Beste bikoteak ere onak dira. Beraz, irabaztea tokatzen bada, ondo; eta bestela, ez da ezer pasatzen. Triki-bertso-poteoa, bazkaria eta erromeria ere egongo dira, eta, batez ere, ondo pasatzea izango da helburua.

## Ahozkotasuna eta bertsolaritza landuz, urtero legez

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Badira bederatzita urte herriko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. mailako ikasleek ahozkotasuna eta bertsolaritza lantzen dutela. Oñatiko udalak, herriko hiru ikastetxeek eta Gipuzkoako Bertsozale Elkar-teak sustatutako ekimena da hau eta hainbat arlo lantzen dituzte.

"Bertsolaritza, ahozkotasuna, komunikazioa eta sormena lantzen dituzte ikasleek", dio Iñaki Akizuk, Udaleko Euskara eta Hezkuntza teknikariak. Bi astean behin bertsolari bat joaten zaie ikastetxeetara. Guztira, 331 ikaslek hartu dute parte eta ikasturtean zehar ikasitakoa publikoari eskaintzen ibili dira aste honetan.



Hainbat ikasle bertsoan. | GOIENA



BERDINTXIKETAN

## Berdintxiketan lasterketa

Pasa den egubakoitzean, bikote mistoen VI. Berdintxiketan lasterketa egin zen Oñatin. Antolakuntzak balorazio kualitatibo positiboa egin du, oso giro onean joan zen eta. Edozelan ere, iaz baino 5-6 bikote gutxiago izan dira, eta kezkatu samar azaldu da Saioa Arando, antolakuntzako kidea. "Publizitate aldetik esfortzua egin arren, ez dugu korrikalarien kanala ondo kontrolatzen", dio.

## Herriko Pilota Txapelketarako izen ematea, domekara arte

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Maiatzaren 22a, domeka, izango da aurtengo San Migeletako Pilota Txapelketarako izena emateko azken eguna. Horretarako, Ona, Arrano eta Aloña tabernetan dago aukera, bikote bakoitzak 10 euro ordainduta.

Oraingoz, 22 bikotek eman dute izena, baina gehiago espero dituzte. "Iaz 29 bikotek hartu zuten parte eta aurten kopuru hori gainditzea espero dugu", dio Iñigo Igartuak, antolatzaileetako batek.

Txapelketaren hasiera noiz izango den ez dakite seguru oraindik, baina, seguruenez, ekainaren bigarren astean izango dela dio Igartuak.

## Disfrutatzeke helburuarekin ari da Izarraitz Aloña Mendi

ENEKO AZURMENDI | OÑATI

Kopako laugarren partidua jokatu du asteburu honetan Izarraitz Aloña Mendik, Ilcapo Hondarribia azken sailkatuaren aurka. Hondarribian izango da partidua, domekan, 11:00etan.

Aitor Aranburu entrena-tzaileak dio kopa hau irabaztea ez dela lehentasuna. "Denboraldian zehar minutu gutxiago jokatu dituzten jokalariei jokatzeko aukera eman nahi diet, eta kantxan disfrutatzea da helburua", dio. Gazte mailako hainbat jokalarerekin ari dira kopa jokatzeko, datorren urteari begira taldearen dinamikan sartzeko asmotan, Aranbururen esanetan.

# Nerabeen beharrak eta gabeziak jaso ditu Udalak

## Kale hezitzaileek egindako diagnosis ikusgai dago

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Udaleko Ongizate eta Prebentzio sailek eskatuta, herriko nerabeek dituzten gabezien eta beharren gaineko azterketa egin dute kale hezitzaileek, Nerea Egurza eta Nerea Zubillaga aretxabaletarrek eta Miren Zaloña bergararrak. Horretarako, egon dira 12 eta 18 urte bitarteko 213 gazterekin; Aretxabaletako gazteen %40ekin, hain zuzen ere. Horiez gain, gurasoekin eta gazteekin lan egiten duten hainbat elkartetako ordezkariekin ere elkartu dira.

### Espazio beharra

Beharrak eta gabeziak identifikatzearrekin batera, gazteen ongizatea sustatzea da ikerketaren helburua. Horretarako, bost arlo hartu dituzte kontuan: pertsona;

familia; aisia eta parte-hartzea; hezkuntza; eta gizartea.

Arlo pertsonalari dagokionez, autonomia sustatu eta adimen emozionala landu beharra agertu dute, besteak beste. Familia arloan gurasoek duten orientazio beharra erakutsi du ikerketak; eta arlo sozialari dagokionez kontsumismoa, indibidualismoa eta helduen artean erreferentzia falta igarri dituzte, euskararen erabilera jaitzierarekin batera. Aisialdiaren kasuan espazio beharra adierazi dute gazteek, baita parte-hartzeko gune falta ere. Eta hezkuntzari dagokionez alor emozional-afektiboaren lanketa urria ematen dela jaso dute, besteak beste.

Behin egoera ezagututa, hainbat proposamen eta esku-hartze ildo zehaztu dituzte kale hezitzaileek; hamalau guztira. Baita hainbat programa proposatu ere: kale heziketa programa; guraso eskola; hezkuntza eta guraso foroa; eta elkarten foroa. Garrantzitsuztat jo dute gogo handia igarri izana gazteekin lan egiteko: "Bidea egiteko egon arren, gogoia eta indarra antzeman ditugu; izan ere, gazteekin ganoraz lan egiteko gogo handia dago herrian".

Ikerketa hori aurkeztu diete Udal ordezkariak eta gazteen inguruan dabilzan arduradunak: "Herriko gazteen argazki osatua erakutsi digute. Egindako proposamenei jarraipena ematen saiatuko gara orain", adierazi du Karnele Uribarririk, Ongizate Saileko zinegotziak. Ikerketa lan guztia herritarren eskura jarri dute Udalaren webgunean.

Ikerketa hori aurkeztu diete Udal ordezkariak eta gazteen inguruan dabilzan arduradunak: "Herriko gazteen argazki osatua erakutsi digute. Egindako proposamenei jarraipena ematen saiatuko gara orain", adierazi du Karnele Uribarririk, Ongizate Saileko zinegotziak. Ikerketa lan guztia herritarren eskura jarri dute Udalaren webgunean.

### ESKU-HARTZE ILDOAK

- ▶ Parte hartze kulturaren sustapena
- ▶ Balio hezitzaileen lanketa
- ▶ Izaera edo sentimendu komunitarioa bultzatzea eta gazteen harremanak sendotzea
- ▶ Erreferente heldu positiboak lantzea
- ▶ Hezkuntza formala, hezkuntza ez formala eta gurasoen arteko hartu-emanen sendotzea
- ▶ Gurasoekin esku hartuz heziketarako gaitasunen lanketa
- ▶ Herriko eragileen arteko harremana eta koordinazioa sustatzea
- ▶ Ongizaterako zerbitzuen esku-hartze integrala garatzea
- ▶ Nerabeekin komunikazioa: eraikitzailea eta positiboa
- ▶ Kultura, belaunaldi eta genero arteko harreman osasuntsuak sustatzea
- ▶ Aisialdi hezitzailea garatzea
- ▶ Gazteen espazio beharri erantzutea
- ▶ Gizarte bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen inklusioa lantzea
- ▶ Udala, instituzio bezala, herriratzea

## Astelehenetik eman daiteke botoa Pagaldaixenean

M.A. | ARETXABALETA

Erabakitze eskubidearen gainean ekainaren 5ean egingo den herri galdeketa antolatzen hasita dago Aretxabaletako Gure Esku Dago lantaldea. Aurrez bozkatu gura dutenek astelehenetik aurrera izango dute aukera. Pagaldaixenean jarriko dute hautetsontzia maiatzaren 23tik 27ra eta 30etik ekainaren 3ra bitartean, arratsaldean (18:30-20:30). Zapatuetan, maiatzak 28 eta ekainak 4, goizez izango da aukera (11:00-14:00). Eta maiatzaren 29an auzoetara joango dira.

Herri galdeketa egunean jai handia egin gura dute eta herri bazkaria izango da. Txarretak salgai daude taberna hauetan: Eguzki, Kixkor, Haizea, Urbaltz, Gurea, Orly eta Bedarreta. Prezioa da: helduek 10 euro eta umeek 6 euro.

# Elkar Ekin gizarte esku-hartze plana abian jartzea onartu dute

## EAJk aurkeztu du mozioa osoko bilkuran eta onartutako bakarra izan da

M.A. | ARETXABALETA

Mozioek eragin zuten eztabaida udalbatzak astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran.

Europako Batasunak eta Estatu Batuak merkataritza eta inbertsio libretarako negoziatzen dabilzan itunaren aurkakoa aurkeztu zuen Irabazik, eta Aretxabaleta TTIParen aurkako udalerrizendatzea eskatu. EH Bilduko zinegotziek babestu egin zuten, baina EAJko kideek ez, "oraindik

ezagutzeko" dagoela itunak dioena esanaz. Eta ez zuen aurrera egin mozioak.

Hurrengo biak diru sarrerak bermatzeko laguntzaren gainekoak (DBL) izan ziren. EH Bilduk eskatu zuen, besteak beste: herrian jasotzen duten hamabost familiena bermatzea; Gizarte Zerbitzuetako prestazioak bertan behera ez uztea; eta Aldundiari eskatzea DBL bertan behera ez uzteko. Mozioaren alde agertu zen Irabazi, ez, ostera,

EAJ, eta ez zuen aurrera egin. Hain zuzen, EAJk diru laguntzaren gaineko beste bat aurkeztu zuen, Aldundia garatzen dabilen Elkar Ekin gizarte esku-hartze plan integrala bultzatzeko: "DBLren alternatiba litzateke. Ez dago bakarrik etorkinei bideratua, bazterketa arriskuan daudenei ere bai; plan osatuago baten barruan dago. Izan ere, DBLrekin ez dela bete helburua ikusi da", zioen Ongizate Saileko zinegotzi Karnele Uribarririk.



Pello Urizar 'EH bilgunea' inauguratzen. | IMANOL SORIANO

## 'EH bilgunea'-k zabalik ditu ateak herritarrendako

JULEN IRIONDO | ARETXABALETA

Alkartetxea EH bilgunea ere izango da aurrerantzean. Hegoaldeko lau hiriburueta-koen ostean, koalizioaren horrelako bosgarren egoitza da Aretxabaletakoa. "Lanerako eremu" bai, baina "herritarrekiko hartu-emanerako" ere badela adierazi zuen Pello Urizarrek, EH Bilduko bozeramaileak. Urizarrekin batera, besteak beste, Rebeka Ubera eta Maider Otamendi legebiltzarkideak eta herriko beste zenbait kide izan ziren joan den egubakoitzeko inaugurazioan. Egoitzarekin batera, komunitatea ere aurkeztu zuten, EH Bilduren Interneteko sare sozial gisako tresna.

Ekitaldiaren mezu politikoari dagokionez, Urizarrek adierazi zuen ez duela uste Madrildik "aldaketa sakonik" iritsiko denik. Hala ere, gaineratu zuen aldaketarako auke-

ra badagoela eta eurak hor egongo direla, zenbait baldintzarekin: erabakitze eskubidea praktikara eraman ahal izateko konpromisoa; bakearen eta elkarbizitzaren aldeko konpromisoa; eta eraldaketa sozialerako konpromisoa.

## Aretxabaleta bizitzeko herri eroso ote den ikertu dute ikasleek

Kurtzebarri eskolako 6 eta 16 urte arteko ikasleek Agenda 21 barruan egindako lana aurkeztu zieten udalbatzako kideei astelehenean. Bizitzeko herria izan da landutako gaia, eta, Aretxabaleta goitik behera aztertu ondoren, eskaera mordoa aurkeztu zituzten.

Jolas parkeak behatu dituzte, eta hobekuntza askoren beharra dutela ondorioztatu dute. Kurtzebarri eskolako jolastokiari dagokionez, berriz, jaso dute zakarrontziak eta eserlekuak zahartuta daudela, bolatokia oso zikin eta pilotalekuak itoginak eta argiztapen hutsuneak dituela.

Aitona-amonak bizitzeko herri egokia ote den ere aztertu dute, eta hainbat hobekuntza behar direla jaso: zebra-bideak



Neska-mutikoak osoko bilkuren aretoan, Arkupen. | M.A.

egokitu eta herriko eskaileretan barandak jarri, esaterako.

DBHko ikasleek, ostera, genero ikuspegia kontuan hartuta landu dute eta emakumeek eta gizonek presentzia bera duten

zehaztu. Bestetik, herriko hainbat bazterretako segurtasuna ikertu dute eta deseroso sentitzen diren tokiak identifikatu dituzte. Irailean erantzuteko konpromisoa hartu zuen alkateak.



Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA



Herritarrak dantzan iazko Euskeriaren Egunean. | IMANOL SORIANO

## Jolasak, dantzak, bazkaria eta gehiago, euskara ahoan hartuta

Egitarau dotorea gertatu du Loramendi Elkarteak Euskeriaren Eguna ospatzeko bihar, zapatua

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Maiatzaren erdian dator, beste behin, Euskeriaren Eguna, eta oraingoan ere egitarau dotorea gertatu du Loramendi Elkarteak. Euskara ahoan hartuta, jai giroan murgilduko dira aretxabaletarrak.

### Bazkaria eskolako pistan

Gaszteendako antolatutako jolasekin hasiko dute eguna eta ondoren, Auzoko egitasmoko kideek hartuko dute txanda: "Dastatzeko produktuak jarriko ditugu, eta datorren astean Oñatin egingo duten Auzoko egunerako beroketa izango da", jakinarazi du Irati Urkiak, Loramendiko dinamizatzaileak.

Herri bazkaria Kurtzebarri eskolako pistan egingo dute (txartelak Gurea eta Urbaltz tabernetan eta Loramendin dituzte; bazkideek eta ikasleek, 16 euro eta gainerakoek 19 euro): "Aurten ere herriko elkarrekin gertatuko digute okela gisatua", adierazi du Urkiak.

Bazkalostean bertso paperak izango dituzte, eta ostean, karta jokoak eta bolo txapelketa. Bost euro ordaindu beharko da bolotan egiteko, eta sariak izango dira honako hauek: lehenengoak, jasotako diruaren %40; bigarrenak, diruaren %30; eta hirugarrenak, %20; baita Aretxartekoek emandako 20 euroko bono bana ere.

### EGITARUA

**11:30** Ginkana eta jolasak gazteekin, plazan.

**12:00** Auzoko egitasmoko kideekin dastaketa, plazan.

**13:00** Triki-poteoa plazan hasita.

**14:30** Herri bazkaria Kurtzebarri eskolako pistan; ondoren bertso-paperak.

**17:00** Bolatokian karta jolasa.

**18:00** Bolo txapelketa.

**19:30** Larrain dantza, Durana kalean.

**20:00** Ttek! elektrotzaranga.

### Ekuadorren aldeko parrilada Mitarten

Urtero legez, Hiruatx elkarrekin bidezko merkataritza postua jarriko du goiz partean (10:00-14:00), Herriko Plazan.

Arratsaldean, ostera, Ekuadorrekin egingo du bat eta han izandako lurrikararen ondorioz kaltetutakoei laguntzeko parrilada jarriko du Mitarte kalean (18:00-21:00). Haragia eskainiko dute jateko eta jasotako dirua Ekuadorrera bidaliko dute.

### Doinu dantzagarriak

Arratsalde parte dantzek gertuko dute. Urtero legez Larrain dantza egingo dute herritarrek Durana kalean gaitariak lagun eginda, eta ondoren, Ttek! elektrotzarangak doinu dantzagarriekin beteko ditu kaleak.



Mariatxen Urkia eta Susana Plumed, ikasleak inguruan dituztela. | MIRARI ALTUBE

## Tronboi-joleek rock doinuekin beteko dute herria domekan

Gipuzkoako musika eskoletako 103 ikasle elkartuko ditu 'Tromboneitor Rock' topaketak

M.A. | ARETXABALETA

*Tromboneitor Rock* topaketak tronboi-joleen topagune bihurtuko du Aretxabaleta domekan. Gipuzkoako musika eskoletako 100 ikasle baino gehiago elkartuko dira eta rock doinuak eskainiko dituzte goiz partean.

### Kalejira eta kontzertua

Euskal Herriko musika eskolen elkarrekin 2010ean antolatu zuen lehenengoz topaketa; eta Hondarribian antolatutako haren arrakastak urtero egitera animatu ditu antolatzaileak: "Helburua da tronboi-joleek elkar ezagutzea, ondo pasatzea eta tronboia ezagutaraztea", argitu du Mariatxen Urkiak, Leizarra musika eskolako zuzendariak.

Hala, Aretxabaletako hiru ikaslerekin batera -Samuel Ramirez, Ander Ribera eta Gari Sarasua- izango dira Bergara-koak, Azpeitikoak, Azkoitikoak, Ordiziakoak, Debakoak, Mutrikuoak, Tolosakoak, Donostia-koak eta Loatzeko eskolakoak.

09:30ean elkartuko dira guztiak Herriko Plazan, eta soinu probak egingo dituzte. 11:30ean, hamarretakoa izango dute eta ondoren, kalejira; 12:30ean eskainiko dute kontzertua plazan. Rocka izango du oinarri topaketa guztiak: "Garai eta estilo askotako doinu ezagunak joko dituzte; Pink Floyd, Vangelis, La Oreja de Van Gogh eta beste hainbat talderen kantuekin", adierazi du Urkiak.

### Oinarrizko instrumentua

Tronboia haize-instrumentu berezia da: "Gainerako haize-instrumentuetan ez bezala soinu sortzen dugu ezpainen bibrazioarekin. Gainera, bara edo makila erabiltzen dugu behe-soinuak ateratzeko", jakinarazi du Susana Plumedek, Leizarrako irakasleak.

Instrumentu garrantzitsua dela gaineratu du: "Behe-soinuak oinarrizkoak dira, eta tronboirik ez dagoenean zerbaiten falta igartzen da".



ARIZMENDI IKASTOLA

## Giro bikainean ospatu dugu Udaberri Jaia

Etorkizunetik etorritako bisitariak musikaren inguruko ibilbidea egitera gonbidatu gintuzten zapatuan. Guztiok elkartu ginen gero ikastolako konpartaren inguruan dantzan, herriko buruhandiek lagunduta. Lanbide Hastapenekoek gertatutako babarrunak eta aitonek erretako saiheski goxoa janda gustura egon ginen mahaian, eta Argitxoren bisitarekin bukatu genuen eguna.

OMUNITATEA GOIENA | ARIZMENDI IKASTOLA | ARETXABALETA

### OHARRAK

#### 'PIEZA ABSURDA' ANTZEZLANA GAUR

Obscena Familiar antzerki taldeak eskainiko du *Pieza absurda* lana gaur, egubakoitza, 20:00etan, Arkupen (sarrera, 4 euro). Matta andrea familiako matriarka da, eta saia-

tuko da tradizioak eta ohitura onak oinarri hartuta familia elkartuta mantentzen. Haren ohiko egun bateko gorabeherak erakutsiko dituzte oholza gainean Izaskun Martinez, Susana Llamazales eta Javier Estevez aktoreek.

#### ODOL ATERATZEA

Odol bankuko kideak etorriko dira datozen bi astelehenetan, maiatzak 23 eta 30, odola ateratzera; osasun etxean izango dira (16:30-20:00). A+ eta O+ odol motaren eskasia dagoela adierazi dute.



MURRUKIXO M.E.

## Cruz de Alda inguruak ezagutzen

Lokiz mendilerroan dagoen Cruz de Alda edo Perriain mendi inguruan (Araba) ibili ziren joan den domekan, maiatzaren 15ean, Murruxiko mendizale elkarteko hainbat kide. "Lainoa eta euria izan genituen, baina gustura ibili ginen, benetan toki polita da eta", jakinarazi du Iñaki San Migelek. Santikurutze Kanpezun bazkaldu zuten gero, eta egun-pasaren ostean itzuli ziren etxera.

# "Berriz elkartzeko eta ospatzeko" dena gertu dago Almen ikastetxean

- ▶ Almen ikastolaren 50. urteurrenako festa antolatu dute ekainaren 4rako
- ▶ Kirol eta kultur jarduera ugari antolatu dituzte egun osoko jaiari



Eguaztenez egindako prentsaurrekoan. | MAITE TXINTXURRETA

**IMANOL BELOKI** | ESKORIATZA  
Eskoriatzako Ferixaren egunean, ekainaren 4an, Almen ikastetxeak 50. urteurrena ospatuko du festa giroan. Egun osoko jaiari egongo da Almen gunean, eta Eskoriatzako ferian eguerdira artekoa. Eguerdian bat egingo dute bi jaiak.

**Bazkarirako txartelak salgai**  
14:30ean, ikasle ohiak, langile ohiak... batzeko bazkaria egingo da Almenen, eta sarrerak salgai daude dagoeneko: Txukun-en (Arrasate), Belar Metan (Aretxabaleta), Azkoaga Hotelean (Eskoriatza) eta Almengo idazkaritzan; maiatzaren 27ra arte. Hala ere, aukera ezberdinak izango dira bazkaltzeko: txosnetan ogitarte-koak izango dira, etxetik eramanda bazkaltzeko gunea izango da,

eta kiroldegian egingo den bazkarian ere jan daiteke.

**Erakusketa Eskoriatzan**  
Maiatzaren 25etik 28ra, Almenek 50 urteotan batu dituen argazkien erakusketa egingo da ikusgai kultura etxean. Astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara.

Almen guneko sarreran eskultura berria jarri dute, ikasleek eurek egindako lanarekin osatua izan dena. Tamaina desberdineko lau tutuk osatzen dute, eta ikasleek margotutako harriz betetzen joango dira. Haren ondoan zuhaitz bat landatu dute, urki bat, duela berrogeita hamar urte-tik bertan dauden beste zuhaitzen alboan hazten joango dena. -Informazio gehiago, 6. orrian-

## EGITARAUA

**10:00** Kirol ekintzak: futbola, saskibaloia, eskubaloia eta gaztetxoentzat krosa

**12:45** Futbol partidu berezia.

**11:00** Zumba herrikoia eta ikastola bisitatzeko aukera.

**12:00** Bertso saioa: Jon Sarasua, Amets Arzallus, Jon Maia, Jokin Labaien...

**13:30** Torrebasoko igoera.

**14:30** Bazkaria

**15:30** Ikasleen kontzertuak

**16:30** Screammers & Sinners

**17:45** Akerbeltz

**20:00** Trikitilariekin herrietara.

Egun osoan zehar: txosnak izango dira.

## Angel Oiarbideren eta Xabier Ezeizabarrenaren hitzaldia

Erain Eskoriatzak antolatuta, erabakitze eskubideari buruzko hainbat atal joratu zituzten; tartean, galdeketa berme juridikoa eta herri ikuspegia

**XABI GOROSTIDI** | ESKORIATZA  
Angel Oiarbidek eta Xabier Ezeizabarrenak hitzaldia eskaini zuten eguaztenez Zaldibar antzokian. Gure Esku Dago ekimeneko bozeramaile Oiarbide erabakitze eskubidearen herri ikuspegiari buruz mintzatu zen. Ondoren, Xabier Ezeizabarrena abokatu eta EHUko irakaslea berme juridikoari buruz mintzatu zen. "Subiranotasun nazionalari buruzko erreferenduma egin baino lehen, ezinbestekoa da aurretik barneko adostasuna bermatzea, ondoren estatuarekin negoziatzeko. Gustatu edo ez gustatu, momentu honetan Espainiako Estatuaren barruan gaude, eta gure arteko akordiorik zabalena beharrezkoa da galdeketa bat planteatzeko". Eskoziako eta Quebecoko prozesuak jarri zituen



Bi hizlariak Zaldibar antzokian. | MARI KARMEN ARRIETA

bi bide eredugarri bezala. Eskoziako *devolution of powers*-en eta Euskal Herriko eskubide historikoen arteko antzekotasun juri-

dikoa aipatu zuen. Hala ere, britainiar estatuaren eta espainiarren jarrerak ezberdindu zituen.

## Ikasleek 'Txomin Txapel' eguna ospatuko dute festa giroan

**I.B** | ESKORIATZA  
Goizean hasiko da *Txomin Txapel* eguna: 10:30ean, elkar ezagutzeko jolasekin, aparkalekuan. Amaitzean, maskarada (kaperan) eta tobera (klastroan, ikasle-irakasle arteko tira-birak interpretatuko dituzte). Eguerdian, triki-poteoa egingo dute ikasleek, bazkarira joan aurretik (bazkaria 15:00etan aparkalekuan izango da). 150-160 pertsona izango dira; bazkalostea Ane Zuazubis-

kar eta Asier Galartza bertsolarien girotuko dute. Bestalde, txosna egingo da 15:00etatik 01:00ak arte, eta bertatik aterako da 18:00etan *elektrotxufila*. Hala, jai giroan, herrira zabalduko dute festa. Honekin batera, *alkolinpiadak* egingo dira, herriko txoko ezberdinetan alkohola erabiliz jokoak eginez. Eta amaitzeko, kontzertuak izango dira: 20:30ean, Gaitzerdi erromeria, Pecozza United... besteak beste.



LUIS EZEIZA HERRI ESKOLA

## Homofobiaren aurka

Luis Ezeiza Herri Eskolako jolastokian aniztasunaren ortzaderra margotu zuten ikasleek eta irakasleek martitzenean. Eta haurrek euren inguruko aniztasun ereduak marrazki bidez islatu zituzten.

## Herriko zazpi elizateak zeharkatuko dira mendi martxan

Elizateen VIII. mendi martxa egingo da domeka honetan. Bi urtetik behin egiten den martxa da, eta edizio bakoitzean norabidea aldatzen da. Aurten, 31 kilometroko bidea egingo da, eta desnibela 1.988 metrokoa izango da. Irteera 07:00etan plazatik izango da eta hau izango da ibilbidea: Plaza-Mazmela-Zarimutz-Marin-Apotzaga-Gellao-Mendiola-Bolibar-plaza.

Aingeru Guarda ibilbidea, 23

627 140 961 | [furgo@ibiltariak.com](mailto:furgo@ibiltariak.com)

20540 Eskoriatza, Gipuzkoa

**IBILTARIAK**  
CAMPER EKIPAMENDUAK

[www.ibiltariak.com](http://www.ibiltariak.com)

Frutería MARTIN Frutatería

**FRUTAN ETA TXARKUTERIAN ESPEZIALISTA**

San Juan kalea 12, behea Tel. 652 77 53 58



Plazan aparkatzea debekatuta dagoela dioen seinaleari herritarrek ez diote kasurik egiten. | MAIDER ARREGI

## Zirkulazio araua landuko dute Hirigintza batzordean

Kreditu aldaketa eta EH Bilduren 'fracking'-aren aurkako mozioa onartu dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Eguaztenean egin zuten Antzuolako ezohiko osoko bilkura. Puntu garrantzitsuenetako bat zirkulazio ordenantzen hasierako onospena izan zen. Hau, baina, ekaineko osoko bilkuran lantzeko atzeratu zuten. "Forma kontua izan da; Hirigintza batzordean azaletik hitz egin zen gai honetaz. Hala, EAJko bozeramaileak, gehiago lantzeko asmoz, eskatu digu Hirigintza batzordera berriro eramateko. Horregatik, zirkulazio araua abian jartzeko proposamena ekainean onartuko dugu", azaldu du Beñardko Kortabarria alkateak. Eta behin lehen faseko proposamena onartuta, araua betetzen ez dutenek isuna jasoko dute. "Aparkatzea debekatzen duten eta norabide debekatuak adierazten dituzten seinaleak

badauden arren, inon ez dago idatzita errespetatzen ez dutenek zigorra jasoko dutenik. Hau da, orain arte ez daukagu zirkulazio araudirik herrian. Horregatik, hau onartu eta gero, udaltzainak zigorrak jartzeko eskumena izango du", argitu du.

### Kreditu aldaketa

Aho batez onartu zuten EH Bilduk eta EAJk udaletxeko obra egiten jarraitzeko Udal gobernuak eskatu gura duen kreditu aldaketa. "Udaletxea eraikin zaharra da, eta igogailua egiten hasi ginen, eta egin dugu; baina, artxiboraino iritsi ginenean konturatu ginen instalazio elektrikoa berritzea komeni zela eta momentua oraintxe zela, behin tabikea zulatuta, eta ez gero", azpimarratu du. Hala, diru kopuru bat eskatuko

du Udalak, azaldu diren lan txiki horiek egiteko asmoz.

### 'Fracking'-aren aurka

Aho batez onartu zuten EH Bilduren *fracking*-aren aurkako mozioa. "Bere garaian, Legebiltzarrak onartu zuen *fracking*-aren aurkako lege proposamena. Erabakiak talde politiko gehienek adostasuna izan zuen. Erabaki horrek EAEn, nolabait, *fracking*-ari ateak ixteko balio izan du. Gerora, baina, Espainiako Gobernuak lege hori atzera botatzeko ahaleginak egin ditu eta proposamena suspentsioan geratu da. Orain, guk Espainiako Gobernuari exijitzen eta eskatzen diogu atzera egiteko. Bere garaian Legebiltzarrean bezala, Antzuolan ere EAJko eta EH Bilduko zinegotzien adostasuna lortu da".

## Bizikidetzaren garrantzia azpimarratuz

M.A. | ANTZUOLA

Elkarbizitza proiektua sustatzeko, murala margotu zuten iaz eskolako patioan. Mural hori margotzen aritu zireneko argazkiak jarri dituzte orain ikus-

gai, maiatzaren 25era arte. "124 argazki inguru daude; pena da, parte hartu zuten pertsona guztiak ez direlako agertzen, baina esker mila guttiei! 0 eta 78 urte bitarteko 60 pertsonatik gora

ibili ginen hiru egunean zehar buru-belarri herrian", azaldu du ekimenaren bultzatzaile Maite Telleriak.

### Esker ona

Iaz, gaztetxoek laguntzarekin egin zuten murala eskolako patioan, eta Telleriak oroitzapen onak ditu. "Herritarrek eskolari egin zioten ekarpena eskertzeko asmoz jarri dugu argazki erakusketa ikusgai. Eta pasatu genituen momentu onak gogorarazteko osatu dugu erakusketa hau eskolako umeen laguntzarekin. Herriko eskolako patioa orain, askoz politagoa dago!", kontatu du Maite Telleria dinamizatzaileak.



Eskolako patioan maiatzaren 25era arte daude argazkiak ikusgai. | M. ARREGI

## Herri bazkaria, musika, goitibeherak eta festa

Gaur eta bihar, nobedadez beteriko San Isidro festak ospatuko dituzte antzuolarrek

M.A. | ANTZUOLA

Herriko baserriarren ortuko produktuak, artisau lanak eta ganadua izango dira biharko San Isidro azokan protagonistak (09:00-13:00). Aurten, baina, Udalak baserriarren eguna indartu gura izan du eta berrikuntzaz eta ekintzaz beteriko festa antolatuko du. Zapatuan, 13:15ean, Gure Esku Dago-k antolatuta, Zurrategiko kioskoa apainduko dute. Kantua ere aurkeztuko dute, gainera. Lehenengoz, herri bazkaria egingo da eskolako

patioan. Nork bere janaria eramane beharko du. Nobedade moduan, 16:00etan, goitibehera txapelketa egingo da (Iralatik Ibarrera).

Eta iluntzean eta gauean, Trikiteens taldearen erromeriaz gozatzeko aukera egongo da Zurrategi plazan.

Eta gaur, egubakoitza, bertso jaialdia egongo da Torresorran, 22:00etan. Unai Agirre, Alaia Martin, Mikel Artola eta Unai Mendizabal bertsolariak ariko dira.

## Joseba Permachek Euskal Herriaren bestelako begirada ekonomikoaz eta sozialaz jardungo du

*Independentzia vs langabezia eta prekarietatea* hitzaldia antolatuko du Antzuolako Sortuk maiatzaren 25erako. Orlanen 19:00etan egingo da solasaldia eta Joseba Permachek Sorturen hirugarren sozio-ekonomia aldizkaria aurkeztuko du. "Euskal Herriaren bestelako begirada ekonomiko eta sozialean oinarrituta, nola Espainiara lotuta jarraitzeak langabezia eta prekarietatera kondenatzen gaituen azalduko du, besteak beste", diote Sortutik.

## Lai Bedosekin "Sormenaren bila gizarte erakundeetan" tailerra egingo da maiatzaren 28an

Lau orduko tailerra izango da eta interes komuneko proiektu sozialak martxan jarri nahi dituzten gizarte erakunde, norbana eta taldeei zuzendua dago. Maiatzaren 28an, zapatuan, Orlan etxean egingo da, 10:00etatik 14:00etara. Doako ikastaroa da eta izena aurrez eman beharra dago (20 lagunendako plaza mugatua da-eta). Blog honetako inprimakia bete behar da, hain zuzen ere: <http://elkarhezitzen.blogspot.com.es>.

### NIRE USTEZ

PILAR ETXANIZ



## Hezkuntza, atzeraka?

**F**r ankismoaren azken-ondorengo urteetan asko zegoen egiteko hezkuntza eta eskola publikoa zeharo desprestigiatuta zegoen. Hala ere, bere aldeko apustua egin genuen, euskaldundu, demokratizatu eta pedagogikoki aldatzeko. Errebindikazio mugimendu bat sortu eta sendotzen joan ginen eta, profesionalki formatuz, eredu pedagogiko berriak eraikitzen. Denon arteko lanari esker, gauzak asko aldatu ziren. Baina berrogei urteren bueltan kezkatzen nauten gauzak ikusten dihardut: hezkuntza-komunitatearen autonomia murriztu eta eskola kontro-

latzeko probak egiten zaizkie ikasleei, dakigunean ez dutela balio hezkuntzaren kalitatea ebaluatu eta hobetzeko, eta ez datozela bat kontrastatutako praktika pedagogiko aurrerakoiekin. Garai baten, eskola publikoa euskalduna ez zela-eta askok ez zituzten seme-alabak bertara eramaten. Euskaldundu zen. Orain, *mamua* etorkinak dira, asko omen daude eskola publikoan; nola eramane gure umeak? Hezkuntza arduradunek aspalditik dute honen berri, baina ez dute hartu hezkuntza sistema berdintzaile eta bidezkoa sustatzeko beharrezko neurriak. Hezkuntzak debate sozial sakona merezi duela nago, momentuko prentsa-titularrak interesatuetatik kanpo.

**"Hezkuntzak debate sozial sakona merezi du"**



# Abesti herrikoiak eta zarzuela doinuak elizan

- ▶ Kontzertu liriko eskainiko du Arrasate Musikalek gaur, 19:00etan
- ▶ Tere Gonzalez irakaslearen esanetara arituko dira; tartean, Maria Izaga

ARANTZAZU EZKIBEL | ARAMAIO

Goi mailako kontzertua entzuteko aukera egongo da gaur, bariakua, San Martin elizan, 19:00etan. Arrasate Musikaleko kideek kantu kontzertua eskainiko dute.

Bi zati izango ditu emanaldiak: lehenengoan, abesti herrikoiak entzungo dira; eta bigarren zatian, lirika doinuak izango dira nagusi: "Abesti herrikoiak eta zarzuelan ezagunak diren abestiak eskainiko dituzte", azaldu du Bittor Kortabarria musika zaleak eta Arrasate Musikaleko bazkideak.



Arrasate Musikalek 2014an eskaini zuen kontzertuko unea. | IMANOL SORIANO

## Aramaioarrak kantuan

Maria Izaga sopranoak zabalduko du emanaldia *I dreamed a dream* -*Los Miserables*- abestia-ekin. Emanaldian parte hartuko duen aramaioar bakarra izango da Izaga. Abesti horrez gain, *A thousand years* -C. Perri- eta Mozarten *Ridente la calma* ere abestuko ditu. Gainerako abeslariak izango dira: Amaia Zubiria, Mertxe Salaberri, Joserra Men-

dizabal, Mikel Izurrategi, Katya Martin, Enrike Altuna, Ruth Osinaga, Susana Vazquez, Cristina Cubillo eta Lander Oiangueren.

Euskal kanten artean, Benito Lertxundiren *Oi ama euskal herria*, Olaizolaren *Aurtxo Politia* eta Usandizagaren *Mendi-mendiyan* eskainiko dituzte. Guztira, 25 kantu edo obra eskainiko dituzte gaurko emanaldian.

## Doan izango da

Arrasate Musikaleko kantu eskolako irakasle Tere Gonzalez gidaritzapean abestuko dute, eta Eduardo Arzamendi eta Marta Izagirre izango dira pianoan laguntzen. Emanaldia doan izango den arren, borondatea jasoko dute.

Arrasate Musikalek eta Aramaioko kultura sailak antolatuko dute saioa, elkarlanean.

## 'Txirrinka' ekimena bihar iritsiko da Aramaioara, Legutiotik

AHT eta beste zenbait proiektu erraldoiren aurkako *Txirrinka* ekimena bihar iritsiko da Aramaioara. Arabako zutabea 17:52an sartuko da Aramaion, A-2620 errepidetik. Orixol mendi elkarrean eramango du testigua. Hurrengo zatia Gazte Asanbladak eramango du, A-2620 eta A-3941 errepideetan. Aramaion egingo dute lo parte-hartzaileek. Hurrengo egunean, Aramailur elkarrean eta Bertso Eskolak eramango dute testigua Arrasateraino.

## Donostia 2016ren eskutik bakarrizketa saioak egingo dituzte

Donostia 2016ren barruan *Bidean* ekimena jarri dute martxan; bada, ekimen horren barruan, domekan, bederatzigarren etapa egingo dute, Leintz Gatzaga eta Arrasate artekoa. 19,3 kilometroko ibilbidean bi geldialdi egingo dituzte Aramaion: Kruzetan eta Untzillan. Bakarrizketa saioak eskainiko dituzte aipatutako auzoetan. 11:45etik 12:15era bitartean izango da Kruzetako saioa -gaztekeraz- eta 14:15etik 14:45era Untzillako -euskaraz-.

## NIRE USTEZ



MANEX  
ARRIOLABENGOA

## Isiltasunaren doinua

Zein garrantzitsua den isiltasuna eta honek eskaintzen dizkigun doinu, erritmo, dantza eta ideia ikusezinak. Zein polita den, isiltasuna janzten ausartzen garen unea. Norbaiti zerbait esatean, edota, mendian gora gure oinen pausak entzutean, baita, pentsamenduak hegan direnean eta are gehiago musika entzutean.

Musika, esku artean ura botako baligute bezala, ihesi doa. Beldur da eta ez du inork harrapatzerik nahi. Beraz, momentua gozatzeko eta aprobetxatzeko irakasten digu. Esate baterako, ez dut berdin sentituko atzo entzun nuen abesti berbera gaur. Gainera, musikak, adimen emozionala garatzen laguntzen digu. Arrazionalki pentsatzera ere behartzen gaitu. Baina batez ere harremanak sortzen laguntzen dizkigu. Horregatik, proposamen bat bota nahi dut udarantz begira. Gazte edo heldu, bertsolari edota txalapartari, edozein instrumentalari, dantzari aktore... elkar gaitzen uda aldera Aramaioko parkean, ondo pasatzeko asmoarekin eta herrian giro eder bat egiteko helburuarekin. Anima gaitzen gure denbora, kultura bilakatzen. Isiltasunetik geure ahotsa sortuz.

## Arabako bertsolari gaztetxoak Aramaion

A.E. | ARAMAIO

Arabako bertsolari gaztetxoaren 21. eskolartekoaren finala jokatu dute bihar, zapatua, Aramaion. *Oinak buruan* lelopean antolatutako eskolartekoak da egiten dabilzana.

Gazteen arteko topaketa Otazan eta Arabako eskualdeetan umeen topaketak egin ondoren jokatu dute finala. Gainera, Arabako haur eta gaztetxoaren bertsolari eskolen eguna ere izango da. Kultura etxean izango dira bertsolari saioak. Prestatu duten egitaraua da: 11:00etan bertsolari saioak; 11:30ean finala -Martin Abarrategi aramaioarrak abestuko du-; 13:00etan bertsolari triki poteoa; 15:00etan herri bazkaria egingo dute; eta, 16:30ean herri olinpiadak.

## Debagoiena eta Goierri, erabakitze eskubidearen alde bertsoan

A.E. | ARAMAIO

Bertsolari saioa egingo dute bihar, zapatua, 20:00etan, kultura etxean -sarrera 5 euro-. Erain Debagoienako antolatuta egingo dute saioa: modu horretan, bi eskualdeak -Debagoiena eta Goierri- erabakitze eskubidearen norabidean jarriko dituzte.

"Ekainaren 5ean, Debagoieneko herriekin eta Aramaioekin batera, goierritarrak ere erabakitzen hasiko dira, eskualdeko herri guztietan galdeketa eginez", azaldu dute Eraineko kideek. "Bada, bi eskualdeen arteko topaleku izango da Aramaio zapatuan", diote. Galdeketa azken txanpa bete-betean, "bertso-saio ederra" antolatu du Erain Debagoieneko herriekin eta Aramaioekin batera, goierritarrak ere erabakitzen hasiko dira, eskualdeko herri guztietan galdeketa eginez", azaldu dute Eraineko kideek. "Bada, bi eskualdeen arteko topaleku izango da Aramaio zapatuan", diote. Galdeketa azken txanpa bete-betean, "bertso-saio ederra" antolatu du Erain Debagoieneko herriekin eta Aramaioekin batera, goierritarrak ere erabakitzen hasiko dira, eskualdeko herri guztietan galdeketa eginez", azaldu dute Eraineko kideek.

Goierriko bi bertsolari handi etorriko dira Aramaioara: Iñaki Murua eta Aitor Sarriegi. Beraiekin batera, Paula Amilburu aramaioarrak eta Jokin Labayen arrasatearrak kantatuko dute, Manex Agirre gai-jartzaiaren aginduetara.

Sarrerak kultura etxean eskuera daitezke.

## Mus txapelketa zapatuan

Hilaren 14an jokatu dute muskanporaketa Jone Arriolabengoa eta Mikel Ruiz de Azua izan ziren irabazleak. Biher Aretxabaletan jokatu dute finalerako txapelketa lortu du bikoteak; baita bigarren izan ziren Oier Kortabarriak eta Jon Errastik ere.



Paula Amilburu bertsotan. | GOIENA



IMANOL SORIANO

## Produktu garbia eta ekologikoa

Aramaion egindako Lorabarri azokan giro polita izan zuten zapatu goizean: goizak aurrera egin ahala plaza bete egin zen eta giro aparta izan zuten. Jokin Orobengoa antolatzailearen esanetan, produktu garbia eta ekologikoa erakustea izan da azokaren helburua; Aramaio eta produktu ekologikoen erakusgarri.

## Etxe osasuntsu baten bizitzeko faktoreak zeintzuk diren azalduko dute

A.E. | ARAMAIO

Radiestesia eta geobiologia ikastaroa eskainiko dute Sastiñan. Radiestesiaren hastapena eta historia erakutsiko dute, eta baita pendulo eta barillen erabilera ere. Gainera, etxe osasuntsu batean bizitzeko faktoreak zeintzuk diren azalduko dute. Hainbat neurketa egiten erakutsiko dute.

Prezioa: 150 euro

Ekainaren 4an eta 5ean izango da ikastaroa, Sastiñan. Zapatuan 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara eta domekan 10:00etatik 14:00etara.

Ikastaroaren prezioa 150 euro izango da -penduloa eta barillak barne-. Kontakturako telefono zenbakia da: 652 70 57 91 -Josu-.

## ELGETA

# Iraitz Lazkano: "Elgetako Udalaren egoera ekonomikoa kritikoa da"

- ▶ "Jasotako herentziekin" lotzen du Lazkanok egoera ekonomikoa larria
- ▶ Inbertsioak egiteko ezinbestekotzat jotzen du zorra berriz finantzatzea

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Goiena Telebistako *Harira* saioan izan da Elgetako alkate Iraitz Lazkano. Urtea beteko du laster alkate karguan, eta esan du Udal Gobernu berriak lehentasunak markatzen eman dituela lehen hilabeteak; gehienbat, lehentasun ekonomikoa. Esku aldatzea "oso modu naturalean" egin dela adierazi du, eta esan du oposizioarekin harremana "oso zuzena eta ona" dela. Udalaren egoera ekonomikoa "kritikoa" dela esan du. "Udal Gobernu honek jaso duen egoera ekonomikoarekin eta jaso dituen herentziekin udaletxe hau ez da bideragarria, hainbat finantza neurri hartu ezean", esan du. Azaldu du zor bizia 600.000 eurokoa dela (%40), baina zor horri bi kalte-ordain gehitu behar zaizkiola: 800.000 bat eurokoa bata eta 780.000 eurokoa bestea. "Ez badugu dugun mailegua luzatzea lortzen —berrez finantzatzen—, inbertsioetarako negatiboan ginateke. Lortzen badugu mailegua epekatzea, posible izan daiteke urtero inbertsioetarako 0 eta 30.000 euro bitartean edukitzea. Horrek esan gura du izango dugula oso-oso aukera gutxi edozer gauza egiteko", esan du Lazkanok. Alkateak azpimarratu du Udal Gobernuak ez dituela udal zerbitzuak murriztuko.

## Inbertsio nagusiak aurten

Argiteria publikoa led sistemara pasatzeko lehen urratsak egin gura ditu Udalak. "Identifikatuko dugu non dagoen argindar kontsumo handiena eta non behar dugun argindar kontsumo hori jaitea. Interesgarria da ingurumen ikuspuntutik zein ikuspuntu ekonomikotik". Kiroldegiko kanpoko kantxan, berriz, gutxieneko segurtasun neurriak hartu gura dituzte. Besteak beste, koskak kendu, lurra lautu, marrak margotu eta saskibaloï saski berriak ipini. Alkateak jakinarazi du ehun bat mila euro dituela Udalak, aurten, inbertsioetarako.

Pertsona nagusiendako kanpoko parkeari dagokionez, hurrengo urterako iragarri du Lazkanok: "Betiere, ekonomiaren arabera".

## Espaloia kafe antzokia itxita

Alkatearen esanetan, itxita jarraituko du antzokiak, gutxienez, opor osterarte. Azken alokairuduna joan ostean aretoaren egoera zein den aztertu dute. Soinu eta argiteria ekipoak nahiko egoera onean aurkitu dituztela esan du Lazkanok; ez, horrela, ostalaritza arloko tresneria. "Hor lan itzela izango dugu gauzak konpontzen, garbitzen eta legedira egokitzen", adierazi du.

Elgetako alkate Iraitz Lazkano, martitzenean, Goienako *Harira* saioan. | L.Z.

Ekain erdialderako mahai-inguru bat iragarri du, non hainbat kultura kudeaketa eredu elkartuko dituzten Elgetarako egokiena zein izan daitekeen argitzeko ahaleginean.

## Euskara bultzatzen

Udal Gobernuak gura du Elgeta euskararen arnagune izaten jarraitzea. Helburu horrekin martxan ipinitako ekimenek harrera polita izan dutela esan du alkateak. Elgetan Berbetan mintzapraktika dinamika eta Aisa harreara ikastaroa nabarmendu ditu. Uemak eskaintzen duen zerbitzuari dagokionez, oso interesgarritzat jo du. "Uemak eskaintzen digu ez daukaguna: teknikari

baten lana, aholkularitza, euskara planak adosten ditugu...".

## Hiri-hondakinak

Lazkano gustura azaldu da hiri-hondakinen bilketarako Elgetan dagoen sistemarekin. Emaizak ematen dituela dio; izan ere, bereizte maila, herrian, %78 da. "Baina badago non hobetu", adierazi du, eta domeka eguerdian herriko plazan egindako karakterizazio ariketaren berri eman du; izan ere, herriko hainbat errefusa-errefusotatik hartutako 52 bat kilo errefusatik %38 soilik zen benetan errefusa. "Gainerako guztia zen, batez ere, organikoak, papera eta kartoia, eta plastikoa".

## Ibilbide tematikoa

Intxortako ibilbide tematikoaren bueltan apirilean egindako Erresistentzia Egunak emandakoarekin ere pozik azaldu da Lazkano. "Erresistentzia Egunak oihartzun handia izan du. Indartuta atera dira, bai justizia eskaera, bai aldarrikapen feminista".

## Ferixa Nagusiko jaiek

"Zati handi bat lotuta dago", aurreratu du Lazkanok. Jaiek 40.000 euroko aurrekontua dutela esan du, eta aurten DJ Bull-ek eta Zopilotes Txirriaos taldeak girotuko dute bariku gaua. Eguenean, berriz, Dantzadi taldeak joko du. Herritar batek egindako galderari erantzunez, alkateak jakinarazi du Udalak, aurten, ez duela asto karrerarik antolatuko. Lazkanoren esanetan, urtero jasotzen dira kexak, eta ikusi egiten da ez dagoela jenderik parte hartzeko prest. Azaldu du aho batez hartu zutela erabakia EH Bilduko zein Gu Geu Elgeta plataformako kideak ordezkatuta zeuden batzorde batean, eta bertaratutako herritarren oniritziarekin.

## Garraio publikoa

Beste herritar batek egindako eskaerari erantzuna emanez, Lazkanok onartu du Bergararako garraio zerbitzu publikoan badaudela findu beharreko hainbat kontu. Esaterako, ordutegian izaten diren zenbait hutsune betetzea eta eskaripeko zerbitzua eskatzeko bideak erraztea: "Hain nekeza suerta ez dadin".

## Elkarrizketa osoa:

eskaeratu QR kode hau poltsikokoarekin.



## OHARRAK

### IPIUIN ORDUA UMEENDAKO

Gaur, liburutegian, ipuin kontalari saioa. 16:40an bost urtetik gorakoendako eta 17:25ean bi urtetik gorakoendako. Euskaraz. Sarrera irekia.

### HIRU TXIRLO TXAPELKETA

Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako zazpigarren jardunaldia bihar, zapatuan, 17:00etan, Elge-

tako bolatokia. Txapelketa izanda ere, parte hartzea irekia da.

### BASERRIKO PLASTIKOEN BILKETA ZERBITZUA

Debagoieneko Mankomunitateak baserriko plastikoak jasoko ditu martitzenean, hilak 24. Interesatuek aurrez eskatu behar dute zerbitzua 943 76 25 47 telefono zenbakira deituta.

### KANTU ETA DANTZA EGUNA

Domekan, hilak 22, Kantu eta Dantza Eguna egingo dute Elgetan, goizez zein arratsalde. Ikus 41. orria.

### GARBIGUNE IBILTARIA

Eguaztenean, maiatzak 25, Salbador kaleko plazan izango da garbigune ibiltaria, 10:00etatik 21:00etara.

## FRONTENIS TXAPELKETA

Aste honetako jardunaldiko partidu batzuk atzo, eguna, jokatu zituzten. Gainerakoak domekan jokatuko dituzte, 11:00etan.

### AURREKO JARDUNALDIKO EMAITZAK

Mikel Arkarazo-Josu Aranzabal / Josu Mañarikua-Beriat Arabaolaza	19-25
Eneko Maqueregi-Andoni Elorza / Imanol Albizu-Julen Barrutia	25-14
Imanol Albizu-Julen Barrutia / Mikel Arkarazo-Josu Aranzabal	14-25
Maitena Mañarikua-Ane Martin / Idoia Serna-Mireia Rubio	11-25
Miren Argi Zeziaga-Liemi Mendizabal / Beatriz Zabala-Rakel Zamaioa	12-25
Beatriz Zabala-Rakel Zamaioa / Idoia Elkoro-Iratxe Bravo	22-25
Idoia Serna-Mireia Rubio / Beatriz Zabala-Rakel Zamaioa	25-21
Idoia Elkoro-Iratxe Bravo / Idoia Serna-Mireia Rubio	25-19

## LEINTZ GATZAGA

# Emozioen gaineko tailerra gaur kultura etxean

18:00etan izango da, Gurel guraso elkarteak eta Bideberri mankomunitateak antolatuta

ENEKO AZURMENDI | LEINTZ GATZAGA

Emozioak erregulatzeke trebetasunak garatzeko eta gurasoan eta haurren emozioak identifikatzeko helburuarekin, *Nola landu*

*hezkuntza emozionala familiarik?* tailerra egingo dute gaur, 18:00etan, kultura etxean.

Aitziber Gorosabel Gurel elkarteko kideak dio aukera "egokia"

dela haurren eta gurasoan arteko emozioak lantzeko. "Gurasook haurrei gure emozioak nola transmititzen diegun aztertzeke eta, ahal den heinean, hori hobetzeko aukera ematen du tailer honek", azaldu du.

Hainbat gai landuko dira tailer honetan: nork bere emozioen kontzientzia hartzea, emozioei izena ematea, besteen emozioak ulertzea, emozioen eta sentimenduen erregulazioa, emozio bikoitza autosortzeko gaitasuna...

Batez ere, lehen hezkuntzan dauden haurren familiei zuzendutako saioa izango da.

## Pintaketa pilotalekuko horman

Erain Gatzagako kideek, pasa den astean, ekainaren 5eko galdeketa herritarrei egingo zaien galdera marraztu zuten herriko pilotalekuko paretan *-Nahi al duzu izan euskal estatu independente bateko herritar?-*.

Horrez gain, galdeketa laguntzeko boluntario bila dabilta.

Egun horretan mahaian egon nahi duenak maiatzaren 23tik 30era bitartean eman beharko du izena, Labidea dendan.

Behin eskakizun guztiak jasota, ekainaren 5eko aste hasieran egingo dira publiko mahaia osatuko duten bederatzi pertsonen izenak.

Egun horretan, galdeketa gain, beste zenbait ekintza egitea ere pentsatzen ari da antolakuntza. Hala ere, oraindik ez dago ezer zehaztuta.

# KIROLA

PILOTA

Aitor Mendizabal | Aspeko pilotaria

## "Partiduetan sufritzen jakin behar da, horrela egiten dira-eta tanto mordoa"

- ▶ Mendizabal III.ak bihar jokatu du bigarren mailako buruz buruko finala
- ▶ Gorka errioxarra izango du aurrean; oso ondo ezagutzen dute elkar

XABIER URZELAI | ANTZUOLA

Urte batzuk pasatu dira Aitor Mendizabalek [Antzuola, 1989] 2007an Elgetako Lau terdiko txapela irabazi zuenetik. Lau urte geroago (2011) egin zuen profesional moduan debuta, Asprekin, eta urte hartan bertan bigarren mailako Lau terdikoa irabazi zuen. Euria ari du gaur -eguen goizean egindako elkarriketa da hau-, eta Antzuolako frontoiko babesean erantzun die Mendizabal III.ak GOIENAREN galderei. Patxadaz eta lasai, eta irribarrea galdu barik. Zapatuan, ordea, 18:00 aldera -jaialdia 17:00etan hasiko da-, Labriteko kantzara bestelako Aitor Mendizabalek egingo du salto; nerbio hutsa izango da orduan.

**Berrito final baten atarian, urteak aste berezi hau bizi barik. Gustura hartzen da?**

Bai, gauzak ondo egin diren seinale izaten delako. Arlo fisikoan aste lasaia izaten da, lanak egin da daudelako. Badaude beste zeregin batzuk, komunikabideekin egotekoa, esaterako, baina gustura egiten diren lanak dira, atzetik zerbait ona datorren seinale izaten delako.

**Zer aldatu da 2007an Elgetan txapela jantzi zenuenetik?**

Gauza asko, seguruenik. Orduan oso gaztea nintzen, eta pilota nuen afizio. Gaur egun, berriz, afizio hura ofizio bilakatu da, eta gutxi dira zaletasunetik bizi ahal direnak. Alde horretatik kontziente naiz zorte handia daukadala, gutxik lortzen dute halakorik.

**Bost urte final batera iritsi barik, asko kostatzen den seinale.**

Bai; urte hauetan hainbatetan geratu naiz finalaren atarian. Birritan eskuz binakoan, buruz burukoan beste bi alditan... Garbi dago gainontzeko pilotarietara ere izugarri jokatzeko dutela, eta gauza asko behar dira finalera iristeko: ondo jokatzeko, zortea aldeko izatea, lesioek errespetatzea... Hala, final honetara iritsi naiz, eta oso pozik nago.

**Pilota aukeraketan Gorkak eta biok loreak bota zenizkieten elkarri.**

Nik debuta egin nuenerako hura jada enpresan zegoen, askotan jokatu dugu elkarren kontra, eta ondo konpontzen gara. Hasiera-



Aitor Mendizabal, eguen goizean herriko pilotalekuan. | XABIER URZELAI

ko urteetan bere buruaz zorrotzegia zelako-edo ez zuen zeukan guztia erakusten, baina azken urte eta erdian oso maila onean dago Gorka, lehen zuen presio hori gainera kendu du, eta ikusgarri dabil. Eta horren erakusle da azken urtean dagoeneko bi txapel jantzi dituela, eta hirugarrena irabazteko finalean dagoela. Kontrario gogorra izango da, seguru.

**Dagoeneko garbi izango duzu finalean zeintzuk diren egin beharrekoak, eta zer ez zaizun komeni.**

Bai, finala aurrez irakurrita eramanen dugu, baina gero, partidu bakoitza ezberdina da. Nirea garbi dago, sakean ondo ibili, posible dudanean tantoa amaitzen ahalegindu, eta sufritzea tokatzen denean, sufritzen jakin. Eta, betiko moduan, garrantzitsua izango da ondo hastea. Ea partidura kontzentratuta joaten naizen, eta

**"Lehen mailan dabilzanek dena dute, kolpea, abiadura..."**



Rezusta, Taintaren kontra irabazitako partiduan. | GOIENA

hasieratik ondo ekiten diogun. **Labrit gustuko frontoia duzu?**

Bai, alde horretatik ez daukat kezarik. Esango nuke dagoen frontoirik neutroena dela, eta noblea. Akaso, Asegarsekoek gehiagotan jokatzeko dute frontoi hartan, baina finalean gauden biak Aspekoak gara; hortaz, ez

**"Nire ezaugarriek ahalik eta etekin handiena ateratzen ahalegintzen naiz"**

Gorkak eta ez nik ez dugu bertan askotan jokatu. Eta, bertako harmailetan egoten da giro onenetakoa; hori ere garrantzitsua da. **Badirudi orkatilatik kili-kolo dabilela Gorka; zentzu horretan, partidua luzatzea komeni zaizu?**

Ez dut uste arazorik izango denik. Partidua luzatzen bada,

**"Labrit frontoi neutroa da, eta noblea; gutxi jokatu dugu han"**

molestia gehiago izango ditu orkatilan, baina dagoeneko bi aste pasa dira bihurritua egin zuenetik, eta nahiko errekupe-ratuta egongo da. Finalean ez dio eragozpen handirik sortuko.

**Zure gorputzak baditu ezaugarri jakin batzuk; indartsuena izan barik, azkarrenetakoa izango zara, seguru.**

Gaur egungo pilotan indarrak berebiziko garrantzia dauka, eta gazteen artean ikusten da hori, denek gura dute indartsu egotea. Alde horretatik, apur bat mugatuta nago, nire kolpea ez da beste batzuen bezain indartsua. Horren jakitun, beste ezaugarriek etekina ateratzen ahalegintzen naiz.

**Gorkak adierazi du ez zarela kontrario batera eroso, ez duzula inoiz amorerik ematen.**

Lehenago aipatu duguna, beste pilotari batzuek beste arma batzuk dituzte, eta nik baditut nireak. Esaterako, tanto guztietan ahalik eta gehien eusten ahalegintzen naiz, tantoa galdutzat ez ematen; beste modu batean esanda, sufritzen. Izan ere, partiduetan sufritzen jakin behar da, puntu asko horrela ateratzen dira eta.

**Akaso, finalerdia izan zen horren erakusle onena.**

Bai, izan daiteke. Bagenekien Tainta oso kontrario gogorra izan behar zela, eta sufritzea tokatuko zela. Sekulako klasea dauka, nahiz eta ez duen daukan guztia erakusten. Hala, partidu erdira arte oso lehia borrokatua izan genuen, eta hor aguantatzea, eustea zen klabea. Partiduaren tarte hartan eustea lortu nuen, eta ondoren, lehia apurta ahal izan nuen. Baina, partidu erdira arte, eustean egon zen gakoetako bat.

**Indarrean koska bat beherago egoteak mugatu zaitu lehen mailakoan artean egon ahal izateko?**

Garbi daukat baietz. Egun aurrean dabilen pilotari horien artean egoteko ezaugarri guztiak izan behar dira: kolpea, abiadura... Dena behar da. Ikusten da pilotari asko daudela behetik gora datozenak, baina ez direla Aimirren edo Irujoren mailara iristen, oso zaila delako. Horiek beste maila batean daude, eta zerbait berezia izan behar da horiekin borrokatu ahal izateko. Orain, Iker [Irribarria] da irten den azkena, eta azken asteotan erakutsi du 19 urterekin baduela zerbait berezia. Haren kolpea ez da askotan ikusten.

**Herriko pilotazaleak izango dituzu oraingoan ere ondoan...**

Bai, etxeok, lagunak... partidura etorriko dira, baina oraindik ez daukagu oso garbi zer den partidu ostean egingo duguna. Autobusa antolatu dute Labriteko joateko, batzuek Iruñean lo egiteko lekua ere hartu dute, badaezpada... Baina momentuan erabakiko dugu.

## FUTBOLA

# Sanpedrotarrak: joko zuzena maite duen kontrarioa izango du Mondrak

- ▶ Josu Zubiaren mutilek Pasaian jokatu dute bihar igoera faseko lehen partida, 15:30ean
- ▶ Trintxerpeko zelaia oso txikia da; zuri-moreek Antzuolan entrenatu dute aste barruan, ohitzeko

X.U. | ARRASATE

Iritsi da bi finaletako lehena. Mondrak igoera faseko joaneko partida jokatu du, zapatuan, kategoriako beste multzoan bigarren sailkatu den Sanpedrotarrak taldearen kontra (15:30, Trintxerpe). Hala, Josu Zubia entrenatzailearendako, talde horrek jada ez du sekreturik: "Aurten hainbatetan ikusi dut Sanpedrotarrak, eta talde moduan erabat ezberdinak gara. Oso garrantzitsua izango da zapatuko norgehiagoka, horrek baldintza dezake fasea; izan ere, Sanpedrotarrak talde beteranoa da, joko zuzena erabiltzen dute, eta euren zelaia Antzuolako baina txikiagoa da. Hala, han ez galtzea oso emaitza ona izango litzateke".

## Entrenamendua Antzuolan

Hain zuzen, Mondrak fasea behar den moduan prestatu gura izan du, eta, horregatik, Antzuolako Estalako berdegunean entrenatu ziren eguaztenean, neurri horietara egokitzeke. Lansaioa ez zen berezia izan, ez zuten apartekorik egin, baina entrenatzaile aretxabalek garrantzia eman gura izan dio jokalariek neurri horietara egokitzeke.

Kontrarioaren gainean galdetuta, berriz: "Sanpedrotarrak taldeak Urolaren antza duela esan genezake, eta egia da guri batere ondo ez datorkigun talde mota dela. Gainera, euren futbol zelaia mesede egiten die, daukaten joko zuzenari etekin handiena ateratzeko aproposa delako. Baina halako taldeen kontra prestatzen ere ibili gara urte osoan zehar, ligan hainbatetan jokatu behar izan dugu halakoen



Mondrako jokalariek, joan den zapatuan, sailkatu izana ospatzen. | J.I.

kontra, eta puntu asko batzea lortu dugu; horrenbestez, zapatukoak ez gaitu sorpresaz harrapatuko".

Hori bai, hainbat jokalariren hutsunea izango du Mondrak: "Gorka [Eraña] ez zen lehen lan-saioan entrenatu, ea Xabi Arribalaga itzuliko norgehiagokarako errekuera dezakegun, eta ikusteko dago Uribarrenen zigorra partidu batekoa edo bikoa izango den. Baja garrantzitsuak dira horiek, zalantza barik, baina urtean zehar euren ordez jokatu dutenek oso ondo bete dituzte hutsuneak, horrenbestez, ez dago arazorik".

## Autobusa, ostera ere

Ligako azkenaurreko norgehiagokan moduan, igoera fasean ere

etxetik kanpora zaleen babesa gura dute jokalariek. Jakinda, gainera, Pasaiake norgehiagoka horren garrantzitsua izango dela. Hala, biharko autobusa jarriko dute klubetik, 2 euroren truke, eta autobusa 14:00etan abiatuko

DATUA

## 90x53

METRO

Trintxerpeko zelaia berezia da, eta Gipuzkoako txikiena izango da. Antzuolakoak, esaterako, sei metro gehiago ditu luzeran.

da Garibaitik. Bertan lekua izateko e-posta idatzi behar da [mondraf@gmail.com](mailto:mondraf@gmail.com) helbidera.

## Datorren astean beste jai bat

Eta, Pasaian gertatzen dena gertatzen dela, datorren astean Mondrakoek beste kirol jai bat antolatuko dute Mojategin, igoera faseko azken partidura begira. Etxean jokatzeko batera, berdegunea askoz ere hobeto egokitzen da Mondraren joko estilora, eta hor abantaila izan beharko lukete.

## Aloñak Mutrikuren kontra

Ohorezko erregionalean, Oñatiko taldearendako denboraldia etxeko zaleen aurrean agurtzeko partida izango da domekakoa (16:30). Etxeko jokalarien aldeko apustu nabarmena eginda, Serranoren mutilek

## ESANAK

"Lehenengo partida garrantzitsua izan daiteke kanporaketara begira"

"Talde beteranoa dira, joko zuzena egiten dute. Oso ezberdinak gara biak"

"Dena dela, halako taldeen kontra jokatu puntu asko eskuratu ditugu aurten"

JOSU ZUBIA | ENTRENATZAILEA

urte ona egin dute, orain momentuan bosgarren daude sailkapenean (52 puntu), guztira 15 garaipen batuta, eta, hain zuzen, laugarren dagoen Mutrikuren (57) bisita izango dute Azkoagainen domekan. Bi talde horien arteko lehian jokoan egongo diren hiru puntuak, baina, gehiago izango dira atzetik datorren Hernanir (51) ligako azken jardunaldian bosgarren postu hori ez oparitzeko.

Koska bat gorago egoteko oñatiarrei erregulartasuna falta izan zaie aurten, partidu oso onak eta makalaldiak, biak tartekatuta ditzutelako, eta hori izango da datorren urtera begira izango duten erronketako bat, taldeak udan izan ditzakeen gorabeherei lehenbait lehen egokitu eta gero.

## MENDI LASTERKETAK

## Debagoieneko hamabi ordezkari Zegama-Aizkorri

Domekan egingo dute dagoeneko nazioarteko proba bilakatu den lasterketaren 15. edizioa

X.U. | ARRASATE

Dena dago gertu domekan (09:00, Zegama) egingo duten Zegama-Aizkorri mendi maratoiko hamabosgarren edizioarako. Urteak dira lasterketak nazioarteko izaera hartu zuela, eta kanpotik datozen korrikalarien zerrenda handia da. Hala, antolatzaileek zozketa egiten dutenetik, logikoa den moduan, etxeko lasterkariak ez dira garai bateko parte-hartze kopurura iristen, eta aurten, esaterako, Debagoien osotik hamabi lasterkari izango dira lasterke-

tako irteera puntuan. Oñatik du ordezkari gehien, lasterketara joango dira Iban Letamendi, Aitor Otamendi, Axier Alonso, Joxe Mendiola eta Jokin Garai. Arrasateko ordezkariak izango dira Aritz Kortabarria eta Josu Gascon. Antzuolatik, berriz, Gurutz Larrea izango da, eta Xabier Uribealago izango da Bergarako ordezkaria. Emakumezkoetan, berriz, ordezkari bakarra izango du ibarrak, Salomon taldeko Oihana Kortazar elgetarra; faboritoe-tako bat da, gainera.



Iban Letamendi animuak jasotzen, 2013an. | GOIENA

## Faboritoen zerrenda

Guztira, 529 lagun izango dira irteera puntuan. 09:00etan hasiko dute proba, eta atleta azkarrenak lau orduren bueltan izango dira Zegaman. Garaipenerako, berriz,

hainbat faborito daude. Normala den moduan, iazko irabazle Tadei Pivk-endako izango da bat zenbakidun dortsala. Iaz oso lasterketa ona egin zuen italiarrak; egindako denbora (3.51) urrun

geratu zen Kilianek daukan errekorretik (3.48), baina Zegama irabazi dutenen artean egindako marka onenetakoa da. Aurten, kontrara, Kilian Jornet izango du kontrario; iaz kataluniarra ez zegoen sasoiaren, eta ikusteko dago lasterketa 7 alditan irabazi duena ze gorputzaldirekin egongo den -Everesteko proiektuarekin dabil buru-belarri-. Eta kontuan izan beharreko beste izen batzuk dira Luis Alberto Hernando, Manuel Merillas eta Tom Owens, beste batzuen artean.

Emakumezkoen artean ere borroka estua aurreikusten dute: iazko irabazle Azara Garcia, Oihana Kortazar eta Megan Kimmel dira izenetako batzuk, dagoeneko konfirmatu dute eta Paula Cabrerizo ez dela proban egongo. Maite Maiora ere irteera puntuan izango da.

## PILOTA

# Arrasate, Bergara eta Oñati, Herriartekoaren bigarren kanporaketa gainditzeko "gogoz"

Azkoitia, Azpeitia eta Tolosa izango dituzte kontrario, hurrenez hurren

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko pilotariak prest daude Herriartekoaren bigarren kanporaketari aurre egiteko. "Jokatze eta gaintzeko", esan dute ordezkariak. Hurrenez hurren, Azkoitia, Azpeitia eta Tolosa izango dituzte kontrario. Hain zuzen ere, Bergarak (22:00) eta Oñatik (19:00) gaur, egubakoitza, etxetik kanpo jokatuko dute; eta Arrasatek bihar, zapatua, Uarkapen (19:00).

## Azpeitiaren kontra

Herriartekoa irabazteko hautagai nagusietako baten kontra neurtu beharko dituzte indarrak Bergarako pilotariak. Ilusionatuta daude. "Badakigu oso zaila izango dela. Baina pilotariak oso gogotsu daude, eta edozer egiteko gertu", esan du Reyes Azkoitiak. Ametsak amets, kadete eta gazte mailako bikote azpeitiarrak "oso gogorak" dira eta senior mailako kideetako bat –Murgiondo–, Bergara Hiria txapelketako txapeldunetako bat.

Bergarako pilotariak hauek izango dira: Roig eta Etxaniz kadetetan; Zubizarreta eta Otermin gaztetan; eta Muguruza eta Diez edo Rezusta seniorretan.



Aiaren kontrako kanporaketa gainditu zuten Arrasateko pilotariak | ARRASATE PILOTA

## Oñati-Tolosa

Lehen kanporaketan kadete eta gazte mailetako lau partiduak irabazi ostean, horietan ipini du Oñatik Tolosa gaintzeko kakoa. "Bi maila horiek oso parekatuak izango dira. Edozein akatsek erabaki dezake puntua baten edo bestearen alde", esan du Josu Osak. Senior mailan ahalik eta tanto gehien egin gura dituzte oñatiarrek. Perez-Gartzia kadeteak, Aramendia-Otamendi gazteak eta Uriarte-Perez seniorrak izango dira Oñatik kantxan ipiniko dituen pilotariak.

## Arrasatek etxean

Era berean, parekatua izango da Arrasateren eta Azkoitiaren arteko kanporaketa. "Oreka horren barruan, kadete mailakoa derri gor irabazi beharko dugu; gazte mailan, ahalik eta tanto gehien egin; eta seniorretan, gure jokoa erakusten badugu, irabazi egingo dugu. Uarkapen emaitza ona lortu beharko dugu", azaldu du Ibai Bolinagak.

Murua-Llodio (kadeteak), Iturriotz-Bengoa (gazteak) eta Arabolaza-Bolinaga (seniorrak) izango dira pilotariak.

## ESKUBALOIA



FORD MUGARRI

## Igoera barik itzuli dira Valentziatik

Lehen Nazional Mailarako igoera fasetik sari barik itzuli da Ford Mugarrri. Hiru partiduetatik bakarria irabazi ostean, esku hutsik geratu ziren. Alcasserren kontra 26-26 egin eta Bordilsen kontra 34-20 galdu ostean, Marratxi menderatu zuten, 28-20. Hala, hirugarren lekuan bukatu zuten arrasatearrek igoera fasea.

## SASKIBALOIA



NATRA OÑATI

## Finalerdia galduta, sari barik

Lehenengo Mailara igotzeko lauko finaleko finalerdia galduta (Mungiaren kontra, 63-53), sari barik gertu zen Natra Oñati. Atzetik izan ziren partiduaren zati handi baten, eta, hiru puntura jarri zirenean, Asier de la Iglesia bota zuten epaileek, bost faltengatik, eta lehiari buelta emateko aukera barik geratu ziren oñatiarrak.

# Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

## ABOKATUAK

### BERNARDINO MAIZTEGI

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A  
Tel.: 943 79 98 86  
Faxa: 943 77 01 08  
blasaga@conet.es

### RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5  
Tel.: 943 76 10 81

### ATXEN MUNGIA /

### NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
zenbaki@zenbaki.es

## AHOLKULARITZAK

### ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3  
Tel./Faxa: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

### ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
Tel.: 943 71 25 49  
Faxa: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

### TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36  
Tel.: 943 76 90 83

### ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.  
Tel.: 943 71 21 12  
Faxa: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

## ARKITEKTOAK

### BIARK ARKITEKTOAK

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea  
Tel.: 943 79 80 33  
www.biark.net

## ETXE ADMINISTRAZIOAK

### URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea  
Tel.: 943 79 51 25  
uribesalgo@uribesalgo.es

## BOXEOA



Ixa Rodriguez, Oñatin eskolak ematen dituen boxeolaria. | JAGOBA DOMINGO

# Hamabi borrokalari igoko dira domekan Zubikoako ringera

- ▶ Lau hamarkadaren ondoren, boxeoa itzuliko da domekan Oñatira
- ▶ Egunean bertan eros daitezke sarrerak, Zubikoan, 12 eurotan

XABIER URZELAI | OÑATI

Ia 40 urte pasa dira Oñatin azken boxeoa jaialdia antolatu zutenetik –1978an izan zen azkena–. Domekan, ostera, Zubikoako ringera 12 boxeolari igoko dira eskularruak jantzi eta ikuskizuna eskaintzera, emakumezkoak denak. Eta sasoi baten egiten zuten moduan, motorrak berotzen joateko borrokaldirak baino ordu batzuk lehenago (16:30ean), Txaketua tabernaren kanpoaldean pisatzea egingo dute.

Hala, 19:00etan hasiko duten jaialdian –aste barruan Txaketuan eta Indar gimnasioan egon

dira sarrerak salgai, baina egunean bertan Zubikoan ere salduko dituzte, 12 eurotan–, guztira, sei borrokaldi egingo dituzte,

pisu ezberdinetakoak, eta Espainiako hainbat boxeolari erreferente etorriko dira, euskaldunekin batera lehiazera. Hasiera

batean, zazpi borrokaldi egin behar zituzten, baina etxeko ordezkari bat lesionatu egin da, eta, guztira, sei izango dira: 48 kilotan Jessica Salazar (Bilboko Lopabox klubekoa) eta Virginia Domínguez (Madrid) izango dira aurrez aurre; 52 kilotan Zaira Corchero (Lopabox) eta Nahia Moyano (Erandioko Uppercut); 53 kilotan, Ixa Rodríguez (Soraluze, Lopabox) eta Paloma Ramos (Madrid) lehiatuko dira; 60 kilotan Violeta González (Lopabox) eta Laura Reollo (Madrid); 58 kilotan, Estefi Segura eta Oihane Cuesta, biak Neko Gym gimnasiokoak (Bizkaia); eta

azkenik, 66 kilotan, Patricia Yubero (Lopabox) eta Eva Perez (Madrid).

## Lau round, bi minutukoak

Zubikoako sei borrokaldietako bakoitzak lau round izango ditu, eta round bakoitzak bi minutuko iraupena. Hala, borrokaldiak, normalean, puntuetara erabakitzen dituzte, eta profesionaletan bai, baina amateur kategorian aurrez aurrekoak ez dituzte KOra –knock-out– erabakitzen. Ixa Rodríguez GOIENARI aitortu moduan, gizezkoen boxeoa errazagoa da: "Emakumezkoetan baino jo gehiago dago eta horrek jende gehiago erakartzen du. Hala ere, emakumezkoen boxeoa teknikoagoa da, garbiagoa eta politagoa".

## Azken egun hauek, urduri

Ixa Rodríguezendako Oñatiko borrokaldia ez da bat gehiago izango. Jaialdi mordo dituzte bizkarrean, baina gertuko asko izango ditu etzi zain: "Urduritzen hasita nago, egia esan", dio, barrez. "Egin beharreko lanak eginda daude, eta ea jaialdi polita egiten dugun. Gainera, maila oso oneko borrokalariak datoz. Etxekoekin batera Madrildik beste bost boxeolari izango dira eta".

Azken urtean pisua irabazi du Soraluzekoak, iaz 48 kilo azpiko kategorian irabazi zuen Espainiako Txapelketa eta aurrez aurre txapela defendatzea joango da, baina 53 kiloko mailan hartuko du esku –uztailean izango da Espainiako Txapelketa, Galizian–: "Orain, kontrarioek nik baino indar handiagoa izaten dute, alde horretatik, abantaila daukate, baina lehenago neukan abiadurari eutsi egin diot nik, eta horrekin egiten diet aurre", dio. Hala, uztaile baino lehenago hainbat borrokalditan hartuko du esku Lopabox taldeko ordezkariak.

## Boxeoa Oñatin ere zabaltzen

Kirol jarduera hori Oñatin hedatzeko lanean dabil Rodríguez, eta ez bakarrik domekako jaialdian parte hartuko duelako; izan ere, boxeoa eskolak ematen ditu Indar gimnasioan.

**DATUA**

**6**

BORROKALDI

Pisuaren arabera sei borrokaldi egingo dituzte domekako jaialdian.

**ESANAK**

"Emakumezkoen boxeoa teknikoagoa da, eta politagoa"

IXA RODRIGUEZ | BOXEOLARIA

## BOLEIBOLA

## Laugarren sailkatu da Arizmendiko taldea

Asteburuan jokatu dute Arizmendiko boleiboleko neskek lauko finala, eta, lehia parekatuak izan ostean, laugarren sailkatu dira: "Urte ederra egin dute, eta bailaran boleibolarekiko zaletasuna piztu egin dute". Izan ere, datorren urtean Arizmendik beste bi talde izango ditu, kadete eta infantil mailetan.



ARIZMENDI

## FUTBOLA

## Realeko entrenatzaile Eusebio Sacristanek AEBetara eraman du Andoni Ugarte, talde nagusiarekin

Liga amaitu eta AEBetarako bidea hartu du Realak, oportetara joan aurretik itsasoaren beste aldean bira egitera, lagunarteko hainbat partidu jokatzera. Hala, Eusebio Sacristanek lehenengo taldearekin eraman du Andoni Ugarte atzelari oñatiarra. Real atzo goizaldean egin zuen debuta San Jose Earthquakes taldearen kontra eta 2-1 galdu du, eta hilaren 24an Houston Dynamo-koen kontra jokatu dute. Oñatikoak denboraldiaurrean egin zuen lehenengo taldearekin debuta, Real Unionen kontra.

## FUTBOLA

## Mondrateren harrobia hasi da emaitzak ematen: infantilek ligako finala jokatu dute bihar, zapatua

Intxaurrendoko –Donostian– kiroldegian jokatu dute Mondrateren areto futbol taldeko infantilek –13-14 urteko gazteak– Gipuzkoako finala (zapatua, 11:00), Irungo Erain taldearen kontra. Denboraldi ederra egin ostean iritsi zaie arrasatearrei saria, finalerako txartela, eta, biharko norgehiagoka irabazten badute, Arabako eta Bizkaiko onenen kontra neurtuko dituzte indarrak. Talde hori iaz sortu zuten, Mondrater antolatutako udako futbol campusaren ondoren.

# AUTOAK



## PUNTA-PUNTAKO TEKNOLOGIA LAU GURPILEN GAINEAN

MERKATUAK ESKAINTZEN DITUEN MODELO BERRIAK  
BIGARREN ESKUKO ESKAINTZA  
ASEGURUEI BURUZ JAKIN BEHARREKOA



GMKT



**NISSAN PULSAR BERRIA**

BEHAR DUZUN TEKNOLOGIA,  
BEHAR DUZUN UNEAN ZEHAZKI.

**ARABAUTO**  
Gamarrako Atea, 46 A-B, 01013, Vitoria-Gasteiz, Araba - 945 262 501 - <http://red.nissan.es/arabauto>  
Kontsumo mistoa 3,6-5,9 l/100 km. CO<sub>2</sub> emisioak: 94-138 g/km.

**YOU+NISSAN**  
GURE KONPROMISOA. ZURE ESPERIENTZIA.

Ezagutu zehaztasunez Bezeroen Promesa Cliente programa hemen:  
[nissan.es/promesacliente](http://nissan.es/promesacliente) edo kontzesionarioen gure sare ofizialeari.



Kia Sportage berria.



Citroën Jumpy Spacetourerrak 9 lagunentzako lekua dauka.

**CHAPIME: ARRASATE**

Chapime kontzesionarioko Victor Blazquez salmenta-arduradunak Citroën Jumpy Spacetourer Multispace berria nabarmendu du, bere edukiera handiagatik eta segurtasunagatik.

4,60 metroko luzerarekin, bederlatzi laguneko eroso bidaiatzeko espazioa eskaintzen du Spacetourer berriak. Aparkatzeko erraztasuna eta edukiera handia lagunak izatea ahalbidetzen duen autoa da, beraz. Maletategi handiagoa nahi izanez gero, bi luzera handiagoda daude aukeran: 4,95 metrokoa 2.381 litroko edukierarekin eta 5,30 metrokoa 2.932 litrokoarekin. Jarrera dinamiakoagoa lortzeko plataforma modular berria du, eta kontsumo murriztuei esker efizientzia nabarmena lortzen du.

Teknologia eta segurtasun alorrean hainbat abantaila ditu Spacetourer berriak. Errepideko marrak oharkabean zapaltzerakoan automatikoki aktibatzen den alerta sistema du, eta angelu hiletan autoen presentzia ohartarazteko ultrasoinu bidezko abisu sistema ere badu, besteak beste. Konfortaren alorrean, merkaturan beste inork ez duen abantaila bat dauka modelo berri honek: alboko ate irristagarriak esku libreen bitartez zabaltzeko aukera eskaintzen du. Atzeko kolpe-leungailuaren azpitik hanka pasatzearekin bakarrik zabaltzen dira ateak. Haurrak esku artean darabiltzantzen edota erosketak poltsekin bi eskuak okupatuta dituztenentzako abantaila interesgarria izan daiteke. Merkaturan badaude maletategiak era honetako sistemekin zabaltzen dituzten autoak, baina ate irristagarrietan teknologia hau eskaintzen

duen merkaturako auto bakarra da. Uda aurretik, aldi berean aterako dituzte Citroën Jumpy Spacetourer autoaren bi modelo berriak, Multispace eta industrialak.

Victor Blazquezek nabarmendu duen bigarren autoa Kia Sportage berria da. Aurreko modeloarekin alderatuz, hainbat hobekuntzarekin dator. Hasteko, tamaina aldetik handiagoa da. Gutxiago kontsumitzen du eta gasolina-motor efizienteagoak garatu dituzte.

Konfort eta segurtasun alorrean baditu hobekuntzak. Gauez bidaiatzerakoan, sentsore bati esker, pareko autoak identifikatu eta automatikoki argien intentsitatea jaisten duen sistema dauka. Horrez gain, trafiko-seinaleak irakurtzeko gaitasuna

dauka eta nabigatzaileak abiadura-muga uneoro zein den abisatzen du. Gorpilaren presioa baxua denerrako abisu sistema edo telefono zein bestelako gailuentzako kargatzaileak dira beste erosotasun batzuk. Ahaztu gabe, Kiako gama guztian bezala, zazpi urteko garantia eskaintzen duela piezetan eta zuzeneko eskulanaren kostuan.

**FORD: SUV-AK, NAGUSI**

AEBetako Ford etxeak apustu handia egin du Europako merkaturako, eta SUV gama handitu du Kuga eta Edge modelo berriekin. Iaz, EcoSport-en bertsio eguneratua aurkeztu zuten estatubatuarrek. SUVak dira jaun eta jabe, Ford-en esanetan.

Ford Edge lur orotako ibilgailarekin, Ford-ek lortu du

estetikoki oso erakargarria den modelo, lerro bikainekoa. Errendimendu indartsua eta eraginkorra, abangoardiako diseinua eta aurreratutako teknologiak batzen ditu. Irudi aldetik, ikusgarria da benetan. Aurrealdeko parrilla hexagonalak da arreta ematen duen lehenengo gauza. Koloreak oso modernoak eta distiratsuak dira, lorpen-maila handikoak.

Teknologiaren atalean, honako hauek ditu Edge berriak: besteak beste, osoko trakzio inteligentea, berehala moldatzen dena edozein motatako lurretara, hura edozelakoa dela ere, oso ondo heltzeko eta oso modu zehatzean gidatzeko; eta 180 graduko aurrealdeko kamera, ibilgailuaren edozein aldetatik gerturatzen diren ibilgailuak

edo oinezkoak erakusteko eta ikusgaitasuna hobetzeko.

Oraingoz, bi motorrekin dago aukeran, biak dieselak: motor bat 180 zaldikoa da eta bestea 250 zaldikoa.

**MUSTANG, ORAIN EUROPAN**

Oso bestelakoa da Ford Mustang modelo, auto deportibo aski ezaguna. Alemanian, automobil sarritua izan da; martxoan, auto salduena izan zen herrialde horretan, meritu handiko lorpena, kontuan hartzen bada Audi TT eta Porsche 911 direla han jaun eta jabe gama horretan. Orain arte AEBetan bakarrik saltzen zuten Ford-ek bere deportiboa, baina orain Europara ekarri du, eta, ikusten den moduan, arrakasta handiarekin.

Ez da gutxiagorako; diseinua, kalitatea, portaera eta mekanikak hobetu dizkio AEBetako multinazionalak, modu horretara *pony car* delakoa Europako gidarien gustuetara moldatzeko.

Martxoan Alemanian 780 unitate saldu zituen Mustang-ek, eta urteko lehenengo hiruhileko bukaeran 1.823 unitate ziren, Porsche 911ren aurretik.

**S-MAX, HIRIRAKO AUKERA**

Turismoen segmentua ere zaintzen jarraitzen du Ford-ek, S-MAX berriarekin. Hirian eta egunerokoan mugitzeko auto malgua, moldakorra eta inteligentea da. Zazpi jesarleku ditu, eta bigarren eta hirugarren erroak nahieran molda daitezke, jesarlekuak tolestuz, eta modu horretara bidaiariak eraman edo objektuak garraiatu. Horrez gain, eguzki-sabai panoramikoa dauka, barrualdea are zabalago eta argitsuago egiten duena.



Ford Mustang deportiboaren barrualdea.

**FORD TRANSIT GAMA****MUGARRI AUTOAK**

Arrasate  
Araba etorbidea z/g  
tel.: 943790744

Bergara  
Amillaga 5  
tel.: 670827186

Ford Transit gama. Kontsumo mistoa, 3,8tik 9,7ra bitartean (l/100 km). CO<sub>2</sub> isuria, 99 eta 255 bitartean (g/km).





Ford Edge, SUV gamako modelo berri handiena.



Nissan Qashqai dinamikoa eta dotorea.

### NISSAN: ERABAT BERRITUTAKO GAMA

Berrikuntza eta teknologia dira, Gaurisa kontzesionarioko Asier Guardenoren hitzetan, Nissan etxearen ezaugarri nagusietako bat, eta, gaur egun, erabat berritutako modelook ditu eskaintzeko Nissanek. Bereziki, *Crossovers* gamako modelo guztietan bertsio berrituak dituzte; hain zuzen ere, "horretan da erreferente" etxe japoniarra. Crossover segmentuetan lider da Qashqai modelo, auto "dinamiko eta elegantea", eta gidatzean segurtasuna eta kontrola eskaintzen dituena. Esan bezala, Crossover gaman da nagusi Nissan eta saltzaileari bereziki azpimarragarria iruditzen zaio auto mota horrek azken urteetan adineko jendearekin izan duen arrakasta, besteak beste, autoaren altuerak eta jarlekuak ematen duen erosotasunarengatik.

Autoei dagokienez, Pulsar modelo nabarmentzen du Guardenok; Nissanen azken modelo da eta dagoeneko bere taldekoen artean toki erreferentean dago. Auto zabala, besteak beste, oztopoen aurreikuspen eta babeserako adimendun teknologia erabiltzen du; oztopoei aurre hartzen die teknologia berrituari esker.

Ibilgailu industrial eta komertzialen alorrean bi alderdi nabarmentzen ditu Gaurisako Asier Guardenok: NP300 Navara autoaren merkaturatzea eta bost urteko bermea gama osoan.

Bestetik, ibilgailu elektrikoaren alorrean lider eta aitzindari da Nissan; horren erakusle da merkaturatu berri duten LEAF 30kW modelo. 250 kilometrorainoko autonomia eskaintzen duen autoa da.

Modeloak modelo, alabaina, teknologiaren eremuan da Nissan, saltzaileak duda barik esaten duen moduan, lehiarik bakoa. "Marka teknologikoa da", dio Gaurisako Asier Guardenok. Gidatze laguntzak, segurtasun sistematik, konektibitatea, GPSak eta Internet... Ekipamendu teknologikoan nagusi dira japoniarrak eta marka hoberik ez dagoela argi dio Guardenok. Teknologia ez ezik, konfort eta erosotasuna nabarmentzen ditu, eta baita autoari "nortasuna" ematen dioten elementuak ere.

Haren ustez, gama guztietan, prezioaren eta kalitatearen arteko erlazioan "puntutxo bat gogo" kokatzen da Nissan, nahiz eta, era berean, "apur bat garestitxoagoa" ere badela zehazten duen. Adin tartea zein, Nissanek, halaber, auto mota bat ere baduela dio Guardenok. Hala, 25 urteko behar koentzako Juke modelo ikusten du eta 35 urteko gorakoentzako Qashqai autoak duela harrerarik onena.

Salmentei dagokienez, goranzko joerarekin segitzen du Nissanek. 2015ean %20 egin dute gora. Bereziki, gainera, ibilgailu komertzial eta enpresara bideratutako salmentek egin dute gora.

### HYUNDAI: BERME INTEGRALA

Bost urtez, eta kilometro muga barik, berme integrala eskaintzen duen marka bakarra da Hyundai; Cinking aukerari esker, autoaren mantentze-lan eta errebisioak doan egiten ditu bost urtean; Hyundai etxeko auto-gama guztiek errepide laguntza dute lehen kilometrotik. Hori bakarrik ez, autoek banaketa-katea dute; bezeroa ez badago gustura bere



Nissanen NP3000 Navara, merkaturatu berria.



Hyundai i20 Active, i 20 modelooren bertsio berritua.

Hyundai berriarekin, bueltatu egin dezake. "Horregatik guztiagatik, automobil bat aukeratzeko orduan bezeroari balio erantsi handiena ematen dion automobil marka da Hyundai", dio etxe horretako

zuzendari komertzial Koldo Biurrunek.

Automobilei dagokienez, Hyundai Tucson aipatu behar da besteen aurretik. Kirol diseinua eta teknologia aurreratuena eskaintzen dituen modelo da.

Barruan espazio zabalekin, ekipajerako tokia handitu egin daiteke, atzeko ilarako eserlekuak eraigarriak baitira. Barrua, gainera, kalitate handiko materialez egindako espazio eroso da; bigarren ilarako zorua zapa-



# TUCSON 16.900 €tik

Baliagarria bonifikatutako autoendako stocka bukatu arte  
5 urteko garantia kilometro muga barik eta 5 urteko mantentze-lanak eta azterketak tailerlean

**OARSO CAR**  
GIPLUZKOARAKO HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA  
www.oarsocar.com

**HYUNDAI** NEW THINKING.  
NEW POSSIBILITIES.

OIARTZUN - Lintzirin poligonoa 1  
943 49 48 30  
Errepide Nagusia 1, 469 Km  
(Leroy Merlin ondoan)

BEASAIN  
943 80 40 54  
Errepide Nagusia 1, 419 Km  
(Hotel Castillo ondoan)

IRUN  
943 63 97 69  
J.T. Labandibar, 43  
(Behobia bidea)

ELGOIBAR  
943 74 14 80  
Olaso poligonoa 17



Hyundai Ioniq modeloa, itxura futurista duena.



Opel Astra berria Takolo Autoak kontzesionarioan.

la da eta hiru pertsona helduren-dako espazio nahikoa eta eroso eskaintzen du atzeko aldean. Gidariaren eta kopilotuaren eserlekuek erregulazio elektrikoa dute eta eskuragarri daude berogailu eta aireztatzeko sistemekin. Hyundaik, gainera, aparkatze sistema adimendun berri bat garatu du eta horri esker gai da bai paraleloan eta baita baterian ere aparkatzeko. Horrez gainera, Tucson berria bakarrik frenatzeko gai da, pertsona edo ibilgailu bat modu arriskutsuan gerturatzen ari bada.

Oarso Car kontzesionarioko Koldo Biurrunek, Tucson modeloaz gain, i20 Active autoa ere nabarmendu du. i20aren bertsio berritua da i20 Active, eta, esekidura edo suspentsio berrituari

esker, lurretik bi zentimetro gorago dago aurrekoarekin alderatuz. Trakzioa aurreko gurpiletan du eta pneumatikoak asfalto gaineko diseinatuta daude. Hiru zilindrodun gasolinazko motor berria du, karrozeria eskusiboa, itxura indartsu eta mardulagoa eta konforta eta segurtasuna eskaintzen dituen modeloa da.

Hyundai etxearen 2016ko beste apustuetako bat da Hyundai Ioniq berria. Hiru propulsioko aukera eskaintzen ditu: hibridoa, entxufatu daitekeena eta erabat elektrikoa. Material ekologikoekin egindako barrua du eta itxura futurista, dotorea eta kirol diseinuko ditu. Ibilgailu arina eta erresistentzia handikoa; barrukoa berritzailea da eta azken teknologia erabilia diseinatutakoa.

#### OPEL TAKOLO: SEGURTASUNA BERMATZEN

Opel Takolo autoetako Ibon Rubiok Opel Astra eta Opel Mokka autoak azpimarratu ditu. Opel Astra modelo guztiek wifia autoan eramateko aukera dute, eta, oraingoz, bakarrak dira teknologia hau dutenak. 2016. urteko autoa da Opel Astra berria, eta hainbat sari lortu ditu; aurreko modeloa baino arinagoa da, 200 kilo gutxiagorekin, kurbak hartzeko hobe da...

Argiei dagokienez, Intelilux sistema du bereizgarri Opel Astra modeloak. Xenon argiak ordezkatzeko ditu LED erakoak dira. Autoak sentoreak martxan jartzen ditu arriskuren bat ikustean. Esaterako, iluntasunean, oinezkoen bat agertzen bada alde

batetik, argiak aldamentetik pizten dira. Bestalde, beste auto bat zuzenean aurrean agertzen bada, beste gidaria ez molestatzeko automatikoki aldatzen dira argiak, eta arriskua saihestuta bere egorara bueltatzen dira.

Segurtasunean, On Star sistema da Opel modelo guztiek daukaten ezaugarri nagusia. Erabileraz errazeko aplikazio honen bidez segurtasuna bermatu nahi da, hori da aplikazioaren helburu nagusia, baina, segurtasuna eskaintzeaz gain, edozein zalantza argitzeko balio du. Esaterako, istripu bat izanez gero, automatikoki On Star-tik deitu egiten dizute zerbait gertatzen zaizun galdetzeko, edo SOS botoiari emanda 112 larrialdi-zerbitzuekin konektatzen zaituzte berehala. Bestalde,

galduta bazaude, autoaren kokapena ere adierazten dizu sistema honek. Autoan egon barik, gurpilen presioa eta autoak duen erregai kopurua jakin, argiak kontrolatu daitezke... autoa edozein lekutan izanda ere.

Aipatzeko beste modeloa bat Opel Mokka da. Lur orotako ibilgailu honek hainbat berezitasun ditu; altuera handia du autotik sartzeko eta irteteko, espaziosua da, eroso... Gainera, On Star eta wifia jarri diezaiokezu. Hori bai, fabrikatik dator integratuta eskatzen duzun modeloaren arabera, eta aurrez eskatu behar da. Lehen urtea dohainik da, eta bigarren urtetik aurrera sistema konektatu dezakezu edo ez, nahi izanez gero, urtean 120 euro ordainduz.


**RENAULT**  
Passion for life

# Renault MEGANE

## Berria

### Erabat BERRIA. Erabat MEGANE



Hilean

# 150€/€-tik aurrera\*

49 HILABETE. Sarrera: 2.157,83€.  
UTB: % 7,76. Azkeneko kuota: 8.058,60€.

**Renault Mégane berria: Kontsumo mistoa (l/100km) 3,7 eta 6 bitartean. CO2-aren isuria (g/km) 95 eta 134 bitartean** \*Eskaintza hau baldagarria da Renault Mégane Intens Energy TCe 74kW (100 ZP) bati eskatzen duten partikular eta autonomoentzat. Preference-ren bidez finantzatuta RCI Banque SA Sucursal en España-rekin eta berehala, maiatzaren 14ko 180/2015 Errege Dekretuak, "Ibilgailu Eragin Korretarako Pizgarrien Programaren (PIVE-8)" diru-laguntzak zuzenean emateko nonik norakoak arautzen dituenak, ezarritako baldintzak betetzen badira. Renault Mégane Intens Energy TCe (100 ZP) berriarentzako adibidea. PSPa promozioak eta PIVE-8 baimen Penintsulan eta Balearretan: 14.300.000€. Guztirako prezioa epeka: 17.416,43€. Sarrera: 2.157,83€. Zor duen zenbatekoa guztira: 15.258,60€. 150.000€-ko 48 kuota eta 8.058,60€-ko azken kuota. Finantzatu beharreko zenbatekoa: 12.142,17€. ITN % 7,50. Irakiera-komisioa: % 0. UTB: % 7,76. Finantzatu beharreko gutxieneko zenbatekoa: 8.000€. Eskaintza hau 2016ko maiatzaren 1etik 31ra egindako eskaerentzat da. Auto Pack-a opari lehen urterako arrisku orotako doako aseguruia Mapfrerekin; 600 euroko frankiurekin; bi urterako Securplus aseguruia; eta pneumatikoen aseguruia (2 urte, 30.000 km). RECSAk oparituriko mantentze-zerbitzua eta Auto Pack-a. Irudiko modeloa: Renault Mégane GT Energy EDC berria, 151kW (205 ZP), PME eta Head-up Display-rekin. PSP gomendatua promozioak barte: 26.335,00€.




**AUTOBERRI**

San Andres, 8. Tel. 943 71 24 72. ARRASATE - MONDRAGON

www.autoberri.com



Opel Mokka lur orotako ibilgailua.



Renault Megane berria.

Pive planaren barruan, Opel-ek 1.200 euro ematen ditu, eta Espainiako gobernuak, berriz, 750 euro. Honez gain, Opel Takolo autoek beste hainbat eskaintza ere badituzte. Modeloaren arabera, bezeroa autonomoa bada, Opeleko kooperatibista hornitzailea bada... ezberdinak dira eskaintzak. Hala, Pive plana izanda, ez dute zero kilometroko autoen aldeko apusturik egiten. Izan ere, prezioz merkeagoa irtetzen da.

**RENAULT AUTOBERRI: ESKAINTZA BERRIAK**

Renault Autoberriri kontzesionarioko Yolanda Bujanda gerenteak aipatzekoak diren lau auto azpimarratu ditu: Megane, Kadjar, Espace eta

Talisman modeloak. Megane berria oso dinamikoa eta sentsuala da, eta, gainera, modelo berria deportiboagoa egin dute. Head-Up Display sistema dakar, teknologia oso intuitiboarekin. Bestalde, Multisense sistema da abantaila esanguratsua. Izan ere, keinu bakar batekin, ibilgailuaren hainbat funtzio kontrola ditzakezu. Gama guztietako motorrak daude Megane berrian, atera zenetik, eta fabrikatzaileek beraien ezagutza guztiak eta Renault-ek dituen teknologia hoberenak integratu dituzte motorretan: Stop&Start, Energy Smart Management... Gasolinaren eta dieselaren artean aukera dezakezu; horietako batzuk, gainera, EDC martxak aldatzeko

kaxa automatikoak izan ditzakete Renault Kadjar modeloak, bestalde, barrualde argitsua du, erosotasun osoa eskaintzen du eta akabera dotorea dauka. Sabaia kristal panoramiko du, eserleku inguratzaileak, kontsola zentral handia, kontadore eta adierazgarri kromatuak... Lur orotako auto bikaina da, eta hiru modu ezberdineko transmisioduna: 4x4, 4x2 eta Extended Grip. Aluminiozko barrak ditu sabaian, kolpeez babesteko babesak ditu autoak aurrealdean, atzealdean, eta alboetan. Renault Kadjar-en ezaugarri nagusia, berriz, kondukzioa erraztea eta segurtasuna bermatzea da; horretarako, teknologia segurtasunaren zerbitzura dago.



Renault Kadjar lur orotako ibilgailua.

**Economy ordezeko piezak: 5 urtetik aurrerako ibilgailuendako kalitatea**

Volkswagen jatorrizko ordezeko piezak\*



Economy paketeak

Prezio hobekak bermatutako kalitatearekin

Urteen poderioz, zure ibilgailuaren jatorrizko piezek higadura sufritzen dute; horregatik, **Economy gama** sortu dugu: Volkswagen kalitatea eskaintzen dizuten ordezeko piezak.

**5 urtetik aurrerako ibilgailuentzako** soluzio bikaina eskaintzen dizugu; gainera, prezio ekonomikoagoetan oinarrituta. Nola lortu dugu hau? Erreferentzia berberaren diseinuaren aldaketarekin eta barianteen murriztearekin.

Gainera, beste abantaila osagarri batzuk eskaintzen ditu gama honek; esaterako, ordezeko piezen diseinuan erabilitako **goi mailako teknologia**.

Economy gama osatzen duten ordezeko piezak zeintzuk diren azalduko dizugu; aurrerantzean, baina, gama honetan pieza gehiago egongo dira.

**Economy freno-pastillak**  
Iraunkortasun handia. Egiaztatutako iraupen luzea. Frenaketa ona.



**Economy isilgailuak**  
Korrosioarekiko erresistentea. Enkaje perfektua. Balio-bizitza: 8-10 urte artean.



**Economy bateriak**  
Mantentze-lanik ez. Balio-bizitza luzea.



**Economy bujia**  
Fidagarritasun handia. Kontsumo-efizientzia. Balio-bizitza luzea.



**Economy freno-diskoak**  
Frenaketa-potentzia ezin hobea. Balio-bizitza luzea.



**Economy eskuilak**  
Garbiketa ezin hobea. Zarata txikia. Erresistentzia handia.



**Economy motelgailuak**  
Segurtasun osoa. Portaera egokia martxan.



**Economy alternadorea**  
Zure ibilgailuak uneoro sortzen dituen kontsumo elektrikoak jasaten ditu. Zure ibilgailuari egokitutako karga ezaugarriak ditu.



**Economy homozinetika-juntura**  
Iraunkortasun eta fidagarritasun handia. Zure ibilgailuaren ezaugarriak kontutan hartuta diseinatutako pieza.



**Economy ordezeko piezak: Volkswagen kalitatea prezio paregabe.**

**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Volkswagen Service

Zure Volkswagenak kalitatezko zainketa behar du; eta zuk, preziorik onenak.



Golf GTE hibridoa merkaturatu du Volkswagen-ek.



Audi A4 batera igotzea esperientzia errepikaezina da.



Seat Ateca modelo, Seat-en aurkezpen arrakastatsuenetako bat izango dena.



Skoda Superb berriak estetika eta segurtasuna bateratzen ditu.

Crossover espirtu berritzaila duen autoa Renault Espace da. Dotoretasunaz gain, diseinu sendoa dauka. Led Pure Vision argiak, hagunak (llantak) eta kromoa, horiek dira azpimarratzeko dituen bereizgarriak.

Talisman autoak, berriz, segurtasun bikaina bermatzen duen bost puntu ditu Euroncap testean, balorazio altuena test honetan. Airbagak, kolpe-leungailu moldaketak, laguntza sistemak eta gidatze perfektionatuak, besteak beste.

Pive plana, aldiz, uztailearen 31n amaitzen da, esleitutako dirua bukatzen denean. Beraz, oporren aurretik auto erosi nahi duenak lehenbailehen erabaki beharko du Pive planaren bidez erosi nahi duen. Izan ere, beharrezkoa izango da matrikulazioa irailaren 30a baino lehen egitea. Bestalde, ez da espero Pivea plana berrituko denik, Espainiako Gobernuak ez dago-eta eraturik.

#### UDALAITZ: SEAT, AUDI, VOLKSWAGEN ETA SKODA

Seat-ek Genevako Aretoan aurkeztu zuen Ateca modelo berria, udarako merkaturatu egongo dena. Seat-en arrakasta handienetako bat izateko osagai guztiak ditu, adituen esanetan, eta bere kategorian -SUV konpaktua- erreferente bihurtzeko ere bai.

Seat-en erabateko lehenengo SUV autoa da, eta une egokian dator, SUVak merkaturatu nagusi izateko bidean daudela. SUV konpaktuek dagoeneko milioi bat unitatetik gora saltzen dituzte Europan, eta datozen urteotan gero eta gehiago salduko dutela iragartzen dute adituek; izan ere, lur mota guztietan segurtasunez ibiltzeko eta hirian eroso zirkulatzeko aukera ematen dute.

Martorell-en egingo den modelo hori, gainera, oso prezio lehiakorrean merkaturatuko da: tarifa aldetik, 20.000 euro azpi-

tik, promozioak eta eskaintzak kontuan hartu gabe.

#### AUDI A4: DEPORTIBITATEA ETA TEKNOLOGIA

Audik A4 modelo berria aurkeztu du. Aurrerapenaren adibide garbia dira aukeran ematen dituen Audi Matrix LED argiak. Argi gardena ematen dute, errepidea modu garbi eta homogean argiztatzeko.

TFSI eta TDI motor berriek errendimendu ikusgarria ematen dute, erregai kontsumo txikiagoarekin. Horrez gainera, Quattro trakzioak dinamismo eta segurtasun handiagoa ematen dio automobil harrigarri horri.

Segurtasun aldetik, angelu hilak saihesteko sistema laguntzailea du, atzeko trafikoko gurutatu alertarekin. Zirkulazio-seinaleak identifikatzen dituen sistemak, gurutzadurako kontrol egokigarria, erreitik nahi bako irteeren sistema eta modu auto-

matikoan aparkatzeko laguntzailea ere eskaintzen ditu.

Horrekin guztiarekin, Audi A4 batera igotzea deportibitate, dotoretasun eta berritasun handienak eskaintzen dituen esperientzia bizi izatea da.

#### GOLF GTE HIBRIDOA: ETORKIZUNERA BIDAIA

Ingurumen eta aurrezpen aldeko apustua egin du Golf etxeak bere GTE hibridoarekin. Entxufatu egin daiteke kargatzeko, eta Full LED teknologiako argi aurreratuak ditu, horrela argiztapen-potentzia eta aurrezpena uztartuz.

Diodo argitsuak elektrizitate gutxiago behar du bere potentzia guztia erabiltzeko, eta ohiko lanparak baino bizi-iraupen handiagoa du. Diseinu dinamikoko auto-argiaren kristalaren atzean, lerro urdin baten gainetik, halako diodo asko daude, kontzentratutako argi-potentzia handia ematen dutenak. Kolpe-leungailuak ere diseinu depor-

tiboa dauka: eguneko argiek arretea ematen dute C formako diseinu futurista ikusgarriarekin, akats-arrisku oso txikia dutenak eta energia gutxi kontsumitzen dutenak.

#### SKODA SUPERB: 3. BELAUNALDIA

Txeikiako Skoda etxearen auto-izarra da Superb, bere berlina handia. Estetika aldetik asko irabazi du Skodak, Audiren itxura hartuz. Honakoa modelo horren hirugarren belaunaldia da eta, itxura aldetik irabazi badu, tamaina aldetik ere horixe egin du: 28 mm luzeagoa, 47 mm zabalagoa eta 6 mm altuagoa da. Maletategi ikusgarria du 625 litroko eta 3,1 metroko edukierarekin.

Superb berriak laguntza sistemak eskaintzen ditu: zirkulazio gurutzatuaren atzeko alertak, zirkulazio-seinaleak ezagutzeko sistemak, gurutzadurako kontrol egokigarria, erreitik nahi barik irten ezkeroko alerta, e.a.

GAMA WiFi

Takolon Opeleko edozein modelo berri erosita, lehenengo bi azterketak doan. Eskaintza baliagarria uztailearen 31 arte.

OPEL

OPEL ZERBITZU OFIZIALA

TAKOLO

AUTOAK

San Andres Auzoa 10-D • Tel.: 943 77 30 10

# Bigarren eskuko autoen salmenta ez da igo iaiztik

Auto berrien merkatzeak eta hauek erosteko erraztasunek eragin dute bigarren eskuko autoen salmenta egonkortzea

**H**ainbat urtez datu kaxkarrak pilatu ostean, 2015ean auto berrien salmenta %20,9 igo zen 2014ko datuekin alderatuta. 2009a ezker lortu den emaitzarik onena izan zen iaizkoa. Krisiaren eraginez, bigarren eskuko autoen salmentak gora egin du urte hauean, baina auto berrien salmenten gorakadak merkatu-segmentu honen egonkortzea eragin du.

Chapime kontzesionarioko Victor Blazquez salmenta-arduradunaren arabera, bigarren eskuko autoak erosterakoan jendeak 6.000 euroko muga izaten du aurrekontuan. "8.000 edo 9.000 euroko autoez hitz egiterakoan, jendeak nahiago du auto berria erosi, nahiz eta gama baxuagokoa izan. Horretaz gain, orain, auto berriak merkeagoak dira eta laguntzak daude hauek erosteko".

Ford Mugarriko Rafa Etxaberen esanetan, bigarren eskuko autoen salmentak ez du aldaketa nabaririk izan aurreko urtetik hona. Edozelan ere, autoak Inter-

netez saltzearen eraginak azpimarratu ditu. "Jendea librea da auto bat nahi duen tokian erosteko, baina kontziente izan behar dugu Internetetik erostean gure sektorean langabezia eragiten ari garela". Horren eraginez, ez daukate 6.000 eurotik beherako bigarren eskuko autoen eskaintzarik. Jendeak eskatzen dizkigu prezio horretan egon daitezkeen autoak, baina ez daukagu zer eskaini". Internetek prezio horiek dituzten autoen merkaturia hain du bereganatua, auto-kontzesionarioek eskaintza izateko zailtasunak dituzte.

Takolo kontzesionarioko Ibon Rubiok dioenez, eurek ez dute 6.000 eurotik beherako bigarren eskuko eskaintzarik nahi. "Segurtasuna eta kalitatea bermatuta daukaten autoak eskaintzeko filosofia daukagu. Prezio horietatik behera dauden autoak eskaintzea arriskutsua izan daiteke". Pive planaren eraginez, zero kilometroko autoak ez dute diru laguntzarik eta hauen salmentak nabarmen egin du behera.

## BIGARREN ESKUKO AUTOEN ESKAINTZA

UDALAITZ	URTEA	EZAUGARRIAK
Audi A1 Ambition	2012	1.2 TFSi / 40.000 km / 13.000 euro
Seat Ibiza Style	2015	1.2 TSi / 23.108 km / 10.200 euro
Volkswagen Polo Edition	2016	1.0 / 200 km / 11.300 euro
Volkswagen Golf Sport	2007	1.4 TSi / 72.000 km / 8.600 euro
Skoda Superb Style	2015	2.0 TDi / 23.000 km / 29.000 euro
FORD MUGARRI	URTEA	EZAUGARRIAK
Ford Focus Titanium Sportbreak	2014	1.6 TDCi / 29.000 km / 15.500 euro
Ford C-Max Trend	2014	1.6 TDCi / 31.000 km / 14.900 euro
Ford Tourneo Courier Ambiente	2016	1.5 TDCi / 20 km / 11.900 euro
Ford Fiesta Trend	2015	1.0 EcoBoost / 100 km / 11.900 euro
Ford Grand C-MAX Trend+	2015	1.5 TDCi / 50 km / 19.900 euro
CHAPIME AUTOAK	URTEA	EZAUGARRIAK
Citroen DS 5 Blue HDi	2015	120 ZP, diesela / 12.000km / 21.000 euro
Seat Leon 1.9 TDI	2007	105 ZP, diesela / 132.000 km / 6.600 euro
Citroen C4 Blue HDi	2016	100 ZP, diesela / 100 km / 16.600 euro
Citroen C4 Cactus e-HDi	2015	92 ZP, diesela / 11.500 km / 13.950 euro
Toyota Prius 1.8 HSD Advance	2011	89 ZP, gasolina hibridoa / 111.000 km / 12.300 euro
OARSO CAR	URTEA	EZAUGARRIAK
Hyundai Grand Santa Fe	2014	196 ZP diesela / 22.948 kilometro / 36.900 euro
Hyundai H350	2015	150 ZP diesela / 2.200 kilometro / 21.900 euro
Hyundai i10 1.0 Tecno Blue	2014	67 ZP gasolina / 19.828 kilometro / 6.900 euro
Hyundai i20 1.2 Klass	2015	84 ZP gasolina / 12.404 kilometro / 8.900 euro
Hyundai i30 1.4 Klass	2015	101 ZP gasolina / 24.578 kilometro / 9.900 euro
TAKOLO AUTOAK	URTEA	EZAUGARRIAK
BMW 320 xd	2011	184 ZP, diesela / 93.000 km / 18.900 euro
Volkswagen Passat Variant	2013	140 ZP, diesela / 130.000 km / 16.200 euro
Volvo S60 D3	2011	163 ZP, diesela / 51.000 km / 18.300 euro
Skoda Octavia 1.9 TDI	2011	105 ZP, diesela / 70.000 km / 13.300 euro
Seat Alhambra	2014	140 ZP, diesela / 70.000 km / 21.800 euro
AUTOBERRI	URTEA	EZAUGARRIAK
Kangoo Furgon DCI	2011	85 ZP, diesela / 120.000 km / 7.500 euro
Dacia Duster Ambiance DI	2015	110 ZP, diesela / 5.000 km / 15.000 euro
Renault Twingo Dynamique 1.2	2011	75 ZP, gasolina / 35.000 km / 5.000 euro
Renault Megane Zen Energy DCI	2016	100 ZP, diesela / 3.000 km / 20.700 euro
Dacia Sandero Ambiance 1.2	2016	75 ZP, gasolina / 0 km / 9.600 euro
GAURSA	URTEA	EZAUGARRIAK
Nissan Juke	2014	110 ZP diesela / 25.600 kilometro / 13.900 euro
Nissan Note	2014	80 ZP gasolina / 18.248 kilometro / 11.500 euro
Nissan Note	2015	90 ZP diesela / 15.000 kilometro / 11.500 euro
Nissan Pulsar	2015	110 ZP diesela / 12.440 kilometro / 14.900 euro
Nissan Qashqai	2015	110 ZP diesela / 14.400 kilometro / 18.400 euro

Eskaintza baliagarriak akats tipografikorik ez baldin badago.



Bigarren eskuko autoen azoka.

## ZURICH AUTOK eskaintzen dizu:

- Aseguruaren titulartasuna 25 urtetik aurrera
- Lehenengo bi urteetan erabateko hondamena gertatuz gero, auto berriaren balioa
- 25 eta 35 urte arteko emakumea izatearren, % 10eko deskontua
- "Soluzioak bidean" zerbitzu gida: zure aseguruak eskaintzen dizun abantaila eta zerbitzu gama zabala.

- Laguntza juridiko eta legala bidaietan
- Deskontuak tailerretan
- Deskontuak jatetxeetan, hoteletan (NH, Sol Meliá...) eta paradoretan
- Deskontuak bidaietan (opor-paketeak, auto alokatuak, tren txartelak, tarifa bereziak charter hegaldietan, hegaldi erregularretan...)

...eta zure aseguruak?



**ZURICH**  
M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Montxon kalea 5 behea  
20.560 OÑATI  
Tel./Faxa: 943 78 30 09  
Polts.: 620 77 66 20

# "Indemnizazioen kalitatea igo egin da"

Zurichen, Flexifrankizia aseguruak dute: parterik ematen ez bada, urtero ordaindu beharrekoa jaitzi egiten da

**Z**urich Aseguruak enpresak ia 50 urteko esperientzia eta eskarmen-tua dauka. "Nire aitak ireki zuen frankizia eta harengandik ikasi dut ogibide hau. Orain, nire semeak emango dio jarraipena; horretarako ikasten dihardu", azaldu du Mari Mar Urrutiak, Zurich Aseguruak enpresako Oñatiko ugazabak.

Baina zerk bereizten du Zurich besteetatik? "Zurichen Flexifrankizia deritzon aseguru eskaintzen dugu. Nik dakidala, merkatuan dagoen bakarra da. Hau da, parterik ematen ez bada, urtero ordaindu beharreko kopurua jaitzi egiten dugu", dio.

## KONFIANTZA

Aurrez aurreko tratua baloratzen dutela bezeroek dio. "Zerbait gertatu arte jendea ez da ohartzen zein garrantzitsua den aurrez aurre norbaiten laguntza izatea. Nik neure mugikorra ere ematen diet bezeroei, beharra dutenean laguntzeko".



Mari Mar Urrutia, Oñatiko bulegoan.

## PREZIOA ETA KALITATEA

Legez, aurten, aseguruak igo egin dira. "Urtarrilaz geroztik aseguruak igo egin dira, bai; baina baita indemnizazioak ere. Dena lotuta dago; ez da igoera soilik, kalitatearekin lotuta dago. Adibidez, istripu bat izanez gero orain, eta hemendik hamar urte-

ra ondorioren bat badatorkizu, aseguru etxea horren kargu egin beharko da".

Zurichek kalitateari eman diola beti garrantzia azaldu du: "Gure aseguru-etxea ezaguna da dituen zerbitzuen kalitateagatik; beti mantendu ditu, gainera, prezioak", azpimarratu du.

## Bezeroek jakin beharrekoa

### HIPOTEKAK ETA ASEGURUAK

2013az geroztik, Europako Parlamentuaren sententziak debekatu egin du bankuak hipoteka eta aseguruak lotzea. "Kezka horrekin bezero asko gerturatu dira guregana laguntza eske. Orain, jende asko dator aldaketa egin guran. Legez posible da, gainera. Kasu askotan, sekulako seguru altuak ikusten ari naiz, eta onartezina da. Etxe-aseguru etxearen metro karratuaren arabera kalkulatu behar da, eta ez hipotekaren arabera. Legez jarrita dagoen prezio baremoen arabera kalkulatu behar da aseguruak. Zuricheko atek informazioa gura duen edonorendako irekita daude".

### BERMEA

Bermeak ondo begiratu behar direla dio. "Letra txikia ondo irakurri behar da, eta aseguruak eskaintzen duten guztia ondo aztertu; batez ere, *low cost* aseguru kasuan ondo begiratu behar da zein muga dituzten. Guk hemen aholkuak ematen dizkiegu aseguru bat edo beste aukeratu behar dutenean. Horretarako, gainera, etengabeko formazioa exijitzen digute eta ikastaro ugari egiten ditugu".

### GOIENA KLUBA: DESKONTUA

Goiena Klubeko txartela duten bazkideendako deskontuak dituzte. "Aukeratzten duten aseguruaren arabera, %20, 25 edo 30eko deskontua aplikatzeko baimena daukagu".

## LIDERRAREN BERTSIORIK ONENA



CITROËN  
BERLINGO

20 URTEURRENA  
SERIE BEREZIA  
1996-2016

ESEKIDURA ALTUA  
NABIGATZAILEA OPARI  
AURREKO RADARRA  
UKIMEN PANTAILA  
ATZEKO KAMERA

13.950€-TIK AURRERA

Profesionalek ondo dakite. Mitoa erreala da. Citroën Berlingo du izena eta 20 urtean herrialde honetako kaleetan ibili da uneoro, edozein eguraldirekin. Ondo, minutuz minutu, gogor lan eginez landu den lidergoa. Salmanta errekor guztiak hautsi dituen "Made in Spain" liderra. "Made in Spain" profesional guztien oroimenean irudi ikonikoa utzi duena, lehenaren irudia.

Hilabete honetan gala-jantziarekin, eta gama osoa ere bai: baldintza onenak Citroën merkataritza-ibilgailuetan, maiatzaren 10etik 31ra arte.

### CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN nahiago du TOTAL. \*Salneurri gomendatua (13.950 € "Berlingo Multispace PureTech 110 S&S 20. Urteurrena" autoarendako (zergak, garraioa, eskaintza eta Pive-8 plana barne), euren izenean dagoen ibilgailu bat entregatzen duten bezeroendako CITROËN PREMIUM produktuaren eta PSA Finance Services Spain EFC SAREN bidez gutxienez 6.000 euro finantzatzen badituzte 36 hilabeteko gutxieneko iraupen-konpromisoarekin. Eskaintza baliagarria 2016ko maiatzaren 31ra arte parte hartzen duten saltokietan, penintsulan eta Balear uharteetan. Eskaintza ez bateragarria. Baldintzak kontsultatu zure kontzesionarioan. Salneurri gomendatua finantzatzen ez duten bezeroendako: 15.750 euro.

KONTSUMO MISTOA (l/100 km) / CO2 ISURPENA (g/km): BERLINGO 20. URTEURRENA: 4,3-5,1/113-119

Debagoieneko Citroën zerbitzu ofizialak:

TALLERES CHAPIME S.C.L. - San Andres 5 Tel.: 943 79 45 22 - ARRASATE | AUTOS ION - Amillaga 36 - Tel.: 943 76 47 49 - BERGARA



facebook twitter youtube instagram linkedin citroen.es

# KULTURA

## Dantzarekin gozatzeko proposamena

Erakustaldiak, tailerrak eta ikastaroak egingo dituzte maiatzaren 28tik ekainaren 3ra bitartean

**A ARANBURUZABALA** | ARETXABALETA  
Dantza zaletasuna kalera ateratzeko helburuarekin, Dantza Astea antolatu du Jaiki elkarteak, Udaren eta herriko askotariko dantza taldeen laguntzarekin. "Ezinbesteko laguntza eman digu Udalak eta Aretxabaletako dantza taldeen parte hartzea ere erraz eskuratu dugu; beraz, gurekin batera izango dira: tango taldea; Basotxoko erretiratuen areto dantza taldea eta plaza dantza taldea; Bio-dantza taldea; eta Leizarra musika eskolako dantza taldea", azaldu du Maier Etxebarriak, Jaiki elkartearen kidea.

Adin eta zaletasun guztien dako egitaraua prestatu dutela dio Etxebarriak: "Dantzak adin guztietako pertsonak batzen gaitu eta, era berean, dantzak onura handiak ematen dizkio gure izateari: gorputza eta arima arintzen laguntzen digu; trebetasunak eta malgutasuna lantzeko baliagarria da, arnasketa sakonagoa lortzeko ere balio du; neke eta minak arintzen ditu... Aukeratu-tako dantzaren arabera, arlo ezberdinak lantzen dira", gaineratu du Etxebarriak.

### Estilo askotako erakustaldia

Maiatzaren 28an dantza dastaketa zabala izango da. Herriko taldeez gainera, dantzari profesionalak ere gonbidatu dituzte Aretxabaletara: "Donostiako Kolorearekin elkarte artistikoak

dantza integratua zer den erakutsiko du; hau da, desgaitasuna duten eta ez duten dantzariak osatzen duten dantzari buruz ari gara dantza integratuz berba egiten dugunean. Sergio Nguema aktore, dantzari eta abeslariak hip-hop dantza ekarriko du; kaleko dantzetan eskarmentu handia du Euskal Herrian eta baita nazioartean ere. Gasteizko Paula de la Fuente eta Aiala Lareinak, berriz, lindy hop dantza erakutsiko dute. 20ko hamarkadan, swingaren erritmoaz hainbat dantza estilo dantzatzen zituzten AEBetan; besteak beste, charleston, texas tommy eta cakewalk-a. Bada, dantza horien arteko nahasketarekin eta beste hainbat elementurekin sortutakoa da lindy hopa", dio antolatzaileak.

Horiez gainera, kontakt edo inprobisazio dantza, Kubakoak eta ekialdeko dantzak ere bertatik bertara ikusteko aukera izango da. Munduko dantzarik zaharrenetakoa da Gasteizko Milenak erakutsiko duen sabel dantza; naturaren adorazioa du oinarri.

### Aurrez izena eman behar da

Aipatutako dantza horiek guztiak ikasi edo probatzeko bidea emango dute prestatutako ikastaro eta tailerrekin. Parte hartzeko, alde aurretik eman behar da izena [jaikielkartea@yahoo.es](mailto:jaikielkartea@yahoo.es) helbidera idatzita edo 659 35 92 21 telefonora deituta.



Desgaitasuna duten eta ez duten dantzariak dantza integratua praktikatzen. | KOLOREAREKIN



Sergio Nguemak hip-hop dantzak erakutsiko ditu. | S.N.



Lapazak borobilduko du astea. | I.L.



Milenak sabel dantza egiten du. | M.



Kontakt eta inprobisazio saioak egiten dituzte Jaikielkartea. | JAIKIELKARTEA

### DANTZA ASTEAREN EGITARAUA

#### MAIATZAK 28

**09:30** Dantza ikastaroak eta tailerrak (hip-hopa, swinga eta kontakt inprobisazioa). Kiroldegian eta kultura etxean. Aurrez izena eman behar da.

**13:00** Jam-Ñam dantzaldi inprobisatua eta ondoren parte hartzaileendako luntxa Herriko Plazan.

**16:45** Marrazketa eta Mugimendu tailerra Laia Bedosen eskutik, kuartelean. Gaztelekuko nerabeentzat.

**18:00** Dantza ikuskizunak Durana kalean (hip-hopa, dantza integratua, ekialdeko dantza eta lindy hopa)

**19:30** Kubatar dantzak, Mitarte kalean.

**23:00** DJak herriko tabernetan

#### MAIATZAK 29

HAUR DANTZARIEN EGUNA.

Egun osoan zehar Debagoieneko dantza taldeen erakustaldia, Leizarra musika eskolako eskutik.

#### MAIATZAK 30

**18:15** Dantza inprobisazioa, ate irekiak, kuartelean.

#### MAIATZAK 31

**18:00** Areto dantzak, Basotxo elkartearen eskutik, Herriko Plazan.

**18:30** Biodantza, kuartelean.

#### EKAINAK 1

**18:00** Plaza dantzak, Basotxo elkartearen eskutik.

**19:00** Tango erakustaldia, Herriko Plazan.

#### EKAINAK 2

**19:00** Dantza-Zine kluba: *Pina Bausch* filma eskainiko dute, Arkupen.

#### EKAINAK 3

**17:00** Lodotekakoak dantza egingo dute kalean.

**18:00** Gazte txoro dantza festa kalean.

**19:00** 7x7 Jaiki elkartearen erakustaldia eta Izaskun Lapazaren *Hau izaki bitxia* ikuskizuna, Durana kalean.

Iker Sancho | Eslaviar Filologian doktorea eta itzultzailea

# "Emakume horiek euskaraz hitz egiten duten lehenengo aldia da, eta ez da erraza"

- ▶ Jokin Zaitegi itzulpen bekaren irabazlea da Sancho
- ▶ Nobel saridun Aleksievitx-en liburua itzuliko du

MIREN ARREGI | ARRASATE

Svetlana Aleksievitx idazle bielorrusiarraren *Gerrak ez dauka emakume aurpegirik* kronika liburua euskarara itzultzeko lana du Iker Sancho Insaustik (Lazkao, 1975), Literaturako Nobel saridunak euskaratzeko antolaturiko Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketa irabazi baitu Eslaviar Filologian doktorea den lazkaotarrak. Berak itzuliak dira Andrei Platonov-en *Lubakia* eta Sergei Dovlatov-en *Konpromisoa*. EHUn Letren Fakultatean irakasle da Sancho. **Zorionak, Iker, sariagatik! Pozik?** Oso pozik.

**Gaindituta omen zaude egunotan komunikabideetatik jaso dituzun dei guztiak direla eta.**

Ba, pixka bat bai, egia esan. Sentazio arraroa da: batetik, gustuko lan bat egiteko eskubidea ematen didan saria irabazi dudala sentitzen dut, baina, bestetik, oraindik ez dut lan hori egin. Beraz, oraindik egin ez dudana zerbaitegatik hainbeste zorion-mezu jasotzea arraroa da.

**Urtea bukatu aurretik itzuli behar duzu Svetlana Aleksievitx Nobel**

**saridunaren kronika liburua. Zein puntutan dago?**

Itzulpena? Ba, kontuan izanda joan den astean jakinarazi zidatela eta unibertsitatean ikasturte-amaiera zoro batean murgilduta nabilela, hasierako puntutik oso hurbil.

**Erronka polita itzultzaile batentzat hain entzutetsu egin den liburua itzultzeko lana. Testuinguru honetan, nola egiten dio aurre itzultzaileak lanari? Presio handiagoa sentitzen da?**

Handixeagoa, agian, bai, baina neurrian. Egiten ez dakidanik ez dut egingo; beraz, dakidanarekin ahal dudana lanik onena egitea, gehiagorik ezin dut eskaini.

**Ez da argitaratutako zure lehenengo lana. Besteak beste, hor daude *Lubakia* eta *Konpromisoa*. Pentsa-**

**"Oraindik egin ez dudana lan bategatik zorion mezuak jasotzea arraroa da"**

**tzen dut itzultzailea oso prozesu desberdinetan murgiltzen dela liburua arabera.**


Bueno, itzulpen-prozesua beti da antzekoa, baina aldioro daude aldatzen diren elementuak: egilearen estiloa, liburua eragiten dizkizun emozioak...

**Zer-nolako ari da izaten hau?**

Ba, juxtu, liburu hau oso emozionala da, benetako jendeari gertatutako gauza gordin asko dagoelako. Gerrako oroitzapenak, emakumeak tarteko... Denetik dago... Estiloaren aldetik, beharbada, ez da bereziki konplexua, baina badauzka zailtasun nabari batzuk: errusiar amona horien hizkeraren tonuan asmatzea, adibidez... Emakume horiek euskaraz hitz egiten duten lehenengo aldia da, eta ez da erraza...

**Liburua argitaratzen denean itzultzailearentzat beste fase bat hasten da. Irakurlearen iritziak jasotzearena. Prest zaude une horretarako?**

Prest bakarrik ez, irrikaz ere bai. Horrek esan nahiko du jendeak irakurri egin duela, eta hori da funtsezkoena.



Iker Sancho, Svetlana Aleksievitx-en libururekin. | IS

## JOKIN ZAITEGI BEKAREKIN ITZULITAKOAK

**2002** Imre Kertész. Zoririk ez. Itzultzailea: Urtzi Urrutikoetxea

**2003** J.M. Coetzee. Lotaizuna. Itzultzailea: Oskar Arana

**2004** Elfriede Jelinek. Itzulpen saria hutsik utzi zen

**2005** Harold Pinter. Maitalea eta beste antzerki-lan batzuk. Itzultzailea: Iñigo Errasti

**2006** Orhan Pamuk. Elurra. Itzultzailea: Monika Etxebarria / Fernando Rey

**2007** Doris Lessing. Belarra kantari. Itzultzailea: Koro Navarro

**2008** J.M.G. Le Clézio. Basamortua. Itzultzailea: Luis Berrizbeitia

**2009** Herta Müller. Hatsaren kulunka. Itzultzailea: Ibon Uribarri

**2010** Mario Vargas Llosa. Pantaleon eta bisitariak. Itzultzailea: Santi Leoné

**2011** Tomas Tranströmer. Bizientzat eta hilentzat. Itzultzailea: Juan Mari Aguirreurreta

**2012** Mo Yan. Hori da umorea, maisu! Itzultzaileak: Maialen Marin / Aiora Jaka

## Abesbatzen Munduko Sinposiumean egongo den KUP Taldea, bihar, Bergaran

20:00etan eskainiko du kontzertua, Santa Marina parrokian

M.A | BERGARA

KUP Taldeak geldialdia egingo du Debagoienean; bihar, zapatua, kontzertua eskainiko du Bergarako Santa Marina parrokian, arratsaldeko zortzietan. Bepizkunde eta Barroko garaietako lanez osatutako errepertorioa ekarriko du abesbatzak Bergara. Besteak beste, abestuko dituzte Errenazimenduko konposatzaile handienetakoa den Josquin Desprez musikariaren *Ave Maria* eta *Gaude, Virgo Mater Dei* eta Roland de Lassus flandriar musikagilearen *Timor et Tremor* eta *Exalta te Domine*.

Kalitatezko musika entzuteko sekulako aukera da biharkoa; izan ere, puntako musikari eta abeslariz osatutako taldea da KUP. 2003ko udaberrian sortu zenetik, Euskal Herriko Goi Mailako Ikasketen Zentroan irakasle diharduen Gabriel Baltesen zuzendaritzapean

dihardu taldeak. Abesbatza osatzen dute Euskal Herriko beste abesbatza batzuetan diharduten kideek, eta, horien artean, bailarako ordezkariarik ez da falta bertan. Oñatiko Amaia Igartua eta Aitor Biain, Arrasateko Rakel Murgiondo eta Bergarako Karlos Etxaniz taldeko kide dira. Abesbatzaren helburua sortu zenetik, ahalik eta kalitate handieneko musika eskaintzea da.

**Nazioarteko entzute handiko abesbatzekin egongo da KUP sinposiumean**

**Entzute handikoen artean**

2017ko urtarrilaren 22tik 29ra bitartean Bartzelonan egingo den Abesbatzen Munduko Sinposiumean parte hartzeko hautatua izan da KUP Taldea, nazioarte mailan entzute handikoak diren beste 24 abesbatzarekin batera. Hautaketa prozesu zorrotza gaindituta, Sinposiumaren leloa den *The colors of Peace* ideiarenean bultzatu behar du taldeak egitaraua. KUP Taldeko lehendakari Aitor Imaz tolosarraren hitzetan, "ohore izugarria da mundu mailako halako sinposium baten euskal abesbatzen ordezkari izatea".

Nazioarteko abesbatzen elkarlanean soilik ez, abeslari, zuzendari, musikagile, musikako profesional, editore, eta abarren elkarlanean bilakatuko da Bartzelona. Aipatu moduan, 2017ko uztailan izango da hori.



## Veronika Moral, 'Vis a Vis'-en

Antena3 kateko *Vis a Vis* telesailak pertsonaia berri bat gehitu du; infiltratutako polizia bat da hori, eta, hain zuzen ere, haren papera egingo du Bergaran jaioetako Veronika Moral aktoreak. Euskal aktorea, besteak beste, Imanol Uriberen *Lejos del mar* filmaren estreinaldiaren zain dago. *Goenkale* eta *Euskolegas* telebista saioetan ere ikusi izan dugu Moral.





Lehiaketan parte hartu duen talde bateko kideak euren lana antolatzen eta egituratzeko lanetan. | ARIZMENDI

## Konfiantzari buruzko ideia bitxiak jaso dituzte gazteek bideo klipetan

Gaur egingo dute Arizmendiren BH Klip lehiaketako sari banaketa

OIHANA ELORTZA | ARRASATE

Arizmendi Ikastolak antolatuta, gaur, egubakoitza, egingo dute BH Klip lehiaketako sari banaketa Arrasateko gaztetxean, 11:00etan hasita. Orduan jakingo da ze talderen bideo klipak erakutsi duen ondoen konfiantza zer den.

### Bitxiak

Zer da zuretzat konfiantza? galdera izan da aurtengo gaia eta horren erantzuna ikus-entzunezko baten azaldu behar izan dute

gaztetxoek. "Arizmendik antolatu arren, Arrasateko zentroko ikasleek ez ezik, Aretxabaletako eta Eskoriatzako ere parte hartu dute, baita Bergarako Aranzadi Ikastolako ere. Guztira, 39 lan jaso ditugu. Oso pozik gaude", adierazi du Arizmendiko Edurne Baltzategi irakasleak.

Gehienez, bi minutuko iraupena duten lanak aurkeztu behar zituzten parte-hartzaileek. "Aurten pisu berezia izan du lehiaketa honek gurean. Aste oso bateko arratsalde guztietan gaiari buruz

jardun dugu, inoiz baino gehiago landu ditugu bideoak. Gidoiak egiten, grabatzen, editatzen... ibili dira gaztetxoak", dio Baltzategik.

Sari banaketan 150 ikasle inguru batuko dira eta orduan jakingo dute denek noren lanak izan diren sarituak. Bi sari emango ditu epaimahaiak eta beste lan batek ikaslearen saria jasoko du. "Urte urte gero eta maila duinagoa duten lanak ikusten ditugu. Igartzen da baliabide gehiago dituztela urtetik urtera

eta ikasleek ere ondo menperatzen dituztela teknologia berriak, gustatzen zaiela tresna horiekin lan egitea", dio Oihane Agirrek -Goiena telebistako arduraduna eta lehiaketa honetako epaimahai-kideetako bat-. "Ideia bitxiak ere ikusi ditugu; bat baino gehiago, gainera", gaineratu du Agirrek.

### 600 boto

Ikaslearen saria nori eman erabakitze, ikusgai jarri dituzte aurkeztutako lanak sarean, eta Internet bidez emandako botoek erabaki dute zein den lan gustukoena. 600 boto inguru jaso dituzte, guztira.

Lau lagunek osatu dute epaimahaia eta eurek bakarrik dakizkete talde irabazleen izenak. Gaurko sari banaketan emango dituzte aditza. Irabazleen bideoak erakutsiko dituzte eta luntxa egongo da.

## Kantu eta Dantza Eguna dute etzi Elgetan

O.E. | ELGETA

Goizean kantuan eta arratsaldean dantzan egiteko eguna antolatu dute domekarako Elgetan.

Elgetako kantu-jiran taldeak inguruko herrietakoak ere gonbidatu ditu eta Aretxabaleta, Eibar eta Arrasateko taldeek onartu dute gonbidapena. "Baliteke azken orduan beste herriren batek ere baiezkoa ematea. Denok elkarrekin kantuan ibiltzea da asmoa, herrian zehar. Elgetako taldeak kantu-liburua du eta salgai jarriko ditugu bost eurotan. Hor agertzen diren kantuen zerrenda pasa diet dagoeneko domekan etorriko diren beste herrietako kantariei. Kantu klasikoak eta ezagunak dira denak", azaldu du Lorea Larrañagak.

Kantuan ibili ostean, bolatokia bazkalduko dute guztiak elkarrekin. 50 bat lagun izango dira.

### Jainaga eta Narbaiza

Arratsaldean, 18:00etan, dantzan egiteko aukera egongo da Herrixa Dantzan ekimenaren eskutik. Ordua zehaztuta badago ere, tokia azken orduan erabakiko dute, eguraldiak baldintzatuko du eta; txarra eginez gero, gimnasioan izango da, eta ona egiten badu, kanpoan. Jainagak eta Narbaizak bazkalostetik aurrera girotuko dituzte bolatokia bera eta herriko kaleak.

Angel Erro | Idazlea

## "Klasikoak beste lasaitasun batekin irakurtzeko liburuak dira"

- ▶ Arrazoi asko eman ditu klasikoak irakurtzeko, Eskoriatzan
- ▶ Dio beldurra gainditzea dela egin behar den lehenbiziko gauza

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Zergatik irakurri klasikoak? Galdera horren bueltan egin dituzte, Eskoriatzan, Mondragon Unibertsitateak antolatutako 13. Literatur topaketak. Topaketa hauen barruan, eta hasierako galderari erantzunaz, 33 arrazoi eman ditu Angel Erro idazleak.

### Noiz bihurtzen da klasiko liburu bat?

Zaila da jakiten, liburu batzuk hasieratik jaiotzen dira klasiko bihurtzeko, *Juego de Tronos*, *Eraztunen Jauna* edo *Ulises* bezalakoak. Nik esango nuke *spoiler*-a egin ezin daitekeen obra dela klasiko. Denek dakite zer gertatzen den, inori ez diozu isiltzeko eskatu behar.

### Zergatik diegu horrenbesteko errespetua, aurreiritzi?

Denborak zailtzen du. Norberaren hizkuntzaren klasikoekin gertatzen da hori, hizkuntza aspaldikoa dela, adibidez. Itzulpenen bidez oso gaurkotua den edizio bat irakur dezakezu. Hori izan daiteke arrazoi bat, adibidez.

### Nola lantzen da hau hezkuntzan?

Irakasle askok ez dituzte irakur-

tzen gomendatzen eta ikaslarazten dituzten lanak, eta lehenbiziko lana irakurtzea litzateke. Askotan, bi lerro edo bi argudio errepikatzen dira behin eta berriz lan baten inguruan, eta betiko argudioekin ibiltzea kaltegarria litzateke. Irakasle batek pasioa duen edo ez nabaritzen du ikasle batek.

### Zuk 33 arrazoi eman dituzu klasikoak irakurtzeko. Zeintzuk dira horietako batzuk?

Bat da, esaterako, horiek irakurtzeko gogoia izatea. Beste bat, gutxiengoa direla. Telebista lasai ikusteko ere balio dute. Programa ez sakonak, esaterako. Aspergarrien klubean sartuta, dibertitzeko modu bat ere badira liburu



Angel Erro idazlea Goiena telebistako platoon eguaztenean. | O.E.

ru hauek, egia esan.

### Beldurra kentzea da gakoa?

Beldurra gainditu behar den lehen ozttopoa izan behar da.

### Gomendatzekotan, ze klasikorekin hastea gomendatuko zenuke zuk?

Klasikoek duten mendeurrenako aitzakia hori kenduta, Laurence Sterne-ren *Tristram Shandy*; ezustean harrapatu ninduen, dituen berritasunengatik.

Liburuak promozionatzeko *apurtzaile* hitza askotan erabiltzen da, adibidez, baina irragarri gelditzeko arriskua du, kasik dena apurtuta dago eta.

### Klasiko bat irakurtzen hasteko, zer?

Liburu ireki. Aspertuta gaudenean egin daitekeen gauza bat da, edo baita estaldurarik gabe gelditzen garenean ere.

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Arrasate.** Santa Marina kalean 55 metro koadroko etxebizitza salgai. Hirugarren solairuan. Gela guztiak kalera begira. Egongela, sukaldia, komuna eta bi logelakoa. Sotoa ere badu. Harremanetarako: 605 70 98 60 edo santamaina10@gmail.com

## 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Olarte 24an, etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela handia, sukaldia eta komuna. Igogailuarekin eta berokuntzarekin. Dena kanpora begira. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 943 79 11 99

**Eskoriatza.** Etxebizitza guztiz jantzia ematen da errentan Eduardo Gorosari enparantzan. Sukaldia, bi bainugela, egongela eta hiru logela. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 605 77 51 65

**Pineda (Tarragona).** 65 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Terraza handia eta altzariz hornitua, igerilekua eta garajearekin. Hondartzatik 200 metrora. Urte osorako edo udasasoirako. Asteko, hamabost eguneko eta hilabeteko tarifak. Harremanetarako, deitu 634 42 13 70 zerbaki honetara idatzi honako helbide elektronikora: oskar.carrascal@gmail.com

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bi edo hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634 14 36 65

**Arrasate.** Egoera onean dagoen bi logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Ezin dugu hilean 500 euro baino gehiago ordaindu. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634 07 99 70

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 92 67 36 edo 602 30 45 86

**Bergara.** Bi logelako etxebizitza hartuko genuke errentan. Hilean 350-400 euro ordain ditzaket. Berdin da altzaririk ez badago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 77 35 38

## 105. ETXEA OSATU

**Logela errentan Oñati.** Logela ematen da errentan erdigenetikoso gertu dagoen duplex berri batean. Pertsona ardurasua eskatzen da. Wifi konexioarekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 656 74 29 49

## 2. GARAJEAK

## 204. ERRENTAN HARTU

**Antzuolan garajea.** Antzuolan garaje baten bila ari gara errentan hartzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 676 61 15 47

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Antzuola.** Emakume edo neska euskaldun bat behar dugu 5 urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

## 402. ESKAERAK

**Arrasate.** 58 urteko emakume euskalduna prest lan egiteko: pertsona nagusiak zaintzeko,

etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 66 76 91

**Arrasate.** Neska arduratsua, lege paperak dituena, garbiketan aritzeko edo nagusiak zaintzeko lan bila. Orduka, gauez zein asteburuetan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 618 14 71 34

**Bergara.** Neska gertu bulego eta lokalak garbitzeko eta nagusiak lagundu edota afariak gertatzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 610 34 97 88

**Bergara.** Neska gertu etxe garbiketarako egiteko orduka. Ordua 7 euroan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 943 25 38 64

**Debagoiena.** Neska gertu arratsaldetan nagusi eta umeak zaintzeko edo garbiketara lanak egiteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 696 84 19 51

**Debagoiena.** 10 urte baino gehiagoko esperientzia daukat pertsona nagusien zaintzan. Aurretik lan egindako familien erreferentziak aurkez ditzaket. Orduka edo etxean bertan lan egiteko prest. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 617 72 94 98

**Debagoiena.** 32 urteko emakumea gertu nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 602 18 95 92 zerbakira edo idatzi mezua rameshparu57@yahoo.com

**Debagoiena.** Asteburuetan nagusiak zainduko nituzke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 687 36 02 86

**Debagoiena.** Baserri lanetan eta ume eta nagusien zaintzan lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Esperientzia dut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 14 27 02

**Debagoiena.** Egunean zehar nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketarako egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 681 37 60 13

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaintzeko. Izan daitezke dependentzia dutenak edo ondo moldatzen direnak. Esperientziaduna naiz. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634 94 31 60

**Debagoiena.** Emakumea orduka etxeko lanak egiteko gertu. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 632 77 35 38

**Debagoiena.** Erizain laguntzaile titulua duen neska zaintza lanetarako gertu. Esperientzia dut eta erreferentziak aurkez ditzaket. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 620 23 58 15

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten edo bestela, zaintza eta baserri lanetan arituko nintzateke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 602 32 76 80 (Sebastian)

**Debagoiena.** Garbiketarako, nagusiak zaintzen lan egingo nuke, orduka edo egun osoz. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 638 85 43 36

**Debagoiena.** Geriatriko titulua duen neska prest orduka lan egiteko. Etxean lan egiteko ere bai, orduka. Eskarmentu handia. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 600 00 51 60

**Debagoiena.** Gizona gertu orduka pertsona nagusiak zaindu, kalera irteten lagundu eta abarretarako. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634 09 55 46

**Debagoiena.** Gizona gertu pertsona nagusiak zaintzeko eta

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.eus | www.goiena.eus/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunirik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

## - Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

## Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.

Astebeteko prezioa: 17 euro / 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

Iragarkiak Goiena paperean eta Goiena.eus-en argitaratuko dira.

## - Profesionalen moduluak.

Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan eman  
104. Errentan hartu  
105. Etxeak osatu  
106. Bestelakoak

## 2. GARAJEAK

201. Saldu  
202. Erosi  
203. Errentan eman  
204. Errentan hartu  
205. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

301. Saldu  
302. Erosi  
303. Errentan eman  
304. Errentan hartu  
305. Bestelakoak

## 4. LANA

401. Eskaintzak  
402. Etsakerak  
403. Bestelakoak

## 5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso  
502. Eman  
503. Bestelakoak

## 6. MOTORRA

601. Saldu  
602. Erosi  
603. Errentan eman  
604. Bestelakoak

## 7. ANIMALIAK

701. Saldu  
702. Erosi  
703. Eman  
704. Bestelakoak

## 8. DENETARIK

801. Saldu  
802. Erosi  
803. Eman  
804. Hartu  
805. Trukatu  
806. Galdtu  
807. Aurkitu  
808. Bestelakoak

## 9. HARREMANAK

901. Agurrak  
902. Harremanak  
903. Deiak  
904. Bestelakoak

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile, nagusiak zaintzen edo garbiketarako egiten aritzeko gertu nago. Orduka, etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 685 64 85 64

**Debagoiena.** Zaintza lanetan edo etxe, atari, baserri eta abarrek garbitzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 674 12 22 57 edo 626 29 55 32

**Debagoiena.** Zerbitzari moduan edo zaintza lanetan arituko nintzateke. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 632 70 52 82 edo 629 29 11 23

**Emakumea lanerako prest.** Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko edo etxeko garbiketarako egiteko prest. Aretxabaleta eta inguruak. 632 44 92 85 edo 665 21 38 21

**Lan bila.** Neska euskalduna prest adineko pertsona zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko, Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan, Gatzagan, Aramaion, Antzuolan eta Elgetan. 634 81 54 93

**Lana.** Ume eta nagusiak zaintzen, gozoki eta arropa dendan edota zerbitzari moduan lan egingo nuke. Presazkoa da. Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta baita Eibarren ere. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 676 44 85 58

**Oñati, Arrasate edo Bergara.** Emakume oñatiarra, Haur Hezkuntzako ikasketekin, arratsaldetan haurrak zaintzeko edo orduka garbiketara lanak egiteko prest. Kontratuarekin egingo nuke lan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 664 53 28 56

## 5. IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Bergara.** Neska bat behar dugu 10 urteko neskatila bati eskola partikularrak emateko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 696 84 19 51

ko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 81 53 35

**Debagoiena.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko. Berehala hasteko prest. Orduka ere bai. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 631 27 02 83

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketarako egin, nagusiak zaindu eta abarretarako. Txarkuterian ere lan egingo nuke. Orduka edo jardun osoz. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 600 61 89 96 (Marisol)

**Debagoiena.** Neska zaintzan edota garbiketarako aritzeko gertu. Orduka zein etxean bertan bizi izaten. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 603 29 94 29

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen edo etxe, atari eta abarrek garbitzen lan egingo nuke. Berehala hasteko gertu nago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 65 14 17

etxeko mantentze lanak egiteko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634 14 36 65

**Debagoiena.** Gizona lanerako gertu: garbiketarako, banaketak edo denetarik lanak. 632 77 35 38

**Debagoiena.** Gizona prest adineko pertsona zaintzeko, garbitasunak egiteko, lorategiko lanak, baserrien mantenua eta abar. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 634 14 36 65

**Debagoiena.** Mutila nagusiak zaintzeko gertu. Esperientzia daukat eta sukaldian ere ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 647 01 74 66 (Cristino)

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu eta garbiketara lanak egiteko gertu nago. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 679 30 12 37 (Arelis)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. Sukaldean ondo moldatzen naiz. Autoa daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 660 90 51 50 (Argelis)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketarako egiten eta abarretan lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 616 35 54 96 (Carmen)

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen, garbiketarako eta sukalde laguntzaile moduan lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 691 03 25 02

**Debagoiena.** Neska arduratsua ume eta nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 688 81 54 08

**Debagoiena.** Neska arduratsua ume eta nagusiak zaintzeko

## 6. MOTORRA

## 601. SALDU

**Kymco People S 200 c.c. scooter motoa.** 2011 urtekoa eta 4.200 km bakarrik! Azken errebisioa 2016ko apirilaren 25ean egina. Prezioa: 1.000 euro. Deitu eta probatu konpromiso barik. 629 069 360

## 602. EROSI

**7 plazakoa.** Bigarren eskuko zazpi plazako ibilgailua erosiko nuke. 618 76 34 40

## 8. DENETARIK

## 801. SALDU

**Akaziako hesolak.** Eskuz egindako akaziako hesolak saltzen dituela, 1,80 metrokoak. 605 76 10 00

**Lursaila Aretxabaletan.** 1.000 metro koadroko landa-lursaila salgai Etxebarri auzoaren atzealdean. Bista paregabeak eta herriatik gertu. Prezioa merkatua. 618 76 34 40

## 805. TRUKATU

**Zaldiendako lursaila.** Zaldiak bertan izateko moduko lursail bila ari naiz. Trukean, lursaila garbi mantenduko nuke. 697 41 66 24

## 806. GALDU

**Eraztuna Bergaran.** Espoila eta lbargarai artean galdtu nuen, apirilaren 28an. Urre zurikoa da eta harritxo bat dauka. Aurkitu baduzu, eskertuko nuke deitzea: 675 70 06 43

**Mugikorra Bergaran.** Kaixo, ostegunean, maiatzak 5, mugikorra galdtu nuen Ollagorria soziedade inguruan, Joan XXII plazan. Aurkitu baduzu, mesedez deitu telefono honetara. Mila esker. 649 44 48 99

**Poltsa Bergaran.** Maiatzaren 30eko gauean, umearen Hello Kitty-ren poltsa bat galdtu genuen. Aurkitu duenak, telefono honetara deitzea eskertuko nuke. 661 10 29 66

## LAN ESKAINTZA

## Itzultzaile kudeatzailea



## Baldintzak:

- Lizentziaduna izatea, itzulpengintzan, filologian edo kazetaritzan.
- Hizkuntzak: euskara eta gaztelania (baloratu egingo da beste hizkuntza batzuk jakitea).
- Arrasateko bulegoan lan egiteko prest egotea.
- Itzulpen-lanetan esperientzia izatea.
- Sarrerako azterketa, elkarrizketa eta probaldia gainditzea.

Interesatuok bidali curriculumarekin belaxe@belaxe.com helbidera.

## LAN ESKAINTZA

## - UDALTZAINEN LAN-POLTSA

Izena emateko epea: maiatzaren 21etik 30 arte (biak barne).

Oinarri-arauak: BAZen (goiz eta arratsalde) eta web orrian jaso daitezke [www. arrasate.eus](http://www. arrasate.eus)



Pertsonal Saila

## ZORION AGURRAK



**BERGARA**  
**Ander eta Imanol Unamuno**  
Zorionak, bikote! Imanolek urte bat, maiatzaren 26an eta Anderrek 3 urte, maiatzaren 30ean. Familia danaren partetik, muxu handi bat. Batez ere Udane. Ondo-ondo pasatu zuen egunian.



**BERGARA**  
**Ekain Akizu Bilbao**  
Maiatzaren 25ean, 3 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure eguna, muxu potolo bat etxekoen eta, bereziki, Laidaren partetik!



**OÑATI**  
**Izar Isasti**  
Maiatzaren 25ean, 7 urte. Zorionak, printzesa. Egun ederra euki eta topera disfrutatu, hainbeste gura zebeu eguna allau da-eta! Zazpi tirakada belarrittatik eta txokolatezko muxuak, etxeko danon partetik. Asko maite zaittugu.



**BERGARA**  
**Maialen Jauregi Elortza**  
Maiatzaren 25ean, 6 urte. Zorionak, Maialen! Ondo pasatu zure eguna. Etxekoen eta laguntxoan partetik, pa, pa eta pa.



**ARAMAIO**  
**Galder Ibarguren Beltran de Guevara**  
Maiatzaren 23an, 2 urte. Zorionak, maitia! Segi horrela, ganberrotxo. Muxu handi-handi bat, danon partetik.



**BERGARA**  
**Alain Davila Iza**  
Maiatzaren 23an, 5 urte. Zorionak, mutil handi! Disfrutatu zure urtebetetze eguna, maitia, eta muxu handi bat jaso, etxeko guztion partetik!



**ANTZUOLA**  
**Maialen Aranguren Quintana**  
Maiatzaren 22an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Muxu handi bat, etxekoen eta lagunen partetik, eta belarri tirakada galanta, Iratiren partetik.



**ARRASATE**  
**Hugo Ayala Torres**  
Maiatzaren 22an, 3 urte. Zorionak, laztana! Ondo ospatu zure eguna eta ez kendu inoiz irribarre hori. Asko maite zaitugu. Ama eta aita, lehengusuak, izeba-osabak eta aiton-amonak.



**ARRASATE**  
**Jokin Guzman Orobengoa**  
Maiatzaren 21ean, 5 urte. Zorionak, maitia! Patxo potolo pila Oierren, aitatxoren eta amatxoren partetik.



**OÑATI**  
**Luken Olalde Agiriano**  
Maiatzaren 21ean, 5 urte. Zorionak, pitusin! Oso ondo pasatu zure eguna eta muxu pila bat, etxeko danon partetik!



**ARETXABALETA**  
**Xuban Elorza Arkauz**  
Maiatzaren 21ean, urtebete. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure lehenengo urtebetetzea. Patxo handi bat, etxeko danon partetik!



**ARETXABALETA**  
**Luken Okarantza Iglesias**  
Maiatzaren 21ean, 8 urte. Zorionak, Lukentxo, zure lagunen eta familiaren partetik. Ondo pasatu zure urtebetetze egunian, maitia.



**ARRASATE**  
**Unax Gartzia Dorronsoro**  
Maiatzaren 20an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian eta muxu potolo bana, etxeko guztion partetik. Go, Ninjago!



**ARETXABALETA**  
**Amaia Kortabarria Iturbe**  
Maiatzaren 20an, 6 urte. Zorionak, Amaia! Jada sei urte! Patxo handi bat. Malen.



**OÑATI**  
**Aimar Hernandez Otxoa-Aizpurua**  
Maiatzaren 20an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! 7 urtetxo! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat, etxeko guztion partetik. Mua, mua!



**OÑATI**  
**Urko Bikuña**  
Maiatzaren 20an, 8 urte. Zorionak, guapo. Mila muxu familiako guztion eta, bereziki, Naroaren partetik! Ondo ospatu!



**BERGARA**  
**Josu Larrañaga Alvarez**  
Maiatzaren 19an, 6 urte. Zorionak etxekoen partetik!



**BERGARA**  
**Xabier Etxeberria Ugalde**  
Maiatzaren 19an, 7 urte. Zorionak! Ondo pasatu zure eguna. Muxu bat etxeko denon partetik.



**ARRASATE**  
**Denis Sanchez**  
Maiatzaren 19an, urtebetetzea. Zorionak lagunen partetik!



**BERGARA**  
**Maddi Gabilondo Zumarraga**  
Maiatzaren 18an, 6 urte. Zorionak, Maddi! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu erraldoi bat, maitia!



**ARRASATE**  
**Julene Idigoras Amado**  
Maiatzaren 18an, 9 urte. Zorionak, Julene! Ondo-ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat, familia osoaren partetik! Segi horrelako jatorra izaten!



**ARRASATE**  
**Izaskun Arrese Balzategi**  
Maiatzaren 17an, 32 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunian... Asko maite zaitugu! Markel, Iker eta aitatxo.



**OÑATI**  
**Nora Madina eta Aitor Zubia**  
Aitorrek maiatzaren 17an, 3 urte eta Norak maiatzaren 20an, 6 urte. Zorionak familia osoan partetik. Ondo-ondo pasatu zuen urtebetetze egunian! Muxu handi bat!



**OÑATI**  
**Joanes Osés Egaña**  
Maiatzaren 17an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta besarkada handi bat, familia osoaren partetik. Maite zaitugu.



**ANTZUOLA**  
**Ane Eraña Belategi**  
Maiatzaren 16an, 4 urte. Zorionak, maitia! Egun zoragarri bat izan dezazula opa dizugu! Patxo potolo bat, etxekoen partetik.



**ANTZUOLA**  
**Aitziber Etxezarreta**  
Maiatzaren 16an, 3 urte. Zorionak, printzesa, etxekoen eta, batez ere, ahizpa Ainararen eta lehengusu-lehengusina Eleneren, Aitorren eta Iratiren partetik.



**ARRASATE**  
**Dorleta Cabra eta Danel Fernandes**  
Dorletak maiatzaren 16an, urtebetetzea eta Danelek maiatzaren 28an, 6 urte. Familiaren partetik, zorionak bikote!



**ARAMAIO**  
**Auritz Garai Gutierrez**  
Maiatzaren 15ean, 4 urte. Zorionak, txiki! Muxu handi bat etxeko danon partetik. Ederto pasatu zure egunian!



**BERGARA**  
**Harkaitz Ilardua Arteaga**  
Maiatzaren 14an, 7 urte. Zorionak, txapeldun! Egun berezi hau zurekin ospatzeko irrikitan gaude! Patxo potolo pila bat, etxeko denon partetik.



**ARRASATE**  
**Iria Sanzberro Iria**  
Maiatzaren 13an, 5 urte. Zorionak, printzesa! Dagoeneko 5 urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu potolo bat etxeko guztion eta, bereziki, Aratzen partetik.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

**Internet**

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurra> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunian bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

**Posta elektronikoa**

Mezua bidali [zorionagurra@goiena.eus](mailto:zorionagurra@goiena.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

**Ordezkaritzak**

Etor zaitez Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ASTEAGOIENAN



GOIENA

'Jostunak' dokumentala

Erabakitze eskubideari buruzko hainbat iritzi biltzen dituen *Jostunak*; herritarren borondateak jositako istorio bat dokumentala eskainiko da eguean. Gure Esku Dago ekimenaren sorrera eta garapena ardatz ditu ikus-entzunezkoak.

'Jostunak' Eguena, 22:00



ENEKO AZKARATE

Kilometroak 2016ko kantu aurkezpena

Bergaran urrian egingo den Kilometroak 2016 jaialdirako kantuen aurkezpen jaialdia egingo da gaur, egubakoitza, herriko Udal Pilotalekuan. Jaialdi herrikoia eta askotariko emanaldiz osatutakoa izango dena telebistaz eskainiko da eguaztenean.

'Demasa jaialdia' Eguaztena, 22:00

GOIENA TELEBISTA

EGUBAKOITZA, 20	ZAPATUA, 21	DOMEKA, 22	ASTELEHENA, 23	MARTITZENA, 24	EGUAZTENA, 25	EGUENA, 26
12:00 Debagoiena zuzenean	09:00 Kantari	09:00 Kantari	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean	12:00 Debagoiena zuzenean
12:30 Jaiak: Bergarako jaiak	09:30 Platopic	09:30 Platopic	13:00 Korapilo	12:30 Harmailatik	12:30 Harira	12:30 KMK 2016: Demasa jaialdia
13:30 Korapilo	10:00 Korapilo	10:00 Korapilo	13:30 Debagoiena zuzenean	13:00 Jaiak: Bergarako jaiak	13:30 Korapilo	13:30 Kantari
14:00 Debagoiena zuzenean	10:30 Kantari	10:30 Kantari	14:30 Berriak	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean	14:00 Debagoiena zuzenean
14:30 Berriak	11:00 Debagoiena zuzenean	11:00 Jaiak: Bergarako jaiak	15:00 Amaia DJ	14:30 Berriak	14:30 Berriak	14:30 Berriak
15:00 Geure altxorak	11:55 Astea iruditan	12:00 Harira	15:30 Onein	15:00 Harmailatik	15:00 Atlantikoa helburu	14:30 Berriak
15:30 Onein	12:00 Aizank!	13:00 Debagoiena zuzenean	16:00 Debagoiena zuzenean	15:30 Onein	15:25 Hurbilean	15:00 KMK 2016: Demasa jaialdia
16:00 Debagoiena zuzenean	13:00 Jaiak: Bergarako jaiak	13:55 Astea iruditan	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean	16:30 Berriak	16:00 Debagoiena zuzenean
16:30 Berriak	14:00 Harira	14:00 Jaiak: Bergarako jaiak	17:00 Aizank!	16:30 Berriak	17:00 Zaindu zaitez	16:30 Berriak
17:00 Aizank!	15:00 Debagoiena zuzenean	15:00 Aizank!	18:00 Platopic	17:00 Zaindu zaitez	17:40 Geure altxorak	17:00 Atlantikoa helburu
18:00 Ur eta lur	16:00 Astea iruditan	16:00 Platopic	18:30 Berriak	17:30 Ikusi irratia	18:10 Atlantikoa helburu	17:30 Harira
18:25 Zorion Agurrak	16:05 Platopic	16:30 Kantari	19:00 Kantari	18:30 Berriak	18:30 Berriak	18:30 Berriak
18:30 Berriak	16:30 Kantari	17:00 Korapilo	19:30 Amaia DJ	19:00 Korapilo	19:00 Harira	19:00 KMK 2016: Demasa jaialdia
19:00 Kantari	17:00 Korapilo	17:30 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean	19:30 Harmailatik	20:00 Debagoiena zuzenean	20:00 Debagoiena zuzenean
19:30 Atlantikoa helburu	17:30 Amaia DJ	18:25 Astea iruditan	20:30 Berriak	20:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	20:30 Berriak
20:00 Debagoiena zuzenean	18:00 Jaiak: Bergarako jaiak	18:30 Amaia DJ	21:00 Debagoiena zuzenean	20:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	21:00 Debagoiena zuzenean
20:30 Berriak	19:00 Debagoiena zuzenean	19:00 Harira	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean	21:30 Berriak	21:00 Debagoiena zuzenean
21:00 Debagoiena zuzenean	19:55 Astea iruditan	20:00 Kantari	22:00 Harmailatik	21:30 Berriak	22:00 KMK 2016: Demasa jaialdia	21:30 Berriak
21:30 Berriak	20:00 Kantari	20:30 Debagoiena zuzenean	22:30 Debagoiena zuzenean	22:00 Harira	23:00 Debagoiena zuzenean	22:00 Erreportajea: Jostunak
22:00 Amaia DJ	20:30 Amaia DJ	21:25 Astea iruditan	23:00 Berriak	23:00 Debagoiena zuzenean	23:30 Berriak	23:30 Debagoiena zuzenean
22:30 Debagoiena zuzenean	21:00 Harira	21:30 Jaiak: Bergarako jaiak	23:30 Amaia DJ	00:00 Harmailatik	00:00 Harira	00:00 Berriak
23:00 Berriak	22:00 Debagoiena zuzenean	22:15 Debagoiena zuzenean	00:00 Debagoiena zuzenean	00:30 Debagoiena zuzenean	01:00 Harira	00:30 KMK 2016: Demasa jaialdia
23:30 Zaindu zaitez	22:55 Astea iruditan	23:15 Astea iruditan	00:30 Berriak	01:00 Berriak	01:00 Debagoiena zuzenean	01:30 Debagoiena zuzenean
00:00 Debagoiena zuzenean	23:00 Jaiak: Bergarako jaiak	23:30 Amaia DJ	01:00 Harmailatik	01:30 Harira	01:30 Berriak	02:00 Berriak
00:30 Berriak	23:45 Ikusi irratia	00:00 Harira				
01:00 Amaia DJ						

ARRASATE IRRATIA

Bad Co. Project-en kontzerturako sarrerak zozketan

Ikasturteko azkenengo *Kooltur Ostegunak* barruan, eguean Berlingo Bad Co. Project taldea izango da gaztetxean 22:00etan kontzertua eskaintzen. Arrasateko Asier Salak ere joko du bertan. Kontzerturako sarrerak lortzeko, deitu 943 25 05 05era edo idatzi [irratia@goiena.eus-era](mailto:irratia@goiena.eus-era).

Asteko gainbegiraturua zapatuan eta domekan 10:00etan

Asteburuan, besteak beste, elkarrizketa hauek entzun ahal izango dira irratian: domekan izango den Zegama-Aizkorri mendi lasterketako antolatzaile taldeko Ainhoa Txurruka lasterketari buruzkoak kontatzen izango da, eta biharko base-rritarren azoka ere izango da berbeta gai.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE			
Egubakoitza, 20	AMEZUA	Sta. Marina, 32	943 79 09 74
Zapatua, 21	ESPAÑOL MORALES	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Domeka, 22	RUIZ	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Astelehena, 23	ETXEBERRIA	Zarugalde kalea, 38	943 77 16 30
Martitzena, 24	ALBERTO AZKOAGA	Ferrerias kalea, 1	943 79 15 15
Eguaztena, 25	M.FCA. AZKOAGA	Iturriotz 17	943 79 79 99
Eguena, 26	FERNANDEZ	Maisu Aranbarri kalea, 1	943 79 22 26
BERGARA			
Egubakoitza, 20	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Zapatua, 21	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Domeka, 22	URRUTIKOETXEA	Orixondo plaza 4	943 76 11 74
Astelehena, 23	ZABALA	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Martitzena, 24	OIARBIDE	San Antonio, 5	943 76 11 05
Eguaztena, 25	ESTELLA	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 26	ALVAREZ MOZOS	Iparragirre, 2	943 76 12 15
OÑATI			
Egubakoitza, 20	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Zapatua, 21	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Domeka, 22	JULDAIN	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Astelehena, 23	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 24	ANDUAGA	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 25	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 26	IGARTUA	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

Gipuzkoako farmaziak eskuko telefonoan izateko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, ([www.cofijipuzkoa.com](http://www.cofijipuzkoa.com)).

EGURALDIA ASTEBURUAN

DEBAGOIENA



Max. 28  
Min. 12°



Max. 24°  
Min. 9°

**ZAPATUA, 21**  
Bero egingo du; izan ere, giro eguzkitsua izango da goizean. Arratsaldeak, baina, trumoi hodeiak ekar ditzake.

**DOMEKA, 22**  
Okerrera egingo du eguraldiak; temperatura jaitsi egingo da eta euri zaparradak botako ditu. Ez dira ostarteak zabalduko.

EUSKAL HERRIA



Hegoaldeko haizearen ondorioz, temperatura asko igoko da. Baina gero, ekaitza izango da.

GAZTE INFORMAZIOA

LANA

**Arte udalekutarako begiraleak Oñatiko Udalean.** Oñatiko Udala. Baldintzak: Arte Ederretako graduaren bi lehenengoko ikasturteak (edo balio-kidea) gaintuak izatea, gutxienez, eta euskaran EGA edo baliokidea izatea. Aldi baterako kontratazioa izango da: ekainaren 27tik uztailaren 29ra artekoa, hain justu ere. Epea: maiatzak 24.

**Lan-poltsa; euskara itzul-tzailea Nafarroako Gobernua.** Nafarroako Gobernua. Baldintzak dira eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, lizentziadun, ingeniari, arkitekto edo graduako titulua izatea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina izatea; EGA titulua edukitzea, Nafarroako Gobernuak emana,

edo ofizialki balio bera duen beste titulua izatea. Deialdia egiten da, euskara itzultzaile lanpostuan aritzeko izangaien zerrenda bat hautaprobez osatzeko. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sortzen diren beharrak aldi baterako betetzeko erabiliko da zerrenda (salbu eta Osasun Departamentuan). Aurkezteko azken eguna: maiatzak 26.

BEKAK

**Gipuzkoako kooperante gazteentzako bekak.** Gipuzkoako Foru Aldundia. Baldintzak: beka eskatzen duen urteko abenduaren 31n 31 urte bete gabek izatea. Guztira bost beka izango dira eta bakoitza gehienez 2.000 eurokoa izango da. Epea izango da: ekainak 3. Telefona: 943 41 27 71.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO: Arrasateko Gazte Bulegoa: Biteri etorbidea 3 | 943 25 20 65 | [gaztebulegoa@arrasate.eus](mailto:gaztebulegoa@arrasate.eus) Oñatiko Gazteentzako Informazio Gunea: Foruen plaza 4 | 943 71 82 57 | [gazteinformazioa@oinati.net](http://gazteinformazioa@oinati.net)



## OROIGARRIA


**Angela Pescador Martin**

Diego Tena Benitezen alarguna

2016ko maiatzaren 12an hil zen, Gasteizen.

*Beti gogoan izango zaituzte.*Bergarako Agorrosin guneko luzaketa taldea.  
Bergaran, 2016ko maiatzaren 20an.

## OROIGARRIA

**Jexux Urmeneta Urteaga**

'Xolonpo'

1957-02-25 / 2015-05-21

*Izar gorrixa Aloan gañian  
argituz bide ilunena  
ta maitasunez gainezka goiaz  
oroittuz izan zarena.*Eba Aiastui eta etxeokak.  
Bergaran, 2016ko maiatzaren 20an.

## URTEURRENA

**Jexux Urmeneta Urteaga**

2015eko maiatzaren 21ean hil zen.

*Anae maitia, beti izango zara gure bihotzetan.*Etxeokak.  
Oñatin, 2016ko maiatzaren 20an.

## URTEURRENA

**Felix Arenaza Barrena**

2015eko maiatzaren 19an hil zen, 77 urte zituela.

Lehen urteurrenoko meza zapatuan izango da, maiatzaren 21ean,  
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokiari.Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.  
Oñatin, 2016ko maiatzaren 20an.

## URTEURRENA

**Jose Mari Unamuno Loidi**2015eko maiatzaren 25ean hil zen, 80 urte zituela,  
Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondoren.Haren arimaren alde otoitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezte eta etzi,  
domeka, 11:00etan, San Juan Bataiatzailearen parrokiari elizari  
egingo den urteurren mezara.Aldez aurretik mila esker.  
Arrasaten, 2016ko maiatzaren 20an.

## 8. URTEURRENA

**Iñaki Bereziartua Odriozola**

Arrasaten hil zen 2008ko maiatzaren 17an.

*Denbora aurrera doa, aita;  
zortzi urte zu gabe, jada.  
Baina urteak joan ahala,  
aldatzen ez den zerbaite bada:  
zure lezioek aurrera egiteko ematen diguten indarra.*

Arrasaten, 2016ko maiatzaren 20an.

## ESKER ONA

**Andrea Rodriguez-Arias Mangas**

Pedro Luceroren alarguna



2016ko maiatzaren 18an hil zen, 92 urte zituela.

Seme-alabak: Pedro eta Marisa, Fernando eta Laura, Aurelia eta Jose Luis, Luis eta Rita, Carlos eta Toñi. Zaintzailea: Fatima. Bilobak eta gainerako senideak:

Eskerrik asko hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi.

Eskoriatzan, 2016ko maiatzaren 20an.

## HILDAKOAK

**M. Frantziska Blazquez Guerras.** Oñatin, maiatzaren 11n. 103 urte.  
**Margarita Andres Sancho.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 99 urte.  
**Miren Estibalitz Igartua Barrutia.** Oñatin, maiatzaren 12an. 84 urte.  
**Angela Pescador Martin.** Bergaran, maiatzaren 12an.  
**Amalia Portalo Benitez.** Arrasaten, maiatzaren 12an. 91 urte.  
**Martzelina Ruiz Martin.** Oñatin, maiatzaren 13an. 89 urte.  
**Conchi Bedia Madinabeitia.** Arrasaten, maiatzaren 14an. 69 urte.  
**Jose Olalde Madinabeitia.** Oñatin, maiatzaren 15ean. 95 urte.  
**Martzelina Rodriguez Gonzalez.** Arrasaten, maiatzaren 15ean. 80 urte.  
**Maria Teresa Leturia Arrate.** Aretxabaletan, maiatzaren 16an. 86 urte.  
**Adoracion Gonzalez Pinto.** Arrasaten, maiatzaren 17an. 97 urte.  
**Josefa Luisa Telleria Oria.** Oñatin, maiatzaren 18an. 92 urte.  
**Andrea Rodriguez-Arias Mangas.** Eskoriatzan, maiatzaren 20an. 92 urte.

## OROILORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

*Doluminaren sentimenduak eta emozioak bideratzeko, nire  
lana egoera kuttun batean zuekin egotea da. Azken agurrean  
maitasunez agurtu ditzagun hainbeste maite ditugunak**Heriotza-asegurua baduzu: Ez onartu besterik gabe zure ase-  
guru-konpainiak esaten dizun Hileta-Zerbitzua, jakin ezazu:  
NAHI DUZUN Hileta-Zerbitzua  
AUKERA DEZAKEZULA BETI.*maribi 617 44 21 55  
BERGARA

## EZKONTZAK ETA EZTEI-OSPAKIZUNAK

**M. Pilar eta Joxe Mari**

M. Pilar Igartua eta Joxe Mari Kortabarria maiatzaren 22an ezkondu ziren, orain dela 45 urte. "Zorionik beroena eta muxu handi bana, familia osoaren partetik. Segi horrelaxe urte askoan!".

**ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05**edo [eskelak@goiena.eus](mailto:eskelak@goiena.eus)

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarría edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 160 €/ Goiena Klubeko bazkideendako 142 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 140 €/ Goiena Klubeko bazkideendako 125 €

Goiena: irakurriena Debagoienan.

**ASTE BARRUAN, BAITA ERE:**

- ARRASATE** Goiena: Otorala Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
- BERGARA** Jardun elkarte: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.
- OÑATI** Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.
- ELGETA** Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98.
- ANTZUOLA** Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.



**ANTZUOLA San Isidro jaiak**

Ganadu azoka, herriko artisaunen postuen salmenta, kuku-marro erakusketa, txistularien eta trikitilarien kalejira, jaietako zapiaren lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, goitibehera erakustaldia eta Trikititeens taldearen erromeria dira, besteak beste, San Isidro jaiak ospatzeko egingo dituzten ekitaldiak.

Bihar, zapatua, Antzuolan, egun osoan.



IMANOL SORIANO



KUP

**BERGARA KUP taldea**

Abesbatzen munduko sinposiumaren XI. ekitaldian parte hartuko du KUP abesbatzak, Bartzelonan. Lan handia egin beharko du taldeak ordurako eta dagoeneko hasi dira kontzertuak ematen. Sarrera, doan.

Bihar, zapatua, Santa Marinaran, 19:00etan.

**MUSIKA****OÑATI Txipitu, D-Pintxos, Zarpazo A Cicatriz eta Habeas Corpus taldeak**

Rock kontzertua egingo dute Errekalde auzoko jaietan.

Gaur, egubakoitza, Errekalden, 21:00etan.

**BERGARA Organo kontzertua**

Esther Iñiguez (organoa) eta Nagore Larrionek (zeharkako txirula) egingo dute emanaldia. Sarrerekin jasotako dirua Stoltz-Freres organoa konpontzera bideratuko dute. Sarrerak, bost euro. Etzi, domeka, Santa Marinaran, 19:00etan.

**ARETXABALETA Flauta, pandero eta akordeoi emanaldia**

Leizarra musika eskolako ikasleentzako kontzertua.

Maiatzaren 24an, Arkupen, 18:00etan.

**ARETXABALETA Biolin emanaldia**

Leizarra musika eskolako ikasleentzako kontzertua.

Maiatzaren 26an, Arkupen, 18:00etan.

**ANTZERKIA****ARETXABALETA 'Pieza absurda'**

Obscena Familiar taldearen esku-tik. Oholtza gainean hiru aktore. Hiru aktore, familia bereko hiru pertsonaia. Amak familia elkar-tu gura du eta tradizioa eta ohi-turak erabiliko ditu. Euren arteko komunikazioa urria da. Sarrerak, lau euro.

Gaur, egubakoitza, Arkupen, 20:00etan.

**ERAKUSKETAK****ARRASATE Beart elkartea**

Bergarako Arte Elkarteko kideen pinturak ikusgai ipini dituzte. Maiatzaren 28ra arte, Kulturaten.

**BERGARA Javier Vicente**

Bazen behin herri txiki batean delako erakusketa ipini du argazkilarik bergararrak. Domeka da erakusketa ikusteko azken eguna. Maiatzaren 22ra arte, Aroztegin.

**OÑATI 'Frei, Free, Aske'**

Xabin Egañaren margolanak. 17 lan handi eta beste hainbat txiki ikus daitezke domekara arte. Maiatzaren 22ra arte, kultura etxean.

**NON-ZER**

Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.

Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.eus | Faxa: 943 25 05 00

MAIATZA 20  
MAIATZA 26

**ARETXABALETA 'Piedra'**

Ainhoa Caberoren lanak ikusgai. Maiatzaren 30era arte, Arkupen.

**ESKORIATZA 'Almen 50 urte'**

Argazkiak, dokumentuak, eta beste hainbat material. Maiatzaren 25ean, kultura etxean, 18:00etan.

**JAIK****OÑATI Errekaldoko jaiak**

Askotariko ekintzak egingo dituzte: egubakoitzean, txorimaloak, garagardo dastatzea eta rock kontzertua; zapatuan, jolasak, mus txapelketa eta erromeria; eta, domekan, auzo bazkaria, goitibehera lasterketa eta bertso saioa. Aste bukaeran, Errekalde auzoan.

**OÑATI Araotzeko jaiak**

Egitarau zabala prestatu dute: zapatuan, auzo bazkaria, umeendako jolasak, txokolate-jana eta afaria; eta, domekan, meza, herri kirolen jaialdia eta trikitilarien emanaldia. Zapatua eta domeka, Araotzen.

**LITERATURA****ELGETA 'Ipuinen ordua'**

Umeendako euskarazko ipuin kontaketa saioa: 16:40an 5 urtetik gorako umeendako, eta, 17:25ean 2 urtekoendako.

Gaur, egubakoitza, liburutegian, aipatutako orduetan.

**BERGARA Gaztelarazko irakurketa kluba**

*La mujer es una isla* liburua izango dute hizpide ikasturteko azken saioan.

Maiatzaren 24an, liburutegian, 18:00etan.

**BERGARA Ipuin kontaketa**

*En mi mundo* delako helduendako saioa egingo du May Gorostiak, gaztelaraz.

Maiatzaren 24an, liburutegian, 19:30ean.

**BERGARA Euskarazko irakurketa kluba**

*Sara izeneko mutila* liburua izango dute hizpide ikasturteko azken saioan.

Maiatzaren 25ean, liburutegian, 18:00etan.

**OSPAKIZUNAK****BERGARA 'Demasa' abestiaren aurkezpena**

*Kilometroak 2016. Demasa* abestia aurkezteko jaialdia. Emon taldeak lehen aldiz joko du zuzenean. Horretaz gain: Asier Kidam Magoa; Olmar Elejaga eta Manex Alberdi dantzariak; Azkater Pelox Trio; Iñaki Mata eta *Barreras* ikuskizuna (txotxongiloak), besteak beste. Sarrerak, sei euro. Gaur, egubakoitza, pilotalekuan, 20:00etan.

**BERTSOLARITZA****ANTZUOLA San Isidro jaietako saioa**

Unai Agirre, Alaia Martin, Mikel Artola eta Unai Mendizabal bertsoan. Sarrerak, bost euro. Gaur, egubakoitza, Torresoroan, 22:00etan.

**ARAMAIO Arabako eskolarteko finala**

Martin Abarrategi aramaioarrak parte hartuko du finalean, beste bost bertsolarien kontra (11:30). Ostean, bertso-triki poteoa egingo dute (13:00) eta, bukatzeko, bazkaria (15:00). Bihar, zapatua, aipatutako orduetan, kultura etxean.

**OÑATI Herriko bertsolariak**

Andoni Goitia, Gontzal Belategi, Urko Arregi, Aitor Tatiegia eta Maider Arregi bertsoan. Egoitz Atxaga izango da gai-jartzailea. Etzi, domeka, Errekalden, 19:30ean.

**HITZALDIK****OÑATI 'Ihes eta beldur sena eta horren agerpenak'**

Haurdun daudenentzat eta 0-1 urteko haurren gurasoendako. Gaur, egubakoitza, ikastolan, 17:00etan.

**ARRASATE Siria eta jihadismoa**

Gabriel Ezkurdia analista politikoak egingo du hitzaldia, Askapenak gonbidatuta. Maiatzaren 25ean, Irati tabernan, 19:00etan.

**BERGARA 'Kultura da kinoa'**

Juan Jose Ibarretzek eta Joan Mari Torrealdaik egingo dute berba.

Maiatzaren 25ean, udaletxe osoko bilkura aretoan, 19:00etan.

**OÑATI 'Erabakitze eskubidea: Kataluniatik, askatasunetik'**

Jaume Lopezek eta Koldo Saratzagak egingo dute berba Erain Debagoienak gonbidatuta. Zelai Nikolas izango da moderatzailea. Maiatzaren 25ean, Santa Anan, 19:30ean.

**ESKORIATZA 'Aldaketa soziala eta erabakitze eskubidea'**

Isabel Salud (IU), Oskar Matute (EH Bildu) eta Sergio Campos (Podemos) gonbidatu dituzte. Maiatzaren 26an, Zaldibarren, 19:00etan.

**IKUS-ENTZUNEZKOAK****ARRASATE Herri indigenen egindako lanak**

*Malla malla pewenche, memoria y resistencia mapuche* eta *Soy colla* dokumentalak emango dituzte. Ostean, solasaldia egingo dute indigenekin.

Maiatzaren 24an, Kulturaten, 19:00etan.

**ARRASATE Herri indigenen egindako lanak**

*Malla malla pewenche, memoria y resistencia mapuche* eta *Soy colla* dokumentalak emango dituzte. Ostean, solasaldia egingo dute indigenekin.

Maiatzaren 26an, kultura etxean, 19:00etan.



GOIENA

**ARETXABALETA Tronboi joleen topaketa**

Gipuzkoako musika eskolako 100 ikasle baino gehiago elkartuko dira. Tartean egongo dira Aretxabaletako eta Bergarako tronboi joleak. Pink Floyd, Vangelis, La Oreja de Van Gogh eta beste hainbat talderen kantuak interpretatuko dituzte Herriko Plazako kontzertuan.

Etzi, domeka, aipatutako lekuan, 12:30ean.



IMANOL SORIANO

**ARETXABALETA Euskeriaren Eguna**

Euskara ahoan hartuta jai giroan murgilduko dira. Jolasak, herri bazkaria, bertso-paper lehiaketa, bolo eta karta jokoak eta bazkaria egingo dituzte. Urtero legez, Larrain dantzarekin eta Ttek! elektrotzarangarekin bukatuko dute eguna.

Bihar, zapatua, Aretxabaleta hainbat lekutan, egun osoan.

**GAZTELEKUAK****BERGARA 'Bost baietz!'**

Askotariko probak egingo dituzte kalerik kale.

Bihar, zapatua, gaztelekuan, 18:00etan.

**BERGARA 'Eraiki leku'**

Uztailerako ekintzak proposatze-ko eta adosteko batzarra.

Etzi, domeka, gaztelekuan, 18:00etan.

**UMEAK****ARRASATE Ate irekiak ludotekan**

Haurrek proposatutako ekintzak egingo dituzte: Okendon txokolate-tarta, Santa Marinaran irrati tailerra eta Usaetxen krepeak. 3-12 urte artekoendako.

Maiatzaren 26an, aipatutako lekuetan, 18:00etan.

**IBILALDIAK****LEINTZ GATZAGA '2016 bidea'**

Donostia 2016 Europako kultura hiriburuaren ekintza. Bederatzi-garren etapa egingo dute Leintz Gatzaga eta Arrasate artean: 19,3 kilometrokoa.

Etzi, domeka, San Migel plazan, 09:30ean.

**ESKORIATZA 'Zazpi elizateen martxa'**

Bi urtean behin egiten den martxa. 31 kilometro ditu eta 2.000 metroko desnibela. Mazmela, Zarimutz, Marin, Apotzaga, Gellao, Mendiola eta Bolibar zeharkatuko dituzte. Hamarretakoa Apotzagan egingo dute. 14:00etan bukatutzat emango dute martxa.

Etzi, domeka, Fernando Eskoriatza plazan, 07:00etan.

**ARRASATE Artzaintzaren ibilbidea**

Urkiola eta Arraba artean egingo dute hirugarren etapa. Izena emateko egunak, martitzena eta eguaztena, 19:30etik 20:30era.

Izen-ematea, Besaiden, aipatutako egunetan eta orduan.

**ARRASATE Europako mendietara**

Zeharkaldia egingo dute ekainaren 4-5eko aste bukaeran. Izena emateko egunak: maiatzak 23 eta 30, 19:30etik 20:30era.

Izen-ematea, Besaiden, aipatutako egunetan eta orduan.

**IKUSKIZUNAK****ARRASATE 'Reubicando al genio'**

Meugenio taldeak Eugenio txiste kontalaria oinarri hartuta egingo dako ikuskizuna. Txiste berriak, irudi berriak, barre algarak, umore ona...

Gaur, egubakoitza, Kajoi tabernan, 22:00etan.

**DANTZA****ELGETA Kantu eta Dantza Eguna**

13:00etan kantu-jira, 14:30ean bazkaria eta ostan kantaldia, eta, 18:00etan *Herrixa Dantzan* saioa, Jainagaren eta Narbaizaren zuzeneko musikarekin.

Etzi, domeka, kiroldegian, aipatutako orduetan.

**BESTELAKOAK****OÑATI Udaberriko txapelketa**

DBHko ikasleendako kirol topaketa egingo dute.

Gaur, egubakoitza, Zubikoan, 16:00etan.

**ESKORIATZA 'Risoterapia'**

Autoestimua eta hazkunde pertsonala hobetzeko, eta norbana-koaren ezagutza helburu izanik, bizitza umorez disfrutatze-ko doa tailerra.

Gaur, egubakoitza, kultura etxean, 18:30ean.

**BERGARA 'Altzorraren bila'**

*Geocaching* teknika lantzeko aukera, herriko ezkutuko altzorrak topatzeko helburuarekin. Altzorrak topatu ahala, sariak irabazteko aukera egingo da.

Bihar, zapatua, Laboratoriumen, 10:30ean.

**ELGETA Hiru txirilo txapelketa**

Gipuzkoako txapelketako zazpi-garren jardunaldia.

Bihar, zapatua, bolatokian, 17:00etan.

**ARETXABALETA Odol ateratzea**

Hilaren 23an eta 30ean egongo dira Arabako odol bankuko kideak herrian.

Aipatutako egunetan, osasun etxean, 16:00etan.

**DEBAGOIENA Baserriko plastikoko**

Siloa estaltzeko, belar boletako, berotegietako eta ortuko lurreko plastiko beltza; eta berotegietako plastiko zuria batuko dituzte.

Maiatzaren 24an, adostutako lekuetan, 16:00etan.

**IZEN-EMATEA****OÑATI Herriko pilota txapelketa**

Txapelketa ekainean, uztailean eta irailean jokatu da, eta, finala, San Migel jaietan. Baina, alde aurretik eman behar da izena, Arrano, Ona eta Aloña tabernetan, hilaren 22a baino lehen. Bikote bakoitzak hamar euro ordaindu beharko du.

Izen-ematea, aipatuko lekuetan.

**DEBAGOIENA 'Kursaal eskura'**

Okzitaniako Tolosako Orquesta Nacional de Capitoliok eta Donostiako Orfeoia maiatzaren 31n egingo duten kontzertura joateko autobusak irtingo dira bailaratik. Izena emateko azken eguna maiatzaren 26a da.

Izen-ematea, herri bakoitzean zehaztutako lekuetan.

**OÑATI 'Elikadura osasuntsua'**

Elikadurak duen garrantziaz eta egun sortzen duen obsesioaz berba egingo du Amaia Diaz de Monasteriogurenek, maiatzaren 26an. Baina, izena emateko azken eguna maiatzaren 23a da, 943-03 77 00 telefonoan edo *ainhoa@onati.eus* helbidean.

Izen-ematea, aipatutako lekuetan.

**OÑATI Zarautzera bidia**

Egun osoko irteera egingo dute Pake Leku elkartekoek. Izena emateko egunak: maiatzak 24 eta 25, erretiratuen elkartearen.

Izen-ematea, aipatutako egunetan.

**OÑATI Udako kirol kanpaina**

Ekainaren 27an hasiko dute lehen txanda, eta oraindik lekua dago hainbat taldetan. Besteak beste, mendiko bizikletan, mini-tenisean, xakean, igeriketan, eskaladan eta gurasoendako eta seme-alabendako patinajearen.

Izen-ematea, kiroldegiko bulegoan.

**KIROLA****ARRASATE Zaldibarko finalerdiak**

11:00etan Aldatz-Betrayer partidua jokatu da, eta 12:00etan Lasagabaster-Sonografos. Bi irabazleek final handia jokatu dute hurrengo aste bukaeran.

Bihar, zapatua, Zaldibarren, aipatutako orduetan.

**OÑATI Boxeo jaialdia**

Hamabi emakumek parte hartuko dute erakustaldian. Tartean, Ixa Rodriguez, Espainiako txapelduna. Sei boxeok borrokaldi egingo dituzte. Sarrerak salgai daude Txaketua tabernan eta Indar gimnasioan.

Etzi, domeka, Zubikoan, 19:00etan.

**LEHIAKETAK****ESKORIATZA San Pedro jaietarako esaldi lehiaketa**

Udalak deitu du dagoeneko ekain bukaerako herriko jaietarako esaldi lehiaketa. Helburua da herritarrak jaiak ondo pasatzera gonbidatzea. Lanak entregatzeko azken eguna ekainaren 8a da, kultura etxean.

Lanak entregatzeko epea, goian aipatutakoa.

**ZINEMA****ARRASATE****AMAIA ANTZOKIA**

**Toro**  
Zapatua: 19:30, 22:00.  
Domeka: 19:30.  
Astelehena: 20:30.

**El libro de la selva 3D**  
Zapatua eta domeka:  
17:00.

**OÑATI****KULTURA ETXEA**

**Toro**  
Egubakoitza eta zapatua:  
22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehena: 19:30.

**EIBAR****COLISEO**

**X-Men: apocalipsis**  
Zapatua: 16:30.  
Domeka: 17:00.

**La noche que mi madre mató a mi padre**  
Zapatua: 19:45.  
Domeka: 20:00.

**Capitan America**  
Zapatua: 22:30.

**Mi amor**  
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.  
Domeka: 17:00, 20:00.

**ANTZOKIA**

**Angry birds**  
Zapatua eta domeka:  
17:00.

**X-Men: apocalipsis**  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:30.

**GASTEIZ****FLORIDA**

**Noche real**  
Egubakoitzetik domeka:  
18:30, 22:30.  
Astelehenetik eguenera:  
18:50.

**El olivo**  
Egubakoitzetik domeka:  
16:40, 20:30, 22:30.  
Astelehena, eguaztena eta eguna:  
17:00, 20:40.  
Martitzena: 17:00.

**Angry bird**  
Egubakoitza: 16:40, 18:30.  
Zapatua eta domeka:  
12:00, 16:40, 18:30.  
Astelehenetik eguenera:  
17:00.

**Corazon gigante**

Egubakoitzetik domeka:  
18:30, 22:30.  
Astelehenetik eguenera:  
18:50, 21:00.

**La bruja**  
Egubakoitzetik domeka:  
20:30, 22:30.  
Astelehenetik eguenera:  
20:40.

**Las estaciones**  
Egubakoitzetik dp, elara,  
16:40, 20:30.  
Astelehenetik eguenera:  
17:00, 20:45.

**El hombre perfecto**  
Egubakoitzetik domeka:  
18:30.  
Astelehenetik eguenera:  
18:50.

**El libro de la selva**  
Egubakoitza: 16:30.  
Zapatua eta domeka:  
12:00, 16:30.  
Astelehenetik eguenera:  
17:00.

**El hombre que conoca el infinito**  
Egubakoitzetik domeka:  
20:30.  
Astelehenetik eguenera:  
19:00.

**X-men apocalipsis**  
Egubakoitza: 17:00,  
19:45, 22:30.  
Zapatua eta domeka:  
12:00, 17:00, 19:45,  
22:30.0

**Madame Bovary**  
Egubakoitzetik domeka:  
17:30, 20:00, 22:30.  
Astelehenetik eguenera:  
17:30, 20:15.

**Mas alla de las montañas**  
Egubakoitzetik domeka:  
17:30, 20:00, 22:30.  
Astelehenetik eguenera:  
17:30, 20:15.

**Zootropolis**  
Zapatua eta domeka:  
12:00

**BOULEVARD**

**X-Men: apocalipsis**  
Egubakoitzetik eguenera:  
18:00, 19:00, 20:00,  
21:00.  
Zapatua eta domeka:  
16:00, 17:00.

**X-Men: apocalipsis 3D**  
Egubakoitzetik eguenera:  
22:00.

**Capitan America**  
Zapatua: 23:40.  
Egubakoitzetik eguenera:  
17:40, 19:00, 20:40,  
22:00.  
Astelehena, eguaztena eta eguna:  
19:00, 22:00.  
Martitzena: 22:00.

**Capitan America 3D**  
Zapatua eta domeka:  
16:00.

**Angry Birds**  
Egubakoitzetik eguenera:  
18:10, 19:10, 20:20,  
21:20.  
Zapatua eta domeka:  
16:00, 17:00.

**La bruja**  
Zapatua: 00:30.  
Egubakoitzetik domeka:  
17:45, 20:00, 22:30.  
Zapatua eta domeka:  
16:30.  
Astelehenetik eguenera:  
18:30, 20:30, 22:30.

**Espias desde el cielo**  
Zapatua: 00:45.  
Egubakoitzetik eguenera:  
18:00, 20:15, 22:30.

**El libro de la selva**  
Zapatua: 00:30.  
Egubakoitzetik eguenera:  
17:45, 20:00, 22:15.  
Zapatua eta domeka:  
15:30.

**Objetivo: Londres**  
Zapatua: 23:30.

**Infiltrados en Miami**  
Zapatua eta domeka:  
15:45.

**Kung Fu Panda 3**  
Zapatua eta domeka:  
15:50.

**El olivo**  
Zapatua: 00:50.  
Egubakoitzetik eguenera:  
22:50.

**Triple 9**  
Egubakoitzetik eguenera:  
22:30.

**Ratchet and Clank**  
Zapatua eta domeka:  
15:40.

**Tini: el gran cambio de Violetta**  
Egubakoitzetik eguenera:  
18:10.  
Zapatua eta domeka:  
16:00.

**Kiki, el amor se hace**  
Zapatua: 00:40.  
Egubakoitzetik eguenera:  
20:20, 22:30.

**KRITIKA****Kateak hausten**

Fusi 40 urte pasatxo dituen gizon handia da. Handia bere

itxurarengatik: oso altua eta oso gizona, baita oso bihotz onekoa delako. Amarekin bizi da eta arazo handiak ditu beste batzuekin harremanak izateko. Badu lagun bat, neskatila bat, baina, orokorrean, oso zaila du besteekin komunikatzea. Isila eta lotsatia da. Bere itxurak eta bizimoduak mesfidantza sortzen dute auzokideen artean eta mesprezua eta txantxak jasan beharko ditu lankideen partetik. Gizarteak bere ereduak sortzen ditu, eta, hortik kanpo geratzen bazara, askotan, baztertu egiten zaituzte. Hala eta guztiz, ingurunearen eraginarekin batera, norberaren jokatzeko modua dago. Pauso bat aurrera eman beharrean etxeko babesean geratuz gero, bakardadea eta frustrazio sentimenduak nabarmendu egin daitezke. Kateak hautsi behar dira. Fusik emakume bat ezagutuko du, eta, harreman horrekin, bere bizitza aldatzen joango da.

Zuzendariak oso ondo deskribatzen du pertsonaiaren izaera. Fusi moldatu gabeko gizona da. Duen izaeragatik baztertua sentitzen da, baina,

**CORAZÓN GIGANTE ★★★★★**

**Zuzendaria:** Dagur Kari.

**Herrialdea:** Islandia.

**Aktoreak:** Gunnar Jonsson, Ilmur Kristjansdottir.

aldi berean, ez da pertsona gorrotagarria. Beti besteei laguntzeko prest dago -momentu batzuetan, istorioaren sinesgarritasunerako, agian, gehiegi-, nahiz eta besteen portaera zalantzarria izan. Kasu askotan, halako pelikulak ez tiegiak izaten dira. Bihotz oneko pertsonaiei azkenean dena ondo ateratzen zaie eta ikusleak zoriontsu ateratzen gara zinema gelatik. *Corazón gigante*-k tentazio horretatik ihes egiten du. Bukaera oso polita da, baikorra, baina biguna izan barik. Istorioa gazi-goza da, pertsonaia bakartia bada ere, bakardade hori gizarte osoan antzematen da. Ikusle askok bat egiten dugu pertsonaia nagusiarekin. Aipagarria da Gunnar Jonssonen lana. Neurritasunez eta berotasunez hurbiltzen da pertsonaiarengana.

ANTONIO ZABALA

Bi lagunendako otorduen zozketa astero Puntuan. Hartu parte eta... on egin!

Etxe Aundi jatetxean prestatutako zerba-kirtenak urdaiazpiko-bexamelaz beteta.



puntua

'PUNTUA' ORAINDIK ETXEAN JASOTZEN EZ BADUZU:  
943 25 05 05 edo Puntua.eus edo Whatsapp: 688 69 00 07

goienakluba

goiena

2016-05-20

BUKATZEKO

## Atakamako basamortua lanleku

- Txileko 'Minera Escondida' meategian egiten du lan Haimar Etxeberria San Migel geologoak
- Arrasatearrarekin batera 15.000 langilek dihardute eta munduan kobre gehien ustiatzen den tokia da

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Geologoa da Haimar Etxeberria San Migel (Arrasate, 1979) eta Txilen egiten du lan, Atakamako basamortuan. Geologia ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Geologiako Ingeniaritza masterra Granadan: "Txileko ikaskide bat izan nuen han eta lanerako eskaintza egin zidan 2012an. Aurretik, Kazakhstanen urtebete egin nuen, zentral hidroelektriko bateko tunelean; eta gero, han eta hemen ibili nintzen iberiar penintsulan. Baina penintsulako egoera ikusirik, krisi betean zegoen sasoi hartan, aukera ona iruditu zitzaidan Txile", dio Etxeberriak.

### Lanaldi berezia

Ausenko izeneko ingeniaritza enpresa australiarrean egiten du lan. Iazko ekaina arte Santiagoko bulegoetan ziharduen: "Orduan eskaini zidaten Atakamako basamortuan dagoen *Minera Escondida* izeneko meategian, proiektu interesgarri batean, lan egiteko aukera. Urtebete daroat hemen, Santiagotik 1.300 bat kilometro iparralderantz".

*Minera Escondida* meategian 15.000 lagunek egiten dute lan, eta Etxeberriaren proiektuan 300 inguruk. "Atakamako basamor-



Geologo arrasatearra lanerako arrokekin meategia atzean duela. | HAIMAR ETXEBERRIA

tuan ur eskasia dagoela jakinekoda eta kobrea ustiatzeko prozesuan izugarritzko ur kantitateak behar dira. Proiektuaren helburua da prozesuan galtzen den ur kantitatea murriztea", dio arrasatearrak. Mineralaren bilakaeran sortzen den hondakina presa antzeko batera isurtzen dute eta han sortzen diren galerak murrizteko presa hau sektoretan banatzen dabilta: "Horretarako, petril batzuk erai-

kitzen dihardugu. Lurrezko egitura hauek meategiko hondakinen gainean eraikitzen ditugu, padura baten eraikitzen ibiliko bagina bezala. Egitura horien diseinuan parte hartzen dut nik, eta eraikuntza gainbegiratzen".

Santiagon bizi da, bikotekidearekin, bergararra bera, eta hau da Etxeberriaren lanaldia: zazpi egun lan eta beste zazpi jai. Astelehenetan, Antofagasta hiri-



Haimar Etxeberria. | H.E.

ra joaten da hegazkinean; eta ondoren, hiru ordu eta erdiko bidaia egiten du autobusean meategiraino: "Zazpi egunetan ez daukat bizitzarik; meategian bizi garenez, lana da ardatza, lanetik ohera eta ohetik lanera. Argi dago ondorengo zazpi egunak goxoa-goak direla".

Espainiako Estatutik eta Euskal Herriko joandako langile profesional asko daudela Txilen dio: "Ekonomikoki herrialde indartsua da, espainolez hitz egiten da eta lanerako aukera ugari dago". Hala ere, etorkizunean, etxera itzuli gurako luke. Bien bitartean, goraintziak bidali gura dizkie senideei eta lagunei: "Urrun egon arren gertu sentitzen ditugu".

AZKEN BERBA

IDOIA ETXEBERRIA



Maitasun 'birala'

Euskadi Irratian entzun nuen aurrekoan. Emakume bati buruzko albistea. Metroan ikusi zuen gizon baten bila zebilela. Parez pare joan ziren eserita. Begiradak gurutzatu zituzten. Eta irribarreak. Ez zuten hitz egin. Geltoki berean jaitsi ziren, eta bakoitza bere bidetik joan zen. Emakumea damutu egin zen gero. Ezer esan ez izanaz. Eta sare sozialean bidez hasi zen gizonaren bila. Bere *ametsetako gizona* zela uste zuelako.

Istorio ederra da, oso erromantikoa. Eta literarioa. Ez dakit non gertatu zen. Parisen? Berlinen? Londresen? Ez dut gogoratu. Beharbada, ez zaidalako inporta. Kontua da emakume hori Europa osoko komunikabideetan agertu dela. Eta hautagai pila bat atera zaizkiola. Ehundik gora. Bilatzen zuen gizonaren arrastorik ez, ordea.

Ez da harriztekoa. Hanka egitea. Ezer jakin nahi ez izatea. Bilatzen zuen gizon hori uxatzea, deialdi horrekin. Izan ere, literatura egiteko polita izan daiteke: bere printzearen bila dabilen *errauskiñe* moderno bat. Baina bizitza errealerako ez da hain erakargarria. Oraindik orain, gehienok ez dugu maitasun istorio *biralik* nahi. Nahiago dugu bizitza pribatua pribatu mantentzea. Eta eskerrak.

2 mó markako betaurreko gama altuko progresiboak + eguzkitako progresiboak

197€

Gure betaurreko guztiak 2016 bildumakoak dira

J. Carlos Guerra, 1 • Tel.: 943 79 29 95  
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75  
BERGARA

MULTIOPTICAS  
lehen zerbitzu optikoetan

www.multioplicasgipuzkoa.com

BEASAIN • DONOSTIA • EIBAR • ERREÑTERIA • LASARTE • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.